EGAN

5-6

1986

lemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «JULIO DE URQUIJO»
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa
Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

	Pág.
GALIZIAKO IHARDUNALDIETAN KOMUNIKABIDEEI BURUZ: A. Lertxundi	5
GALIZIA, KATALUNIA ETA EUSKALDUN IDAZLEEN III. BILERA ONDOKO ERABAKIAK	9
HITZALDI BAT ETA BERE AURRE-HISTORIA: F. Krutwig	11
IKUSPEGIAK II: F. Aranzabal Lamarain	37
BI MENDEON ARTEKO GIROA ETA INPRESIONISMOAREN ERAGINA	61
IN MEMORIAM. PERPETUA SARAGUETA: J. M. Satrustegi	67
ARESTI ZENAREN «MUNDU MUNDUAN» ETA LAN ARGITARAGABEAK: J.S.M.	81
OLERKIAK	
CHRISTMAK: B. Gandiaga	87
ZELAN BIZI GAREN: G. Aresti	97
ZEZEN LARRUA: S. Espriu - Otsalar	107
KONTU KONTARI	
ZAZPIGARREN TXITATXOA: J. Iriarte	113
IXIDOR: P. Etxeberria	129
JAN-EDANAK	
Euskaltzale eta euskalarien jan-edanak	143
ADABAKIAK	
Asmoz ta jakitez, behekoak goikoa eskondu	157
Etarra	157
Bilbo zaharra	158
Jauretxe, Jauregi jatorragoaren kontra	158
Eritxira amaiñ emon da	159
Euskal Herriko A.A. eta Mendaur	162
Ipuçcha, lehen deitura	162
Aritxulegi	163
LIBURUAK	
A. DONOSTIA: J.S.M.	167
J.A. ARANA MARTIJA: J.S.M.	171
J.M. MENDIZABAL: J. Garzia	173
A. LERTXUNDI: J.S.M.	176
ETXABURU'TAR J.M.: J.S.M.	178
B. ENBEITA: J.S.M.	180
ANTZERKIA	
ZIRT ETA ZART: I. Elias Odriozola	185

EGAN

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA
1018558
891.69 EGA 1986 5-6

Comité de Redacción:

ANGEL LERTXUNDI
LUIS MICHELENA
JUAN SAN MARTIN
ARANTXA URRETAVIZCAYA

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAIS
Dirección: Luis Michelena y Juan San Martín
Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca Vol. XXXIX * (orden corregido) Sept.-Dic. 1986

ISSN: 0422 - 7328. Título Clave: EGAN
Depósito Legal: S. S. 289/1958

Gráficas Izarra. - Polígono 36. Usúrbil (Guipúzcoa)

GALIZIAKO IHARDUNALDIETAN KOMUNIKABIDEEI BURUZ ANDU LERTXUNDIK AURKEZTU ZUEN TXOSTENA

Euskararen batasunaren lan sakonenak eta eztabaida tirabiratsuenak geureganatu genituenean, orduko idazle asko eta asko zinezale ginen, orduko idazle guztion etxeetan telebista afaritaratua genuen.

Baina gutariko inork pentsa zezakeen zine eta telebista erdaldun eta kolonizatu haiek betirako ez genituenik; garai haietako eztabaidetan ez da ikus-entzungailuen aipamen bakar bat egiten.

Guttenberg-en garaian bizi ginen, horrek ekarriko zion, antza, etorkizuna, indarra edo dotorezia zatitua genuen euskarari. Horretarako, hitz magikoa edukiz bete behar genuen: batasuna.

Horrela, aldizkari, testuliburu, olerki, nobela... dena arroxa koloreko ornigarriz jantzi genuen. «Kanpora» kanpora bota eta «at» hartu genuen, «ostera» baztertu genuen, «izanen», «egonen» eta «sufrituren» etengabeez bete genituen geure testuak...

Arroxa koloreko ornigarria kursi eta démodé ere bihurtu zitzaigun zenbaitetan, arroxa koloreko ornigarriaren izenean hankasartze bat baino gehiago izan genuen, baina eginak aztertzeko garaian fruizioz, banitatez irekitzen genituen gure testutako orrialde horixkatuak: *lortu dugu!* deihadar egingo genizun kabernikolatzat jotzen genituen geure etsaien aurka.

Geure euskararekiko militantziak ez zigun, ordea (eta eskerrak), zinera edo antzerkira joatea galerazten. Zine-kluberen bateko bazkide ere baginen gehienok. Ezagutu ere ezagutu genuen bere look-ari Humphrey Bogart-en itxura eman nahi izan zion idazlerik (bidenabar esateko, patetikoa, adizu).

Baina mundu hark ez zuen geurekin zer ikusirik, inbiria, sekulako inbiria sortarazten zigula ezik.

Katakunbetatik burua agertu samartzen hasi ginenean, McLuhan-en premonizioek ez zutela gurekin ezkonbiderik eta optimismo iraultzaileenez ekin genion etxean telebista genuela kontutan ez hartzeari.

Jokabidea politikari berriek indartu zigutelarik: laster izan genezakeen geure-geurea (kaikua eta txistua bezala) litekeen telebista bat etxean.

Hamaika ikusteko jaioak gaituk esan geure buruei, eta telebistari begira hasi ginen. Amonak errita egin zigun espainolera aldatzeko eskatuz ez zuela eta tutik ere ulertzen, telefilmeko marikak harrijasotzaile baten doinuaz hitzegiten zigun, ergatiboaren edo ere-ren erabilkera genituen teleberrietako berririk nagusienak.

Erdaraz eginiko euskal zine deituaren bikoizketak ere hor genituen, gehienetan errespeto gutxiz eginak Eusko Jaurlaritzaren baldintza nola hala bete behar zutela eta.

Baina euskaldungoa, batasun santu haren lantegia bere bizkar hartu zuen euskaldungo hura noraezean bezala geratu zen fenomeno berriaren aurrean. Akatsak, erruak, hankasartzeak eta gehigikeriak ikusteko gai zen, oso kritikoa izan bait da beti gure ditxosozko euskaldungoa. Baina apenas zekien norabiderik markatzen. Bazekien bide txarra salatzen, ez hainbeste ona aldarrikatzen.

Fenomenoa ulertzeko, gertatzen zen bestalakorik ere; Euskal Telebista martxan jarri zutenek ez zuten euskaldungo horrekin gehiegi hitz egin. Ez zen harremanik suertatu. Imajinaren munduak hitza ere hor zuela —batzutan sostengu, beste-

tan ornigarri— kontutan hartu gabe, teknikoak indartu ziren edo nahi izan ziren, ez hala Telebistak jaiotzez bete nahi zuena: euskararen zabalkunderako tresna egoki bilakatzea. Oraintsu irakurria dugu Euskal Telebistako Zuzendariagandik gure Telebistak duen arazorik larriena gidoilarien falta dela. Jakin nahi genuke hementxe bildurik dauden zein euskal idazlerekin kontatu duen Euskal Telebistak horrelakoak lasai potto botatzeko.

Fenomenoa gure gaindi, fenomenoak gu bazterturik, halako hausdura nabarmentzen da gaur egun aipaturiko bi gizataldeen artean.

Hala ere, idazleok ordezkatzen dugun taldeak pentsatzen dituelarik zenbait gauza. Guk apuntatu besterik ez ditugu egingo nagusienak deritzaizkigunak.

— Naturaltasun falta: Hizkera bat inork berea jotzen ez duenean sartzen den arazo larri horren arrazoiak bat baino gehiago dira; nagusienak aipatuko ditugu:

1. — Hizlariaren ahulezia: Euskara behar bezala menderatu ez eta haren hizketaldia, erosotasun ezaz, jasangaitz bilakatzen denean.
2. — Hizkeraren erabilkera maila: baliapide, jiro, hitano eta antzekorik ez erabiltzeak dakarren ahulezia hau da, agian konponerrazena, baina horretarako borondatea behar da. Paperaz ahaztu eta darabilgun euskara ez dela irakurtzeko, entzuteko baino ohartzea.
3. — Euskara bera trakets erabiltzea.

Naturaltasun falta-honetan aipatzekoak dira, noski, euskara berak dituen arazo koiunturalak: zenbait gaiekiko ohitura faltak sortarazten duen egiantzatsun edo berosimilitatea aipatuko nuke nagusiki. *Mister, caballero, señor, amo,* eta batek daki beste zenbait antzeko itzultzeko garaian *Jauna* esatera jotzeak dakarren arriskua bizia da. Horretan, ausardia gehiago behar genukeela deritzat.

— Ahoskera arazoak: Hizlariak bere ahoskera propioa mantentzen duenean, denek ulertzen diote, nahiz bizkaitarrek, nahiz nafarrek. Berea ez den ahoskerara iragaten denean, guztioi suertatzen zaigu arrotz haren lana. Horregatik, geure uste apalean, askoz ere flexibilitate gehiago beharko litzateke arazo honetan.

Guzti hauen oinarrian akats haundiak baldin badaude ere, kasurik hoberenetan, beren lana duintasunez betetzen dutenengan ere halako testu idatziarekiko gehiegizko morrontza bat nabarmentzen dugu. Guttenberg-en eragina.

Eta eragin horrekin hausten ez den bitartean, idazten duenak nahiz jendaurrean mintzatu behar duenak *horrek nola entzungo ote du honako hau* pentsatzen ez duen bitartean, jai dugu. Egia da azken bi urteotan aurrerapenak nabarmendu ditugula bai Euskal Telebistan, bai antzerkigintzan. Baina ez da aski.

Hala ere, sikologian esaten dena: eredugarri denak darabilen hizkera da jendeak —edo haurrak— imitatzen duena. Baina gure eredugarriak —politikari, artista eta gainerantzekoak— erdara hutsean mintzatzen baldin bazaizkigu?

Ez genuke hipokresia izugarri baten sareetan eroririk geu ere hipokresia apalago batez beste harri eusten ari garenik sinetsi nahi. Ez bait dugu literaturak edo telebistak edo auskalo zerk euskara salbatuko duenik sinesten, herri osoaren borondate benetakoak baino.

Eta borondate horretarako ez dira aski alternatibetan eta talde politikoen programetan euskararen aipamenak. Euskal telebista, edo euskal zinea edo euskal antzerkia euskara estorbu dutenen lasaigarri bilaka ez dadin. Euskara ahotan gehien erabiltzen dutenak ikusi eta irakurri bait ditugu beren arerio politikoen gauzak arerioenak zirelako euskaraz argitaratzen!

Anjel Lertxundi

GALIZIA, KATALUNIA ETA EUSKALDUN IDAZLEEN III. BILERA ONDOKO ERABAKIAK

Idazle Kataluniar, Galiziar eta Euskaldunen arteko Ihardunaldi hauek ez dira kapritxoz egin. Aitzitik, aurreko urteetan Euskal Herri eta Kataluniako topaketetan erabakitakoari jarraiki geuren hizkuntzen eta geure literaturen arazoei erantzuna ematearren dira antolatuak, hirurak, zein bere lurraldean, gaztelerazko mende daudenez gero amankomunean dituzten oztopo eta zailtasun aurrean azterketa gaurkotuak egiteko.

Beraz, Ihardunaldi hauek, geure kulturaren eta geure hizkuntzen normalizazioaren bidean aurrerapauso garrantzitsu bat suertatu dira, normalizazio kultural, soziala eta politika lortzeko borrokan desberdintasun eta ñabarduraz at, guztiak bat datozenez gero. Geure borroka hontatik biziki eskertzen dugu idazle portugesen erlazio anaikorra, hala nola beren presentzia eta beren solidaridadea.

Topaketa hauen azken erabaki gisa idazleok bildurik honako hau ematen dugu aditzera:

— Salatzen dugu komunikabideen jokabidea, behin eta berriro geure hizkuntzak baztertzen edo ezertarako aintzakotzat hartzen ez dituztelako.

— Ardura eta ahalmena duten Erakundeetatik hizkuntzak normaltzeko beharrezko diren laguntzak eskatzen ditugu. Honetaz gain, komunikabide moeta bakoitzari dagokion hizkera sakonki aztertzea proposatzen dugu.

— Halaber, Autonomietako Hondasunetako dirua ez dadila joan, ez zuzenki ez zeharka, gazteleraren hegemonia hedatzen dituzten komunikabideetara.

— Eskatzen dugu, beste informazio moetekin egiten den bezala, informazio kultural duina, nazionalitate bakoitzeko ekintza kulturaleri hertsuki lotu eta gaurkotua.

— Solana Ministro jaunak ezagutzera eman duen Jabego Intelektualaren Legeari, eta profesionalek bere egunean egin zituzten eskaerei erantzunik ematen ez dienez gero, berriro geure ezetza ematen dugu. Hildo honetatik, aitortzen dugu, gure ustez, Lurralde Autonomiko bakoitzeko Parlamendua izan beharko litzatekeena arlo honetako legeak eratzeko ahalmena izan beharko lukeena. Era berean, eskatzen die beren Gobernuei eta beren Parlamenduei arazo honi buruz zerbait esan dezatela.

— Azpimarratzen dugu hiru hizkuntzetako argitalpenak urtean zehar izan duten hazkunde esanguratsua, bizitasun seinale dena, baina ahaztu gabe horrek ez duela esan nahi normaltasun mailarik lortu duenik, hainbat hesparru —halanola bibliografian eta sorkuntzazko lanetan— oraindik betetzeke daudelarik, eta kontutan izanik literatura hauen normalizazio osoa hizkuntza zapaldua izango ez denean bakarrik lortuko dela.

III. Ihardunaldi hauen ondoren honako konpromezu hauek hartzen dituzte:

1) Elkarte bakoitzak «Liburu-Lege» delakoari buruz aurre-proiektu bat eratuko du, epea lau hilabetekoa delarik. Lau hilabete buruan, amankomunean, proiektu hauekin beste bat eratuko da Parlamenduan aurkezteko.

2) Komisio Koordinatzaile bat sortzekoa, urte betez Idazle Kataluniarren Elkartea —4. Ihardunaldien antolatzaile denez— izango delarik.

3) BEZ dela-eta, bat datoz egiten ari diren negoziaketerekin, eta auzi honi azkar konponbide bat ematea eskatzen dute.

Baiona (Galizia) 1986ko Irailaren 28a.

HITZALDI BAT ETA BERE AURRE-HISTORIA

Federiko Krutwig Sagredo

I

HITZALDIAREN AURRE-HISTORIA

Hemen orain argitaratzen den hitzaldi hau, lehen aldiz publikoaren begietarat euskaraz ethorten da. Orain dano haren publikatzea' ba zirudien maradikazione baten azpian zegoela, nahiz eta euskaraz argitaratzen diren izkribuak' nehork ere irakur ez litzan.

Hitzaldi hau' Aita Villasante Kortabitarte Euskalzaindian sartu zenean antolatu caeremonian neuk eman nuen, eta nitzat hondikozkoa izan zedin. Ba nekien hitzaldi hau eman beharrean nengoela, zeren eta orduan euskara eta Euskalherria zegoen egokeratik atheratzekotz esfortzu batzu egin behar bait ziren. Eta nola hitzaldi hau emanez geroz España delako Statutik atheratzea zaila izan zitekela pentsatzen bait nuen, halatan Guatemalan *Euzko Gogoa* revistaren zuzendaria zen Zaitegitar Jokin aphez jaunari exemplare bat' nire hitzaldia ahoskatu baino lehen' postaz igorri neraukon, zeren eta pentsatzen bait nuen, niri ezer gertha ba zekidan behintzat hitzaldia publikatzekoa zela. Bainan trompatu nintzen, zeren eta Zaitegik publikatu ez bait zuen. Berhain Zaitegi jauna oso euskalzalea zen, hoinbertze non revista horren publikatzekotz bere fortuna eman bait zuen. Hilebethe batzu pasatuz geroz Biarritzen Zaitegi jauna personalki ezagutu ukhan nuen, eta

galde egin neraukon eia nire hitzaldia hartu zuen, eta zergatik publikatu ez zuen. Zaitegik' nere hitzaldiaren kopia neuk igorria hartu ez zuela erantzun zerautan. Neu harrituta geratu nintzen, bainan bere hitzen veritatean ez nuen dudatu, berhain geroz ikasi behar nuenez, orduan' hoin euskalzale zen aphez horrek' gezurra erran zerautan, zeren eta Zaitegi hilaz geroz' bere paperetan nire hitzaldiaren kopi neuk igorria bai ba zegoen.

Hunela hoin euskalzale handi zen persona horrek bere euskalzaletasunean ere' bere limiteak zituela ikhusi behar nuen... zeren eta nire hitzaldi hortan soilik gauza bat eskatzen bait neraukon Elizari, eta hau Elizak ere bere beharkizun morala ta ethikoa bethe zezala bait zen. Beraz Eliza, nahiz eta errorean edo ta bekhatuan dagoenagatik ere, ezin-ikutuzkoa da edozein aphezentzat.

Bainan hau ez zen guztia hitzaldi hunen publikazionearen histori tristean... Hitzaldi hau zelata atzeherrira joan behar nuen, eta Laburdin Augustin Zumalabe ezagutu nuen. Hau ere' oso aberzalea zen, eta nire hitzaldi hunen tiraie stensilatu bat egin nahi zuen... bainan, hunen egiteko zedukan makhina khendu zeraukoten, eta dirudienez makhinaren embargoarekin nire hitzaldi hunen neuk nedukan kopi bakharra joan zen.

Berhain hitzaldi hunen neuk eginikako gaztelaniazko itzulpen bat ba nedukan, eta hau 1963/n VASCONIA izeneko nire lana publikatu nuenean' dokumentoetan sar nezakeen, eta han dago 518/526 arithmoetako plaumetan argitaratua.

Orain euskaraz ere' argitaratuko dela uste dut, zeren eta bizkitartean nire hitzaldi hunen euskarazko kopiak ageri bait dira.

Hau da beraz argitaralpenen oztopoen histori laburra; bainan hitzaldi hunen ondorioak, ez ziren neuk jasanak bakharrik hitzaldi hunen inguruetan, zeren ba dagotza bertze peripeteia batzu ere. Hitzaldi hunen aurre-historia' Villasante fraidearen Euskalzaindian sartzea zen, eta euskararen bizia berphizteko proiektu bat ere bai.

Euskalzaindiaren historia aztertzen ba dugu, hitzaldi hau limite-harri bat zen, zeren eta haren aurrean egon ginenok' zentzu batetan euskalzain-zaharrak gara, eta geroagoz ethorri direnak euskalzain-berriak, euskararen praktikêan' euskaldunzahar eta euskaldunberriak dagozen bezala. Haren aurrean' Azkuekin lan egin genuenok gagotza, haren ostean dathortzanek Azkue jauna soilik referentzietatik eta referentzien bidez ezagutzen dute, eta hunelakoak dira orain Euskalzaindiberrian dagozen gehienak.

Azkue jauna hilabethe batzu hilaz geroz, edo ta hil baino lehen Bilbon *Bilboko Athêneu Berria* izeneko kultur-elkharte sortzen ari ginen. Hau zelata' neuk' Athêneu hunen barruan bertze personekin *Julio de Urkijo Kultur ikhertzapanen Institutua* organizatu nuen. Institutu huntan ba zegoen erdarazko saila batzu, bainan orduan neuk' *Euskal Philologiaren* Saila batetan pentsatu nuen, eta hunen egiteko orduan Bilbon zegozen euskalzale ezagutuenak bildu nituen, hauietan orduan' Arrutzatar Mikel, Bernardo Garro eta bertze batzu zegozen. Dudarik gabe' nahiz eta neu bethi pagano bat izan nintzen ere, nehoiz ere ez naiz antiklerikal bat izan, eta hunela Saila huntara' aphez edo ta fraide batzu invitatu nituen. Huntara Lino Akesolo eta bi frantziskotar ethorten ziren, hauk Aita Villasante eta Aita Berriatua izanki.

Julio de Urkijo Institutuak, ba du ukhan euskararen historian importantzia bat, zeren-eta Instituto huntan gure herriaren histori osoan lehen aldiz gerthatu bait zen, ezen euskara ez soilik hizkuntza offizial bezala onhartu genuela bainan huntaz gainera, neuk proposatua' trabailu-hizkuntza bezala ere erabil nahi genuela onhartu bait genuen. Philologi saila huntan, lehen egunetan danik neuk proposamendu bat egin nerauen, erraiten nerauela ezen: «*orain arte Euskal Philologiaren bilkura eta sozietate guztietan euskara traktatu nahi zutela erran zutenean, bethi euskara' laboratorium-objektua bezala traktatzen zuten, hau da, euskarari buruz erdaraz mintzo izaiten ohi bait ziren, geuk hemen* —erran nerauen— *gauzak bertze modutara eginen ditugu, Philologi saila huntan nahi duzuen gauza traktatuko dugu, bainan bethi euskaraz, gure hizkuntza*

trabailu-hizkuntza bezala emplegatzeaz». Garro eta Arrutzak hau oso pozik entzun zuten, eta erran zerautatenez, hunelako erabakitza, Euskalherriaren historian lehen aldiz onhartzen eta proposatzen zen. Beraz hunela hasi ginen, eta neuk aspaldidanik Azkueri' euskara berphizteko plangintza batetaz hasi ginen aintzinat joaiteko asmoaz. Huntara ere, aita Berriatua ethorten hasi zen, eta harekin aita Villasante. Mementu huntan aita Berriatua oso garbizalea zen, bainan geroz, neuk hemen publikatzen den hitzaldiaren ostean, bere aburua aldatu zuen, eta zentzu huntan' euskararen alde lan handia ta oso preziotsua egin zezaken. Aita Berriatuari esker orduan ere bertze persona batzuek euskarazko lanak eta lanttoak publikatzen hasi ziren, bainan huntara ere' orduan lan hauien publikationean' aspaldidanik zedukan bertze nahi bat egin zezaken; aita Berriatua Euskalherrian eduki ukhan dugun korrektore handiena ta onena bilhakatzeko zen; eta aita Berriatuak orduan egin zitzazken korrekturen kausaz' euskal literaturan ageri ziren lan *eder* batzu.

Dudarik gabe aita Berriatuak' euskararen problêmatikêari buruz nirekin askotan mintzatu zen. Aita Berriatuak ongi ikhusten zuen —eta hunela argi ta garbi erran zerautan— nola euskaraz ongi zekiten irazle batzu zegozen, eta aita Berriatuak nominalki Garro ta Arrutza aiphatu ukhan zerauzkitan, zeinek euskaraz on-ongi bait zekiten, bainan zeinek ere' euskaraz ezer ere iratz ez bait zezaketen, zeren eta kultura gabeko bait ziren, erraitekorik ez bait zuten. Hunela aita Berriatuak' bere aburu bat presentatu zerautan. Orduan geuk' Athêneu berri hortan antolatzen ari ginen bertze sailetako khidei proposamendu bat egitea, zeinen araura geuk *bi autoreen* lanak argitaratu nahi ukhan genitzakeen. Aita Berriatuaren pentsatzeko araura bi autore hauk, hunela legozke: bata' erdarazko textua irazten zuen erdal autorea eta bertzea' textu horren euskarazko itzultzailea. Alta neuk orduan aita Berriatuari bere plan hunen imposibilitatea jakin arazi behar neraukon, zeren eta nire aburuz plan huntan' soilik autore bat bait zegoen, eta hau erdaraz textua iratzi zuena, eta euskaraz itzultzen zuena' soilik *itzultzailea* baizik ez bait zen, eta neuk imposibilitate handi

ikhusten nuela erran neraukon, nola lan bat ongi erdaraz aphailatu zuen persona batek bere autoretasunaren erdia itzultzaile bat baizik ez zenari emaitza edo dôroa egin ziezakeon. Kausa asko zirelata, lehenik' erdaraz iratzitako lan batek ez du euskarazko itzulpen baten beharrik zabaltzekotz, zeren eta gaztelaniaz iratzita askozaz gehiago irakurten bait dira, euskaraz baino.

Aita Berriatuak ikhusten zuen problêmatikêa, ez da soilik interim agerten zaikuna, aitzitik problêma hau oso sakona da, eta euskaldunen analphabêtismoa da. Eta problêma hau ez dugu zentzaraziko orain dano bezala' euskal eskoletan eta «Unibertsitateetan» (Universitateak izan beharrean) kultur nivela oso aphala den bitartean, lerro hauk irazten dudan mementuan den bezala. Problêma hau' aita Berriatuak oso garbiro ikhusten zuen, beraz bere proposamendua utopikoa zen. Dudarik gabe ba zegoen haren atzean aphez aberzale hunen gogo handia, zeinaren arauera' euskarazko litteratura autoreen izen handiez bethe nahi bait zuen... bainan itzultzaile bat ez da autore bat, eta Justizian batbederari ethorten zaion Doxa utzi behar deraukogu, eta hunela ez dugu agitzen baldin eta euskaldun herriak, euskaraz dakienetan soilik analphabêtoak ekhoizten ba ditu. Arrutza bezala, Garro bezala ba ditugu orain ere euskaraz irazten dakitenak, baina nola heien buruan vacuum bat baizik ez bait dago, halatan *irazle bikain* haukiek produzitzen duten prosa ta poêsia spirituzko edukiaren gabeko zaborreria da. Gure aburuz, eta huntan batez ere aita Berriatua nirekin akort zegoen —euskal literaturaren hegaltada goratu behar zen, batez ere, belatz batek bezala' Ekhi-Rha ganaino euskal spiritua goiti zezantzat, bainan dirudienez' hau ez da *egiazko* euskaldunen nahia, zeren eta haukiek soilik ttonttokeriak maithe bait dituzte, eta hunen exemplua batez ere Eusko Jaurlaritzaren kultur-ekhintza gehienak, behintzat rhythmo hortan aintzinatzen direlakotz.

Nire plana euskara zegoen herstualdetik atheratzekotz, Athêneuan bezala Euskalzaindian ere 'aurreratzeko asmoaz antolatu nuen. Lehen urrhatsa izan zen Seminario de Rojas, faxista bainan erdizka euskalzale zen periodiko baten direktorea sartzea,

zeren haren bidez, edo behintzat haren itzalpean España faxista eta euskal gauzen etsai handiak gatik aphaila bait ginitiroken. Haur eginaz geroz, bigarren urrhatsa zen, Euskal Akadêmiaren berr-organizatzea, zeren eta orduan euskalzain batzu atzeherrian' bait zegozen, faxisten ordenetara heien lekhua desert deklaratu bait zen. Dirudienez Akadêmiaren berr-organizatzeko agindua Areiltza jaunak eman zeraukon Azkueri, bainan agindu hori soilik verbala izan zen, eta nehoiz ere ez zen iratzi. Orduan Azkueren konseiluaz niri Akadêmiaren birr-organizatzeko enkargua eman zerautaten. Neuk' lehen lehenik bilhatu behar nituen aspaldidanik barraiaturik zegotzan euskalzainak, zeren eta askotan bizirik ere zegotzenz ez bait genekien. Hilabethe batzu iraganaz geroz' euskalzain zahar guztiei neure planoa jakin arazi nerauen. Lehena nola Areiltzak emanikako agindua, verbala baizik ez bait zen, hura ignoratuko genuela eta euskalzain zaharren lekhua konfirmatzea, bigarrena nola Bilbon eta Donostian biltzeko diffikultateak bait geneduzkan, bi gauza egin: a) euskalzain osoen arithmoa 12-tik 18-ra goratzea, eta b) bilkurak gehienetan Donostian egitea.

Plan hunen egiteko bethi eduki ukhan nuen Azkueren sostengua, bai eta Oleaga jaunarena ere, bainan bethi bezala ba zegoen euskaldunetan pusillanimakoak, edo euskara garbiagoz: beldurtiak. Eta hauietan lehen postuan Aingeru Irigarai zegoen; zeren eta jaun hunek neu lasterregi ibiltzen nintzela pentsatzen bait zuen, eta haren aburuz behar bada astiro-astiro-astiro joaitea hobe zen, behar bada lehen urrhatsa' lehenago izan ziren Euskalzainen postuaren konfirmatzea zen, geroz ikhustea eia Ipharraldeko euskalzainak konvokatzeko arriskurik ez genuenz... eta abar... Hala ere, neuk Aingeru adiskide pusillanimakoaren konseiluak entzun gabe, gauzak bertzela egin nituen, eta egun batean' ez soilik euskalzain zaharrak ber konfirmatu genituen, baizik eta Donostian aspaldidanik ethorten eta agerten ez ziren euskalzain zahar gehienak ageri ziren, haukietan: Lhande, Bonifacio Etxegarai, Elissalt, etc. Orduan ere neuk eginikako proposamenduaren arauera persona batzu' euskalzain berriak izan zitezentzat izendaturik ziren: Lafitte, Lekuona, Saint Pierre, Lafon eta d'Assantza. Eta Euskalzain-

dia zentzu batetan hola ibiltzen hasi zen berriro. Bai eta orduan ere neuk proposatuta gure bilkuretan euskara trabailu hizkuntza bezala erabili behar genuela onhartu zuten. Hori lehenago egin ez nuen, Urkijo jauna bizirik zela, zeren eta euskalzale handi hunek' euskaraz mintzatzen ez bait zekien.

Izendapen berri hauk —exzepzione bezala— bakharrik nire firmaz egin ziren, eta ez ohidura zen bezala zeren euskalzain berri baten presentatzeko hirur euskalzain zaharren firmak behar bait ziren. Geroagoz ohidura haur berritu zen, eta orduan neuk Gorostiaga jauna euskalzaindian sar zedin nahi nuenean, bertze bi euskalzainekin firmatu nuen proposamena.

Bainan bizkitartean gure herriarentzat galtzai ezin ordeztuzkoa gerthatu zen, egun batetan Azkue jauna Bilbon' Ibaizabalera erori zenean. Egunoro bere bulegotik etxerantza joaiten zela' egun batetan Bilboko ibaiaren ur zikhinetan erori zen, eta nola stomakhoaren garbiketa berehala egin ez bait zeraukoten, bere gastêrean Bilboko uretan dagozen baktêrien eta zikhinkerien kausaz infekzione handi-handia eduki ukhan zuen, eta haren kausaz hil zen. Neuk haren laguntza ezin-bertzearekin geroagoz saiatu nintzen Azkuerekin hasi nintzen planoa aurreratzen, bainan hunela nire kollaboratore handiena galdu egin nuen. Berhain nola euskararen egokera peniblea' alde batetik attakatu behar genuela uste bait genuen, eta euskal konventuetan sostengu-punktu bat lort zitekeela uste ukhan bait genuen, halatan frantziskotarretan pentsatu ukhan nuen, zeren eta bertze erlegino-organôsietan Elizaren manamenduen kontra izan zedinarren, euskal etsaiak buruzagiago zirela euskal adiskideak baino. Huntan frantziskotarrak exzeptione bat zirela agertzen zitzaikun. Kaputxinoak jadanik ikasi genuen nolako etsaigoaz euskaldunak persekutatu zituzten, eta egikera hau' ez zen aldatu geroagoz' denpora luzean ere. Jesuitak faxismoaren sostengu importanteenak izan ziren mementu batetan, batez ere zorigoiztoko Piux XII papparen epokhêan. Ez dakit eia Papa hau deabruaren semea izan zen, bainan faxismoaren laguntzaile handienetariko bai ba zen izan, eta geroz gutzat importanteena zena' Euskalherriaren arerio amorratua. Hunela' jesuitek ere beren Pappari zor zitzaion obedientiaz

euskal interessen kontra agitzen zuten. Beraz Euskalherrian zegozen erlegino orden importanteetan bakharrik nolabaiteko maithasunaz Euskalherria konsideratzen zuten frantziskotarrek. Eta hau batez ere agertzen zen Cantabria izeneko beren provincian aita Lete aita provintziala izeneztatu zutenean. Persona hau spiritu zabaleko aphez bat zen, eta konturatu zen Euskalherrian nolako spiritu-hertskeria zegoen. Huntara hasi zen fraide batzu atzeherrira bidaltzen' munduan, Españiaz bertzalde' bertze lekhuak ere zegozela ikhus zezaten... Eta dudarik gabe aita Lete Euskalherriaz areago ere konturatu zen. Beraz aita Berriatua euskalzaletasunarentzat ba zegoen bide bat zabalik. Bide huntan gainti ere aita Villasante hasi zen.

Hauietariko bata lehen mementuan Euskalzaindian sartzeko zen, eta neuk galde egin nerauen heien aburuz zein, eta nola antola genezaken. Aita Villasante huntara bilhakatu zen frantziskotarren munduan bretxa izan ziteken personaiea. Ba zen huntaz gaineria Berriatua bezain sutsua, eta irazten gerthuago. Orduan neuk Euskalzaindian aita Villasanteren kandidatura proposatu nuen, eta onhartu izan zen.

Stratêgi huntan, baldin eta aita Villasante literatur euskarari buruz mintzatzeko bait zen, neuk hitz eginen nukeen euskararen egokeraz komentuetan...

Aita Villasante orduan Literatur laburdararen alde zegoen, eta hegaltada handiko euskara batetaz pentsatzen zuen...

Eguna ethorri zenean, Bizkaiko Diputationean aita Villasantek bere hitzaldi luzea irakurri zuen, eta niri ethorri zitzaitan erantzuna. Hauxe bait zen, orain lehen aldiz eta urtherik asko iraganaz geroz hemen publikatzekoa dena.

Neu' hitzaldi nerearen kausaz akkusatu ninduten, eta Españako Gubernuak erraiten zuenez saiatu nintzen aberzalego itzalia berphizten. Dudarik gabe ba zegoen hunelakorik, eta zentzu huntan ere gure stratêgia zebilen, bainan geuk berphiztu nahi genuen, aberzalegoaren spiritua ba zen ere, spiritu hau bertze konponenteez sortzekoa Psykhê zabalagoaz zen, orduan dano murru-txorien hegaltadaz mugitzen zen kulturaren orde,

geuk belatz baten hegaltadaz mugituko zatekeen kultura bat nahi genuelakotz. Bizkaiko Diputationean hitzaldiak emaiten ziren aretoan, eta gure mahain-buruan Hilario Bilbao zegoen. Persona hau Euskal kausaren etsairik handienetarikoa zen. Nire hitzaldia ongi ez zuen hulertu, bainan, nola neuk hitzaldia hamaituaz geroz publikoaren aldetik applausu handiak eduki ukhan bait nituen, nire hitzaldiaren textua eskatu zerautan, eta orduan Bilbon zegoen gauleiterari eman zeraukon judda ninzatentzat. Neuk ihes egin behar nuen, eta hunela neure Odyssea hasi zen. Zoritzarrez neuk' belatzak bezala hegal eginen zuketen pentsatzen nituen personaieak ez ziren balatzak, bainan lehen bezala *murru-txoriak*. Hunela nolabait Euskalzaindiaren epokhê heroikoa hamaitzen zen. Geroagaz ethorri zaiku «euskalzainberrien» epokhêa.

* * *

Orain urtheak iragan dira, Euskalzaindia ere aldatu da, zentzu askotan katabeblêkatua ta anestrophatua da, orduan nire etxerat ethorten ohi zen aphez sutsua zen aita Berriatua hil da; eta hil da nahi zuen hirian, hau da: Irusalimuan. Eta hiri hunen izena hunela bere forma xumerkarazkoaz iratzi nahi dut eta ez garaikaraz edo latinez, zeren hiri hunen izen jathorrizkoa xumerkarazkoa den. Aita Berriatuak euskararen alde lan handi-handi egin zuen. Askotan Israëlen egon zedin, hor hebraikara nola berphiztu zuten ikastekotz. Eta behar bada mirakuilu hori Euskalherrian ezin-eginezkoa zela ikhusiaz hor hil nahi ukhan du, oso katholikoa bait zen huntaz gainera Jesu-Khristós ibili zen lekhuetan ibilten, eta bere spiritua hor ere egon ledin. Huntara neuk ere, euskal ethorkizunari buruzko paratêrêsi batzu egin behar dituzket. Gure plangintza guk hoinbertze desinteresseaz aurrera eramaiten saiatu genuena, debaldeko zen-a? Baietz lirudike orain ikhusten dugun egokeraz. Guk egin genuen lanaren atzetik ethorri dira euskal parasitoak, euskararen bizitoreak, eta batez ere horizonte hersiko personaieak. Euskalzaindiaren horizontea ere herstu da, eta euskara berriro gehienetan laboratorium-objektu bat baizik ez bai lizen bezala traktatzen da. Huntara Israëlen ger-

thatu zen mirakuilu Euskalherrian bir-gerthatuko ez dela erran dirokegu. Euskal Jaurlaritzan dirua bakharrik dadukate «hiztegigintza» eta hunelako laboratorium-lanak bultzatzekotz, zeren eta ingienadore spirituaz soilik paper-toneladak eman ditzaketen ekhintzak juddatzen bait dakite. Xifra exaktuak dira ingienador batentzat kontatzen dena; Psykhê bat zer den ezin enthelega dezaken buru ahul batentzat bertze materiarik ez bait dago...

Euskaldunak ere' spiritu ttipiko herri bat baizik ez da, euskaldunak CroMagnon gizonak dira, eta munduan geroagoz gerthatu diren kultur-emaile eta kultur-kreatzaile izan diren mutationean parthe hartu ez dutela argi ta garbi agerten zaiku. Beraz geu mementu batetan idealista baizik izan ez ginen, zeren eta euskal herri ez bait da guk nahi genuen bezala, baizik eta den bezala, hau da, herri materalista bat, izpirituaren gabe; Euskaldunentzat oso garesti bait da 2000 pezeta liburu batetan emplegatzea, bainan oso merkhe bait da 4000 pezeta frankatxela batetan xahutzea. Hunelako herri bat' berez bere inkulturan eta arstokerian kondemnatuta dago: hunetara ere euskara atzera ta gibela dioa, eta geroago eta are gehiago zakhurrekin mintzatzeko hizkuntza bilhakatzen ari da, eta zakhurrekin mintzatzeko' nahiko da 100 kommando-hitz jakitea, zakhurraren burufuinaren izaritara. Euskal Cro Magnonek soilik maithe dute zakhurrekin mintzatzeko goieran egiten den literatura, eta hunela sorthu dira «idazle bikainak», zeinen lanak euskaldun gehienen stupiditatearen neurrian iratzita bait dagotza. Hunelako infrarrobotikoen literatura *iaka-arsto'lhetan* irakurten da, zeren eta hor *olha* hauietan aphailatzen dena' *arstoak* baizik ez bait dira, egunoro arsto bat bezala *ia-iaka* ari diren alogoak.

Epokhê batetan pentsatzen bait nuen ezen Jainkoak euskaldunen ere hizkuntza bere Mendekosteko mirakuiluan sartua zuela... bainan baldin Jainkoak sartu ba du, euskaldunek hortik khendu dute, eta jadanik Euskalzaindian bezala... hizkuntza hila bai lizen trakatatzen da... hiztegiak eta hiztegiak, grammatikêak eta grammatikêak, bethi lanhabesak, bainan lanhabes hauietaz euskal irazleek ez dakite zer egin.

II

HITZALDIAREN TEXTUA

Iauna:

Bietan pozgarri izaiten zait zuri abegiaren emaitea, lehenik euskalzale suhar eta adiskidea bait zara, bigarrenik zure personan prantzikotarrei sari bat eman dakien, Euskalherriaren gau ilhun hauietan, euskararen garra behar zen bezala izanezarren, berhain, Euskalherrian ari diren erlegino-ordinetan' zuok euskararen eskubideak hobekienik zaindu dituen batzarretan egonik bait zarete.

Litteratur euskarari buruz hoin ederki ta argiro expossatu duzunari zerbaiten gehitzea' lan gaitza edo ta ezina bait lizateke, ezer eratxikiren ez deraukot. Zure iaulkitzea entzunaz geroz' gure problêma hunen argia hunetara beretzako ez dezakenak' gaizki bertze bideetan gainti gure herriaren problêma ikhusiren luke. Zuk erran duzunez gero herriaren problêma haur gogoaren amplitudinez ephaikatu behar dugu, gure hizkalkiez eta haranez harantza behatu, euskaldun guztiok' herri bat garela ikhusi, eta gu bezainbertzeko euskaldun' laphurtarrak, nafarrak eta zuberotarrak direla gogoratu behar dugu, eta agian gu baino are euskaldunago. Gipuzkararen soluzinoa' herstua da, soilik Bizkaia eta Gipuzkoa aintzat hartzen bait ditu, problêma hauien ephaikatzekotz' gure herriaren osotarzuna bururatu behar dugu eta guztiontzat soluzino onhesgarria eman. Geuk hizkalkiak bizirik iraun-arazi nahi ditugu, nungoak garen erakhustea laidorik ez bait da. Hizkalki hauien atxikidura izan dadin litteratur-euskara eduki behar dugu, hunen erroak gure hizkalki guztiak direlarik. Batez ere orain gure hizkalkiak bizi ditezen euskaldun kultur-symbolo bat eduki behar dugula agerten zaikuta.

Bai, euskara bizi dadin, eredu litterari bat ukhan behar dugu eta litteratur euskara huntan' kultur bat iaio arazi, euskara ere' kulturaren, edukazinoaren eta hazturaren symboloa lizen. Bainan hunen egitekotz orain euskaldun ephelen zalantza sumatzen dut, behar bada hekiek hunela galde eginen deraukute: euskara bizi dadin, zergaitik nahi duzue? Ez othe zegoen zuzen Unamuno, euskara utzi behar zela erraiten zuelarik, edo ta gure herriaren konszientza galdu duten baserritarrak eta kaletarrak erdalduntzatzen direlarik?

Huni aitzi iaiki behar dugu, ez nehola ere ez, herri baten altxor nabusienak eta bere thêsauro handienak, bere hizkuntza ta bere gogoa bait dira.

Hizkuntzan' zein ere herrik bere gogoaren expressinoa moldatu du, arbasoen hizkuntzan sentimendu sakonenen bidea dago. Herri bat desnazionalizatzen den guztietan herrikideek persontasun humanuaren duintarzuna galtzen dute. Barrés Muricek dioenez: «*Que détruire à l'école la langue nationale, c'est bel et bien détruire des intelligences, créer des estropiés pour la vie, abêtir una population*» (1). Huntaz gainera desnazionalizatzearen bidez' familia aphurtzen da, hausten da, eta bere egin beharraren ongi bethetzekotz' *bata* izan behar luken sendiari eginkizuna ezina bilhakatzen zaio. Hunela herri bat desnazionaliza dadin guztietan' familiaren ethoari aitzi ekhiten da, eta gizartearen moralitatea beheititzen. Grentrup Theodor Doktorak' «Religion und Muttersprache» (2) izeneko liburuan hunela diosku: (3) «*Iaretsi desnazionalizazinoa' familiaren xehakatze spiritualea da, bere helburuak eta egin-beharren bethetzekotz, batez ere xede ethikoen iarestekotz natur-legearen araura bata izan behar duen gizarteko organismo baten ebakitzea da...*» «*Bortxa politiko batek egin desnazionalizazinoa' nahiaren-kontra egin ebaste spiritualea da*» (4). Eta geroz (5). «*Familiaren xedeari buruz' edozein desnazionalizatze tzar-tzarra da*»... (6) Humeei arbasoen hizkuntza ez den mintzoara xerthatzen zaienean' gurasoen authoritaten hausten da, familiaren Ethoa desegiten da, eta inmoralitatea fomentatzen. Makabäus psendonymodun silezkar aphez batek' hunela izkiriatzen du: ...«*desnazionalitzaileek nahi-eta-ez humea gan' ar-*

basoen hizkuntza baliogabeko edo tzarra, gaitza ta arbuiagarria delako aurrephaia iratzarten dute, bai eta hargatik gurasoak gandik ethorri iakintza ezertara ez dela. Hunen bidez ephairik gabe eta zorhitzeke dagoen humea gan' gurasoen authoritatea izugarriro beheititzen dela guztiz argiro agerten da; eta humeak hazteko eskubide ta beharrespen nagusiena ditutenei haren eginkizuna ta zaintzea zail, edo ezinak bilhakatzen zaizte. Batzuetan humeek eta gurasoek elkharri huler ez diezakeote, hoin handia birrikitua bilhakatzen bait da. Humeak familiaren sentimendua galtzen du, gurasoen etxea maithatzen ez du, kanpora ioan nahiago ukhaiten du, eta han anhitzetan bere herriaz edozein atxikidura ethenten du» (7) Grentrup doktorak hunela diosku (8). *«Jede Entnazionalisierung durch die Schule ist mit Rücksicht auf die ethischen Augfaben der Familie vom übel». «Eskolaren bidez egin edozein desnazionalizatze familiaren egin-behar ethnikoei buruz tzarra da».*

Halakotz, eta Elizaren lehen egin beharra familiaren Moralearen, eta Ethikaren zeintzea bait da, edonun Elizak arbasoen hizkuntzak eta heietazko irakaskintza zeintzen eta aldezten ditu, orain Euskalherrian hunela irudiezarren. Grentrup doktorak non eta noiz desnazionalizatzen den iakin-araztekotz, galde huni buruz hunela erantzuten derauku: (9) *«Bei welchem Schultyp tritt in einzelnen die Tatsache der Entnazionalisierung hervor?»* (10). Euskaraz: *«Eskolaren typoetarik zeintzuetan desnazionalizazinoaren egia nabaritzen da?»*. Eta bere erantzuna' haur da: (11) *«Dudarik gabe herri baten arbasoen hizkuntza irakaskintzaren programmatik khendu 'den guztietan»*. Bigarrenik haur dio: *«Geroagoz, desnazionalizazinoaren zerbitzuan ere ba dagoz arbasoen hizkuntza soilik «ikasteko» objektua bai lizen irakasten den guztietan»*. Eta azkenik hunela diosku: *«soilik grammatikê ta erleginoa arbasoen hizkuntzaz irakasten den guztietan ere' eskola desnazionalizatzearen zerbitzuan dago»*. Eta Euskalherrian nola gagoz?

Euskal-grammatikêa irakasten hal da? Erleginoa ta katixima euskaraz irakasten hal dira? Zuok frantziskotarrok euskararen klassiak eta kursuak dituzuela ba dakit, bainan euskara ez othe da zuetan ere ikas-objektua, ala irakas-bidea?

Grentrup doktorak desnazionalizazinoaren bideak hunela kontatzen ditu: «*Gazteriaren desnazionalizatzeko methodoa edonun berdina den skhêma batetaz euts dezakegu. Herriaren arbasoen hizkuntzaren kontra doazen statu-auktoritateak' kindergärten hauk dira haurrentzako baratzen kreatzeaz hasten dira eta humeak hauietarat ioan-arazten dira. Pentsamendura ta adimenera ia atzarri ez diren haurrei' beren familietan mintzatzen ez den hizkuntza xerthatzen zaie. Beren arbasoen hizkuntzan lasaitu ta indartu den gisa gazte bati' bigarren hizkuntza bat emaiten deraukogunean bere spirituarentzako bide berria, ta geroagoko ekhintzaren possibilitatea emaiten derauzkiogu. Nehor ez da spiritu-possibilitate hunen egozteko bezain ergel. Bainan desnazionalizazinoaren zerbitzuan dagozen kindergartenetan gauzak bertzela dagotza. Arbasoen hizkuntzaren lantzean ezein interesserik ez duen Statu desnazionalizatzaileak' bertzelako hizkuntza duen talde nazionaleari hizkuntzaren plus bat eman nahi ez derauko, hizkuntzazko quid pro quo bat baizik. Hume hauien arbasoen hizkuntzak' erroak har ditzan eta zorhi ditezen baino lehen' ethorri nahi luke hizkuntza offizialeak, hizkuntzazko alhor huntan erein nahi luke, hizkuntza offizialearen zuhaitzak arbasoen hizkuntzaren altxumak itzalpetu behar bait lituzke. Eskoletan Statu desnazionalizatzaileak era berdinean ekhiten du, bere ari izaitea indartsuago ta systêmatikoago eta bere abiadura garratzagoa ta arhinagoa izan dadin...*» (12).

Hunela Grentrup doktorak diosku eta bere elheez zerbait gehiago iarraikiren gara: «*Eskola-errient lehiastsuek gurasoen etxeko hizkuntza muxikatzen dute eta Statu-hizkuntzaren eretzean valore guttikoa dela diote... Minoritatearen arbasoenhizkuntza' atzeratua dela iakin-arazteak' batzuetan hazten den gazteria beren gurasoen etxeko hizkuntzaz ahalke dadin arazten du*» (13).

Grentrup doktorak Maddar-herriko egokerari buruz mintzatzen zen bainan ba dio erran ere: «*Hunelako egokera ez da maddar 'spezialitaterik edonun desnazionalizazinoaren systêmari datxeko*» (14). Bai hunelako egokerak Euskalherrian ere ikhus ditirogu. Eskolaren bidez erdalduntzen deraukuten

gazteria' karrikan erdaraz mintzo bait da, euskara ezertarako gauza ez bait lizen, moldegaitza edo dorphea. Haur da erdal eskolen burhoa!

Edonun erdalduntzen bethi moralearen kontrakoa izan bait da, herri baten erdalduntzea' iura naturalearen kontra bait d eta edozein herrik bere hizkuntza irakats ta ikasteko eskubiden naturalen bait du, Elizak herrien eskubide naturale hauk zaindu ukhan ditu. Halakotz ongi legoke hemen Elizaren Hierarkhiak huni buruz agintzen duena aiphatzea, gure herriko aphezek iakin dezaten eta beren lazukeriaz, beren zabarkeriaz euskaraz irakatsi behar den guztietan erdaraz irakasten baldin ba dute iura naturalearen kontra eta haren Iainkoaren aitzinean bekhatu egiten dutela iakin dezaten. Evangelietan hunela erraiten da:

πορευθέντες οὖν μαθητεύσατε πάντα τά ἔθνη.

(15) *Zoazte bada eta irakats itzazue iende guztiak*», bai eta

καὶ κηρυχθῆναι ἐπὶ τῷ ὀνόματι αὐτοῦ μετάνοιαν εἰς ἄφεσιν ἁμαρτιῶν εἰς πάντα τὰ ἔθνη.

(16) «*Eta predika ledin haren izenean penitentzia eta bekhatuen barkhamendua nazione guztietan*». Hemen garaikaraz *ethnos* erraiten da, eta euskaldunak ere' ethnos bat ba dira. Geroz Elizak (17) Mendekosteko egunean hizkuntzen mirakuilua ibenten du. Orain Euskalherrian ikhus dezakegunetik apostoloak gana hizkuntza guztiak iats zitezkeen, berhein exzepzino bat bide zegoan' euskarazko mihia iatsi ez bait zen. Hunela behintzat Euskalherriko aphezik askok iakin-arazi nahi derauku eta euskaraz hemengo seminarioetan erakasten ez duen Hierarkhiek ere bai.

Elizaren Hierarkhiak' Euskalherriaz bertzalde hunela ekhin du: Polonian' Prussia ta Errusiaren menpean zathiturik zagoenean' Poloniko aphezpikuek erlegino ta katixima arbasoen hizkuntzaz irakatsi behar zirela erabaki zuten. Nieborowskik hunela zioen: «*Religion und Sprache sind die grószten Heiligtümer eines Volkes, auf ihnen beruht die ganze Sprach- und Denk-*

weise = Erleginoa ta hizkuntza herri baten sanktuari nagosienak dira, hauietan ennoetzeko ta mintzatzeko eredu osoa basiturik bait dago». Halakotz Elizak' Erroman behintzat, Euskalherrian huntaz kontrakoa denagatik ere' hauxe dio (18) «*Quoniam in plerisque partibus intra eamdem civitatem atque diocesim permixti sunt populi diversarum linguarum habentes sub una fide varios ritus et mores, districte praecipimus ut Pontifices huiusmodi civitatum sive dioecesim provideant viros idoneos (diversitatem) qui secundum rituum et linguarum divina officia illis celebrent et ecclesiastica sacramenta ministrent, instruendo eos verbo parirer et exemplo...*». Bai eta Tridenten ere hunela: (19) «*...necnon ut inter missarum solemnia, aut divinorum celebrationem, sacra eloquia, et salutis monita eadem vernacula lingua singulis diebus Festis, vel solemnibus, explanent: eademque in omnium cordibus, postpositis innutilibus quaestionibus, inserere, atque, eos in lege Domini erudire studeant*». Bai eta Hispanoamerikan: «*Ita quisque instruendus est ut intelligat, Hispanus hispanice, Indus indice*» Mexikoko synodo batetan erraiten da. Hunen araura euskaldunei' *euskaraz* irakatsi behar zekiela dirudi.

III Paulok 1554garren Urtheko Urtharrilaren 8garrenean Tarragonako Kathedraleko kapituluari igorri guthun batetan Vicariat eta offizialat arrotzei eman ez dietzaiela onesten du eta 1591 garreneko urthean Tarragonan izan Konzili provintzailean «*diligenter doceant non alia lingua quam in principatu Cataloniae lingua cathalana*» erraiten da.

Prussiko Statuak' Poznan eta Prussiko Polskan minoritateak alemanizatu, erdaldundu nahi zituenean' Elizaren aldetik Gnieznoko arthapezpikuak, Ledóchowski konteak, kultur-liskar huntan, huneek' erleginoa arbasoen hizkuntzaz ikasi behar zutela arabaki zuen. Orduan Polonian ere, orain bertze lekhuetan bezala' Prussiko Gobernamenduak' humeek hizkuntza offizialeaz ba zekitela zioen, eta hortarakotz alemanaraz ere' erleginoa irakats ziezakeietela. Bainan Polonian' herriaren interesseak zaintzen zituen egiazko Hierarkhia zegoen, ez herriaren etsaiek ezarri Hierarkhi aizuna. Eta Gnieznoko arthaphezpikuak Statuaren zuzentarzunaren gabeko agintzei aitzi' erle-

ginoa arbasoen hizkuntzaz irakatsi behar zela erabaki zuen. IX Pius Pappak 1873ko Aphailaren 24-garrenean igorri brevean arthaphezpikuaren kondukta neurrigabekiro laudatu zuen. Pappa hunek ez luke hunela laudatu, orain bertze lurralde batetan herriaren spiritu-interessen kontra natio bat erdelduntzen ari den Elizaren Hierarkhia. Praezedent hauk ikhusten ditugunean' euskaldunok gure buruari galde egiten deraukogu ei Elizaren prinzipiak ordudanik aldatu diren, ala Polonian zuzen zena' Euskalherrian okher dagoken, edo Erroman' zuria dena' Euskalherrian' beltza dateken; eta galde hauk Hierarkhiari ere egiten derauzkiogu. Orduan Ledóchowski arthaphezpikuak arbasoen hizkuntzaz erleginoa irakatsi nahi ez zutenak diruaz zentzarazi zituen.

Aphez batzuek Euskalherrian' erdaraz errezago dela ba hal dioite? Noren erraztasuna? Aphezen zabarkeria? Artzain tzarren lazukeria noiz danik aintzat hartu behar da? Bi hizkuntza erabiltzen diren herrietan zergait ez zaio batberari bere arbasoen hizkuntzan predikatzen? Bertze eskualdeetan bezala Euskaldunek erdaraz hulertzen dutela ba hal dioite? Ez da haur zio iusturik; haur bakharrik aphezen nagikeriaren desenkusatzea da. Guztiei beren hizkuntza vernakulaz predikatu behar zaie, bertze hizkuntzez iakinagatik. Adibidetzat *wenden* egokera aiphaturen dugu. Oraindano' Elbaren Ibarretan *wendak* izeneko herria bizi da. Wendar guztiek alemanaraz on-ongi mintzatzen dakite, berhain beren arbasoen hizkuntzaz predikatzen zaie, eta Bautzen hirian' kathedraleko parropiaren buruan wendar bat bethi dago. Hiri huntan wendarren proporzinoa soilik % 3 izanarren bethi wendarrentzat beren hizkuntzaz predikatzen da, eta hunela bethi izan dadin Bautzeneko bertze parropian ere' wenden kapera bat dago. Geroz wendarren hizkuntzaz ikastekotz eta irakastekotz Schmochtitzen 1927 garren urthean wendar seminario bat fundatu zen, bai eta horko Elizaren organôsietan wendaraz baizik hitz egiten ez da, batez ere Dresdenen 1878 danik eta Bautzenen 1902 danik «Jednota» izeneko elizaren organôsian (21).

Edo ta gurasoek erdaraz nahiago dutela erraiten deraukute? Gurasoek beren konvenzimendua iakin araztekotz behar

den askatarzuna ez dutenean ez dago hunelakorik; halakotz Poloniko egokera berriro aipha dezagun: Grentrupek hunela (22) diosku: «Gurasoek' izituta bait dira, beren eskubidea erabiltzen ausartzen ez direnetan, edo indefferentzia gatik iaikitzen ez direnean' humeei orduan arbasoen hizkuntzaz eman behar zaien erleginoaren irakaskintza huts eginen zaie? Ezetz ihardesten du Arthaphezpikuak, erleginoaren irakaskintzari buruzko ephaia Elizak bait du, et okhasino hauietan Elizak gurasoen beldurra edo ahulkeria moralea bethetu behar du». 1905-ko Burruilaren 6-garrenean igorri cirkulare batetan hunela erraiten du: «*Niri konfidantzatu Dioikesien Artzain Nabusi naizen hunek' nire beharrespentzat dut' Erlegino-Bizitza osoari buruz eta horregatik Arima ezin-hilezko Osasunari buruzko gai baten ephaikatzekotz hoin maithe dudan Aphezteriari' humeek sakramendu sainduen hartzeko gerthutzearen problêma zuzentzen. Gure dioikesien kongregazinoen misione aldietatik dakizuenez gurasoek soilik humearen nazionalitatea zalantzan legokenean' humeek sakramendu sainduak zein hizkuntzatan hartu behar dituen' ephaikatuko dute. Bertze okhasino guztietan' phondu huni buruz aphezak ephaikatuko du, batez ere gurasoek' barreneko konvenzimenduaren kontra doazela edo lekhoreko influentziak gatik edo ta beldurragatik' ephaikatze aurkhakoa onetsi dudala iakin dezan guztietan. Hunelako edonun eta edonoiz' gizaren konszientziaren bortxatzetzat ikhusi behar bait da, gizaren bihotzaren korda samurrenak ikutu dituen bortxatzea, alegia. Sakramenduen hartzeko gerthutzea' soilik Elizaren ekhai bat da, eta nire gogozko Botherearen pean baizik ez dago, eta hortarakotz zemaitzen dut sakramendu sainduetarako gerthutzean zein ere nazionalitateko humea ez xede arrotzetarako erabiltea. Ezein hume ez diteke erdaraz importantzia hoin handia duen egiterako gertha, haur da Aithortzerako eta kommunionerako, edo ta bihotzaren sakonguaren sekretuak lekhoratzen*» (23).

Haur guzti haur ba daki Hierarkhiak, edo iakin behar luke, berhain huntaz kontra ekhiten du, eta hunela izanaz geroz, hemen dugun soi-disant Hierarkhiak' lege naturalearen kontra eta Iainkoaren aitzinean bekhatu egiten du, Ion-Doni Augus-

tinek *de libero arbitrio*, capit XXII delakoan haur erraiten bait du: «*Non enim quod naturaliter nescit et naturaliter scire non potest, hoc anima deputatur in reatum; sed quod scire non studuit, et quod dignam facilitati comparandae ad recte faciendum operam non dedit*».

Lithuanian, Polonian eta Txekoslovakian bethi batbederari bere hizkuntzaz irakatsi izan zaio, erleginoa batez ere, bainan Euskalherriaren egokerari behatzen ba deraukogu galde hauk egin behar ditugu: Zeruko Jainko jakintzaguztidunak euskaraz hulertzen ez ahal du? Edo ta zergatik Euskalherriko eskoletan ez da erleginoa euskaraz irakasten? Edonungo seminarioetan hizkuntza vernakulaz irakatsi behar da, bainan Gasteizko seminarioetan euskal kathedra khendu izan da, zergatik? Zergatik euskaldun dioikesietan aphezgei euskaldunek bere irakaskintza ez dute euskaraz hartzen? Ez othe da Eliza *katholikoa*, haur da guztientzat eredu eta kanôn berdinekoa? edo ta Euskalherriari dagokonean euskararen kontra exzepzinoak on hartzen direa? Non dago orduan Hierarkhiaren zuzentarzuna?... Ahalkegarria euskaldun aphezen lazukeria; ahalkegarria gure herriaren kontrako trahisonea; ahalkegarria euskaldunen zabarkeria. Dirudinez Hierarkhiak aphezen mundutiar interessen gainean bertze lege bat dagoela ahantzi egin du, eta lege hau ez da ezabatzen. Thagastar Augustinen hitzak dira: (24) «*Lex tua scripta est in cordibus hominum quam nec ulla quidem delet iniquitas*».

Ahalkegarria, ahalkegarria! Noiz-arte galde degiegun euskaldun aphezei! Noiz arte? Erromak agintzen duena hemen bethetzen ez bait da. Erromak haur agindu bait du (25): «*Vitent itaque Missionari patrii sermonis inter alienigenas propagandi studium; ne ita videantur nationis suae commodo atque utilitati magis quam animarum saluti prospicere*».

«*Curent potius populorum ad quos missi sunt lingua vernacula sermones de rebus divinis, christianae doctrinae institutiones, publicae in scholis atque in allis id generis coetibus sanctae allocutiones semper fiant, ut omnibus prodesse et ab omnibus audiri atque intelligi possint. Pariter lingua vernacu-*

la praeces, extra sacram liturgiam, recitentur eodemque sermone populari cantica hymnique canantur. Vetatur autem omnino Missionariis quominus alienigenas ad confessionem sacramentalem alia linguam quam eorumdem Christofidelium propria peragendam quomodolibet inducant».

Zergatik Hierarkhiak hunelako, kompasmoz eta arrabotsez «clerus indigena» proklamatzen du? Hitz hutsak, Hierarkhiaren kontradikzionea. Hitzek adibidez eta iarraibidez indarra hartzen dute, bertzenaz khea baino guttiago dira. Adibidea etxetik hasten da? Zergatik ez dago Euskalherrian non ere klerus indigena? Herririk askotan euskaldunei erdaraz predikatzen bait zaie.

Dirudinez ongi dago indianoei beren hizkuntzaz irakastea, bainan Bibliaren zathi batetan euskaldunei erdaraz predikatu ta irakatsi behar zaiela iratzirik hal dago. Nun?

Euskalherriaren gau ilhun bauietan, zuek, franziskotarrok, egin behar zen guztia egin-ezarren, bertzeek baino zerbait gehiago egin bait duzue gugana ethorten zara, zure personagan ta zure ordinari sari bat eman izan dakitzuentzat. Halabainan, hemen ongi legoke orain aiphatzea nola Euskalherriko komentuetan ere Elizaren manamenduak orain irakasten den araura bethetzen ez diren. Ez da nahikoa noiz behinka euskaraz irakatsi. Ba dakit zuok euskararen kursuak dituzuela eta bertze thokietan hunelakorik ere ez dagoela, bainan Eleizaren manamenduak edonun berdinak baldin ba dira, euskara irakats-bidea delarik' ikasi ta irakatsi behar da. Euskara' ikasteko objektu bat baizik ez ba dadi, zuen ikastolhak ere' desnazionalioazinoaren zerbitzuan legozke.

Bertze lekhuetan bezala Euskalherriko komentuetan ere' elkharri hulertzeko hizkuntzatzat edonoiz eta edonun euskara erabili behar lizateke, euskaraz zein ere irakaspen irakatsi, euskaraz kantatu, euskaraz mintzatu, euskaraz predikatu, euskaraz othoitz egin. Euskaldun askok beren hizkuntza dostagailu bat bait lizen darabil, phertsuen egitekotz egokia, bainan ez darabil egonoroko mintzoan, ez eta egunoroko arazoetan ere. Zuok' Euskalherriari jarraibidea eman behar zeneraukeo-

te, euskararen aldez euskal kultura bat egiten, euskal kulturhizkuntza hedatzen.

Ait leza zuekin, prantziskotar hoiekin euskaraz behar duen prestijea ardiets eta bere batarzuna ukhan; izan zaitezte Euskalherriaren zuzia, gure herriko intelligentzia, Bibliaren otsein nagiaren araura izan ez dadintzat. Grentrup doktorak herri nagiei buruz hunela dio (26): «*Xede sendoaren gabe, interesegabekokeria gatik bere arbasoen hizkuntza endeka dadin eta higa dadin uzten duen herria' Evangeliaren otsein nagia bezalakoa da. Bere talentaz lan egin ez bait zuen, bai eta hungatik ere' bere nabusiak zigorraztaturen du*».

Guztiz argia izan dadin mintzera ekharriren ditugu parabola hunen zathi ederrenak:

> ὁ δὲ τὸ ἓν λαβὼν ἀπελθὼν ὤρυξεν γῆν καὶ ἔκρυψεν τὸ ἀργύριον τοῦ κυρίου αὐτοῦ.

(27) «*Baina bat rezibitu zuenak ioanik aitzur zezan lurrean eta gorde zezan bere nabusiaren dirua*». Bainan bere altxorra landu ez bait zuen' otseinaren desenkusatzeak nabusiak onhartu ez zituen, hauk ere' gure aphezen desenkusatzeak bezalakoak, zirelakotz, eta huna hemen nabusiak zer erran zeraukon:

> ἤδεις ὅτι θερίζω ὅπου οὐκ ἔσπειρα, καὶ συνάγω ὅθεν οὐ διεσκόρπισα;

«*Ba hakian ezen biltzen dudala erein ez dudan lekhuan, eta elkharganatzen dudala barreiatu ez dudan lekhuan*» (28).

Eta Iaunak hunela zigorreztatu zuen otsein nagi hura:

> καὶ τὸν ἀχρεῖον δοῦλον ἐκβάλετε εἰς τὸ σκότος τὸ ἐξώτερον· ἐκεῖ ἔσται ὁ κλαυθμὸς καὶ ὁ βρυγμὸς τῶν ὀδόντων. Ὅταν δὲ ἔλθῃ ὁ υἱὸς τοῦ ἀνθρώπου ἐν τῇ δόξῃ αὐτοῦ καὶ πάντες οἱ ἄγγελοι μετ' αὐτοῦ, τότε καθίσει ἐπὶ θρόνου δόξης αὐτοῦ· καί συναχθήσονται ἔμπροσθεν αὐτοῦ πάντα τὰ ἔθνη, καὶ ἀφορίσει αὐτοὺς ἀπ' ἀλλήλων, ὥσπερ ὁ ποιμὴν ἀφορίζει τὰ πρόβατα ἐκ δεξιῶν αὐτοῦ, τὰ δὲ ἐρίφια ἐξ εὐωνύμων.

(29) «*Eta zerbitzari alferra egotzazue lekhoreko ilhunbera: han izanen da nigar eta hortz garraskots. Bada gizonaren Se-*

mea dathorrenean bere glorian eta Aingeru saindu guziak harekin, orduan iarriren da bere gloriaren thronoan. Eta bilduren diradé haren aitzinera natione guziak, eta bereziren ditu batak bertzetarik, artzainak ardiak akherretarik bereizten dituen bezala. Eta ezarriren ditu ardiak bere eskuinean, eta akherrak bere ezkerrean». Hunen araura, gure herriaren iura naturalea dena aintzat hartu ez dutenak, aphezak ere' gaizkilekin nahasiren dirade, ezen gure herriaren alde egin behar zena' egin ez bait dute. Ez othe dakite egungo giristinoek zer den iura edo lege naturaela: paganoek bai ba zekiten: «id quod semper aequum ac bonum est ius dicitur, ut est ius naturale» (30). Zaint beza Elizak ius naturalea, bere obligazinoa bait da, zaint beza euskal gurasoen eta humeen iura naturalea; gure herriko semeak ere beren arbasoak beren gurasoak gandik ebats ez daitezen. Thomas Aquinustarrak hunela bait derraku: «*unde contra iustitiam naturalem esset, si puer, antequam habeat usum rationis a cura parentum substrahetur, vel de eo aliquid ordinetur invitis parentibus*» (31). Eta Euskalherriko gazteriaren erdalduntzea ez othe da gure seme-alhabak beren arbasoak ganik ebastea, eta hunela izanaz gero, zergatik zuzentasuna ez dagokie euskaldunei? Hunelako prozedura Aquinastar Thomasek dioenez iura naturalearen kontra baldin ba da, zergatik hunelako gisak gure herrian mojattoek eta fraideek eskoletan darabiltzate? Zergatik orain Euskalherriaren bihotzean, gaztediari erdaraz irakasten eta predikatzen zaiko? Ez othe deraue Vatikanuk debekatzen gure herriko etsaiei iura naturalearen kontra ari izaitea, bertze thokietako gaizkilei bezala? Herriko etsairik handienak monjattoetan eta fraideen eskoletan eduki ukhan ditugu, Elizaren altzoan. Ez da egokera berria, aspaldi danik dathorku, euskara zaindu beharrean zer egin dute? Ahalkegarria! ahalkegarria!

Eta Hierarkhia Euskalherrian zergatik XI Piusen sententiei iarraikitzen ez zaie. Ez othe zuen Pappa hunek Statuaren irakaskintza-monopolioaren kontra ephaikatu? Ez othe zuen XII Piusek erran? Statuaren bethe beharra handi-handia izanagatik' bethebehar hau bethi gurasoen nahiaren araura egin behar zenik? Zergatik ez zaie euskaldunei euskaraz irakasten

bertze lekhuetako jendeei legez, adibidez egun Gathaluñan egiten den araura? Ez othe ditu gure herriak zergak pagatzen? Ahantzi othe du Zeruko Jainko Iaunak euskaraz? Ez othe dira euskaldunok zerurako deithuak? Nun dago euskara Donostiako dioikesian, haur huts-hutsik euskalduna izanagatik? Elizaren registroetan' zein hizkuntzaz egiten dira inskripzinoak? Zergatik ez dira gure herriaren hizkuntza vernakulaz egiten, Kroatian, Bácskán, Banaten eta Errumanian bezala? Zergatik gure herrian dagoen Hierarkhiak Erromako agintza generalei ez-entzun egiten deraue? Expressatuki authorizaturik dagoza? Orduan ahalkegarria lizateke Hierakhiaren mundutiar interessen aldeko ekhintza. Zergatik ez gagotza hemen bertze herrietan bezala? Adibidez lithuanaraz irakastekotz Koenigsbergeko seminarioetan kathedrak zegozen, eta Ekhialdeko Prussian, herririk askotan lituanarren proporzinoa % 5 baizik izanezarren, lithuaneraz predikatzen zen. Bilbaon eta euskaldunik asko bizi den hirietan ez da euskaraz predikatzen. Ez othe dute euskaldunek lithuanarren eskubideak? edo ta Elizak lehenbiziko, bigarreneko eta hirurgarren kastako menpekoak hal ditu, eta hauietan euskaldunak paryak othe dira? Elizarentzat euskaldunok zein kastatakoak dira? Vatikanuk erran biezaku, erran behar deraukulakotz, zeintzu eskubide zaindu behar ditu Hierarkhiak Iazarritakoaren ostikatu eskubidea, ala iazarten duenaren bortxaren eskubidea, indartsuenaren legea othe? Zergatik ez da orain euskaraz predikatzen orain hogei urthe duela predikatzen zen herri guztietan? Nola dago. Elizaren zuzentasuna hizkuntzazko muga-herrietan, eta euskaldunik askoren minoriak dagozen lekhuetan, adibidez: Gorlitzen, Plentzin, Sopelanan, Berangon, Algortan, Derion, Sondikan, Erandion, Zaratamon, Basaurin eta a.? Ongi da euskaldunetan bizi diren erdaldunentzat, erdaraz predikatzea, bainan zergatik ez dituzte erdaldunen artean bizi diren euskaldunek eskubide berdinak? Baldin euskaldun herri huts batetan bortz karabiñeru ba dagoz, nahiz eta hauk mezatara ioan-ezik hauiek ioan nahi luketelako hypothesiaz erdaraz predikatzen da, bainan Bilbaon bizi diren euskaldunentzat ez da euskaraz predikatzen nahiz eta hogei milaka egonagatik. Nondik eta zergatik iniquitate hauk?

Hemen Bizkaian herri guztietan euskaraz predikatu behar lizateke nun ere euskaldun minoritateak bait dagotza? Zergatik ez daduzkate euskaldun horiek bertze lurraldetan Elizak' minoritatei emaiten derauzten eskubideak? Berhain, Euskalherrian nola predikatu behar denari buruz, iadanik ephaikatu zuen Lepe aphezpikuak, eta Kalagorriko dioikesisaren Synodaletan hunela erraiten da (31): «*Porque somos informados, que en la tierra Vascongada, y en especial en los lugares, que la mayor parte de ellos habla Vasquence, los Predicadores por autoridad predican en Romance, y no en Vasquence: de lo cual se sigue grande daño; y que la gente que viene de las caserías a oirlos como no saben Romance, se salen ayunos del sermón. Por lo tanto, Santa Synodo probante: Ordenamos, y mandamos, que en tales lugares los sermones se hagan en Vasquence; y los Curas no consientan otra cosa, so pena de que seran castigados; y lo mismo guarden los dichos Curas quando declaran el Evangelio*» (Eretzean: Don Pedro Manso, en Logroño, año 1600).

«*Y mandamos, S.S.A. que esta Constitucion de predicar en Vasquence, se observe tambien en los pueblos, en donde casi todos entienden el Romance; porque guardada esta forma, todos aprovechan de la Doctrina, y siendo el Sermon en Romance, necesariamente quedan sin entenderlo aquellos pocos, muchos que no lo saben. Y siendo Predicador, según San Pablo deudor a todos, debe predicar de modo que todo aproveche; y por esta razon en todo el Basquence los Predicadores de la tierra, deben ser antepuestos a los que no lo son.*» (Eretzean: Don Pedro de Lepe, en Logroño, año 1698). Synodale hauk orain ere indardunak direla uste dut. Bethe bitza. Eta Elizaren organôsietan nola dago euskara? Silezka Garaieko aphezpikuek' Elizaren biltzarretan eta organôsietan bethi hizkuntza vernakula erabili behar zela erabaki zuten.

Die kirchlische Vereine sind in gemischsprachigen Gemeinden Oberschlesiens in der Regel nach der Nationalität getrennt. Die Verhandlungen und Vorträge geschehen darin in der Muttersprache der Mittglieder» (38). Eta hunela Silezkan baldin ba da, zergatik ez da berdina Euskalherrian? Zergaitik ez da

euskara Elizaren organôsietan erabilten? Eta baldin Elizak' Wilnako dioikesian polskarrek' lithuanara iazarri nahi zutenean' aphez guztiek lithuanaraz eta errusso-zurieraz ikasi behar zutela erabaki ba zuen' zergatik Euskalherrira erdaldunak bidaltzen dira? Euskaldunok Elizaren paryak othe? Itali faxistan horko Gobernamenduak Hegoi-Tyroleko populazinoa bortxaz italianizatu nahi ukhan zuenean' Elizak orduan ere' hango seminarioetan alemanaraz irakatsi behar zela erabaki zuen? Eta euskaldun dioikesietan zergatik ez da euskara irakasteko bidea bilhakatzen? Ez da naikhoa euskaraz ikasteko kathedrak eduki, euskara ikas-objetu bat bai lizen, ez da hori naikhoa, euskaraz irakatsi behar da, euskara irakasteko bidea delarik. Halakotz geuk euskararen duintasuna reivindikatzen dugu, beraren eskubideak reklamatzen ditugu, euskaldunok Elizaren gorphutz mystikoan paryak izan ez ditezen, ez eta nehon ere!

Villasante iaun horrek, hoin garbiki eta ederki aldeztu duzun kultur euskara' gure herriko atxikidura izan bedi. Hunen egitekoz zu lako euskaldun sutsuak behar ditugu. Euskaldunok kultur euskara eduki behar dugu, euskara salbu dadin, eta huntaz gure herriko kultura iratzi Ait ledi zurekin euskara ioan' behar duen bidean gainti, eta bere prestijea, batarzuna ta kultura ait litza eduk!

III

OHARRAK

(1) A.a.O. 202 orrialdean.
(2) Religion und Muttersprache von Dr. Theodor Grentrup S.V.D. Deutschtum im Ausland - Schrifreihe der Deutschen Instituts für Auslandskunde E.V. Münster in W. 1932.
(3) R.u.M. 114, 3.
(4) R.u.M. 114, 12.
(5) R.u.M. 113, 17 Als Schädling dieses tiefern Sinnes der Familie erweist sich die Etnationalisierung der Jugend. In demselben Masze wie es ihr gelingt, die Kinder von der Muttersprache der Eltern loszureiszen wird das friedlich-harmonische Ganze, die restlos seelische Gemeinschaft des häuslischen Kreises beeinträchtigt und dadurch die Grundlage für die Ethische Dynamik der Familie mehr oder minder

geschädigt. Dabei darf man durchaus nicht allein an die religiöse Erziehung im engeren Sinn denken, vielmehr ist der granze Komplex der ethischen Wirkungen, die unter normalen Verhälnissen von der Familie ausgehen, ins Auge zu fassen.

(6) 109, 33 «Die Wahrheit, dasz die Entnationalisierung in der Schule nicht nur die Zuge, sonder auch die Seele der Kinder erfaszt, ist für die Wertung des Sprachenkampfes in den Minderheitsgebieten von hoher Wichtigkeit. Ganz abgesehen von dem Denkinhalt, mit dem die entnazionalisierende Schule den Geist der Kinder ausfüllt, erzielt schon ihre rein sprachliche Tätigkeit eine Wandlung in der biesherigen Seelenstruktur.

(7) Makkbäus. Das Recht auf die Muttersprache im Lichtevdes Christentums Opplen, 1914, S. 14 ff.

(8) R.u.M. 115, 2.

(9) R.u.M. 109.

(10) XI Piusek' Elizaren eginbeharra gurasoen eskubideen zaintzea zela erran zuen.

(11) Allgemein gesagt betätigt sich jene Schule entnationalisierend, die das Kind so heranbildet, dasz es die gewöhnlichen Denkoperationen nicht mehr in der von den Eltern überkommenen Muttersprache, sonder in einer anderen Sprache ausführt.

(12) R.u.M. 107, 14-39.

(13) R.u.M. 112, 37-113, 2.

(14) R.u.M. 113, 13.

(15) Mat. 28, 19.

(16) Luc. 24, 47.

(17) Act. Apost. 2, 3-14.

(18) Concil. IV Later. cap. 9.

(19) Concil. Trident. XXIV, 7. De reformatione.

(20) Proce. iuris eccl.,; R.u.M. 361; Capdevila 5.

(21) R.u.M. 204-219, 328-330; 383.

(22) Poznaneko Arthapezpikua Dorian v. Stablewski; R.u.M. 267, 24-268, 24.

(23) Kirchliches Amtsblatt für die Erzdiözese Gnesen und Posen 20 Jahrg. (1905). Nr. 10, S. 40.

(24) II Confess. (Cap. IV).

(25) Sacra Congregatio de Propaganda Fidei 1920.

(26) R.u.M. 90, 35-91, 2.

(27) Mat. 25, 18.

(28) Mat. 25, 26.

(29) Mat. 25, 30-33.

(30) Paul. 1.11.D., de Iustit. I. 1. bai eta haur ere: Nam, ut eleganter Celsus definit, ius est ars boni et aequi.

(31) S. Thomae, Summa Theologica, II, 2 quaest. 10, art. 12.

(32) Constituciones Synodales antigvas, y modernas del Obispado de Calahorra y la Calzada. Sonst. 12.

(33) 335, 7-10 R.u.M.

IKUSPEGIAK

II

Franzisko Aranzabal Lamarain

4. IKUSPEGIA. GIZAKIA OHITUETARAKO IKUSPEGIA

GIZAKIA

a) Giza-egintzen ikuspegia.
b) Arazoa: lana eta ogibidea.
Lana — Lan ez sortzailea.
— Mailakatua.
c) Jaiki zaitez!
Larrialdiko egoerak.
d) Ofizioa eta profesioa.
e) Teknika — Esannahia.
— Bereizketa.

EBOLUZIOA

a) Azalpenak. Funtsezko aldaketak.
Ardurazkoa, ardura gabekoa.
b) Eboluzioaren aurrerapena. Aurrez ikusi ezina.
c) Heriberto Spencer.
1) Gaiaren integrazioa. Higiduraren sakabanatzea.
2) Gaiaren aldaketak.
d) Eboluzioaren izaera. Motak.
e) Iraupena.
f) Eboluzioaren zintzotasuna eta benetakotasuna.
g) Eboluzio psikikoaren haziak.

GIZA-EGINTZEN IKUSPEGIA

ADLER-en ASKATASUN IKUSPEGIA

	GIZAKIA	GIZADIA	GIZARTEA
	Iraupena	Iraupena	Iraupena
		Bizitza	
ARAZOAK	Lanbidea	Gizon-emakumeak	Elkartasuna
	Lana	Emakumea	Politika
	Dirua	Umeak	Elkar-behartasuna
	Teknika	Eugenesia	Jakintza
	Kultura	Seksu-arazoa	Adiskidetasuna

Ikuspegiaren agerpena.

Begien aurrean ditugun gai handi eta zabal horiek huts hutsean eta inolako apaingarririk gabe ez aurkeztearren, beste batzuk hautatu ditugu, garrantzi gutxiagokoak baina, nolabait ere, lehen aipatutakoekin zer ikusirik dutenak.

Arazo garrantzitsu hauen gaiak agortu ezinak eta idazle-talde oso batentzat egokiagoak direnez gero, zor zaien begirunea aitorturik ere aipatu gabe utziko ditugu, sakon sakonetik eta alde guztietatik erabili gabe, holako gai zabalak ez bait dira egokiak gizaki bakarrarentzat.

Ondorioz, hemen ipintzen ditugun lantxo hauek ez dute ikuspegia osatzen dutenek hainbateko garrantzia. Benetako garrantzia, ordea, ikuspegi honen eragintzari dagokio, eskeintzen digun naturarako norabideari eta gai hauei buruz izan behar dugun ardurari.

ARAZOA. Bizitzan irautea. Bizitzari eustea, lan eta ogibidearen bitartez dirua irabaziz.

LANA. Zer da lana? Ondasunak egitera zuzendua dagoen giza-ahalegina da lana. Gizona jaiotzen denez geroztik arrastuka daraman zama edo zeregina da lana.

Lanak ez du sortarazten. Lanak ez du ezer sortarazten, ez du ezerezetik ezer ateratzen. Gauzak argira ateratzen ditu bakarrik. Gizakiak, harria besterik ez dagoen lekuan biziko

balitz, harrizko gauzak egingo lituzke bakarrik, ez bait du ahalmenik ezerezetik gauzak sortzeko.

Zor den lana. Mundura jaiotzen den orori zor zaio gizarteari serbitu ahal izateko aukera, hau da, eguneroko ogi zatia, bizitzari eusteko eta gizartearen mesedetan lan egiteko beharrezkoa dena. Gerorako geratuko da, gizartearen aldeko zeregin horretan, norberaren lanaren hobeagotzea eta borobiltzea, norberak lan garrantzitsu eta berezituak iristea.

Lan mailakatua. Bearbada, inork nahi ez duen lanetik, ezerezetik hasi beharko da, bizirik irautea bakarrik kontutan harturik.

Lan orekatua. «Sumite materiam vestris, qui ecribitis, aequam viribus» (Horacio). «Har ezazue, idazleok, ahal duzuen neurriko lana». Hartu duzuen ogibidea zuen gaitasunaren gain badago, orduan denbora franko eman beharko duzue prestaeratan, irabazitako diruaz gozatu beharrean.

JAIKI

Jaiki zaitezte goizean goiz eta ekin gogotik aldapari, agian gogorregia gertatuko zaizuen aldapa horri.

Jarrai ezazue, jarrai bide horretan geldi gabe, diru alerik, izerdi tantarik edo pausorik alferrik bota gabe. Honelaxe beteko duzue Virgilioren esana: «Durate et rebus vosmet servate secundis». «Gogortu zaitezte eta gorde zeuen burua datozen onaldietarako».

Eta ez makurtu, ez bigundu, ez moteldu inoiz ere. Jarri goian zuen imandutako indarra, zuen elektroimana, behera eror ez zaitezten inoiz.

Bila ezazue barruko lotura eta elkartasuna.

Saia zaitezte heldutasunera iristen. Heldutasuna da azken lortzen dena, baina aurrena bilatzen hasi beharrekoa.

Saiatu erabakia zuen menpeko izan dadin arazo guztietan.

Ikasi baita ere bidegabeko esan zikinei erantzun egoki

eta ordu onekoa ematen. Horrela beteko duzue Horazioren esan hura: «Etsi fractus illabatur orbis, impavidum ferient ruinae». Mundua, pusketan apurtua, zuen gainera jausiko balitz ere, gizon beldurgabeak hondamenari eutsiko lioke zutik».

EGOERAK. Badira gizakiak, ezbehar gogor baten ondoren, betiko zeharo ezereztuak geratzen direnak. Beren buruaz beste egiteko tentazioan ere jartzen direnak. Esan liteke horrelako gizonek ez dutela bizitzeko pozik, ezta adorerik ere.

Beste batzuk, erabateko deuseztapenean eta beren burua hiltzeko tentazioan erori ez arren, luzaroan geratzen dira lur jota eta ezinliteke ziur esan, denbora aurrera joan ahalean, berriro erabat sendatuko diren ala ez.

Hirugarren taldeak, alditxo bat igaro eta gero, berriro bereganatzen du lehenagoko indar eta alaitasuna.

Badira oraindik banaka batzuk, zailtasunak gainditzeari, dirudienez, gusto hartzen diotenak. Hauetxek dira jatorrak, eragozpenak bilatu eta gainditzea, horixe dute atsegin eta gogoko. Hauentzat oztopoak gainditzea, arnasa hartzea bezain erreza, beharrekoa eta atsegina da.

Gizona: gure ikuspegi honek zerbait gizonduko zaitu, naraeza zuzenduz eta bizitza tajutuz eta eratuz.

LANAREN ARAUKETA

Giza-egintzen bereizketak funtsezko ezberdintasunak ezarri ditu ofizio eta profesioaren artean. Biak dira, bizimodua diruaren bitartez aurrera ateratzeko ohizko lanbideak.

Hona hemen bakoitzaren ezaugarriak.

OFIZIOA

1) Bakarkakoa, ez talde ofizialetakoa.

2) Gizonez gizon igarotzen den ikasketa berezia, ikasgelatan egiten ez dena.

3) Estatuaren titulorik eta babespenik gabekoa.

4) Makinen laguntzaz baliatzen da.

5) Burulanari baino gehiago eskulanari dagokiona.

Adibidez: arotza, argina, igeltseroa, ikazkina.

PROFESIOA

1) Taldetan ikasi beharrekoa, ez bakarka.

2) Eskulanari baino gehiago burulanari dagokiona.

3) Estatuak ofizialki ipinitako egitasmo eta egitarauei jarraitzen diena.

Adibidez: irakaslea, lege-gizona, sendagilea, inginerua.

Lanbide liberalak.

1) Estatuaren titulu ofizialekin babestuak daude.

2) Estatuaren egitasmo eta egitarauen araberako ikasketak dituztenak.

TEKNIKA

Profesioa eta lana hobeagotzeko teknika.

1) *Teknika hitza,* bere lehenengo eta jatorrizko zentzuan, egiteko moduari, egiteko prozedurei dagokie beti, teoria hitza soilik pentsamenduei dagokien bezelaxe. Zientzia eta arte guztiek dituzte egikera edo prozedura hauek.

2) Bigarren zentzu batez, «teknika» hitzak esan nahi du baita ere gai eta prozedura horiek erabiltzeko trebetasuna, iaiotasuna eta maisutasuna.

3) Baina teknika hitzak badu askoz sakonagoa den beste zentzu bat: oso ezagupen bereziz osatutako multzoari dagokiona hain zuzen, bestelako ezagupenek eta gehiengoaren iritziek ezagutu ezin dutena.

4) *Hitz teknikoak.* Jakintsuek bakarrik ezagutu eta erabiltzen dituztenak. Hitz teknikoak jakintzaren muinean era-

biltzen direnak dira, beste guztiek ulertu ezin dituztenak edo oso bestelako berbekin adierazten dituztenak.

Teknikaren bereizketa.

Teknikak berezi eta diferentziatu behar dira bakoitza bere egituraren arabera. Teknika objetiboa eta denentzat berdina delarik, teknika guztiak hiru multzotan bil daitezke, bakoitzak bizitzan dituen gaitasun eta aplikazioen arabera.

1) Bere lehenengo eta jatorrizko zentzuan teknika hitzak *industria* esan nahi du, hau da: ezagupenak egintza bihurtzea.

2) *Giza-egintzen teknika,* egintza hauek bidezkoak eta egokiak izan daitezen.

3) *Artearen teknika,* arte guztiek, bakoitzak berea, dutena.

Artearen teknika datza besteen sentipenean sorteraztean guk geurean jasan dugun edertasun zirrara.

EBOLUZIOA

Eboluzioa, izenaren esannahiez, desborobiltzea esan nahi du (desarrollo), mailakako desborobiltzea, piskanaka piskanaka eta geldiro egiten dena.

Hazi alearen muinean biribilduta dagoen bizitza-plan, proiektu edo eskema desborobiltzea.

Eboluzioa mailakatua da, goranzko eta beheranzko pausoak egiten dituena, abiadura motela eta sumaezinezkoa, etengabea, zentzuen bidez ulertu ezin diren aldaketak dituena.

FUNTSEZKO ALDAKETAK

Epe luzerako prozesu hau honako honetan datza:

a) Albokoekiko ezberdintzan.

b) Zatiezinezko nortasunean, barruan.

Ardurazkoak eta ardura gabekoa.

Ardurazkoak. Prozesu honetan benetako garrantzi dutenak (batzuren ustez, behintbat) aldaketa sakon horiek dira: albokoekiko desberdintza eta zatiezinezko nortasuna, barruan.

Ardura gabekoa. Aldaketa horiek adieraztera ematea bakarrik, aurrerapenak edo atzerapenak ote diren kontutan hartu gabe; irabaziak edo galerak edo onurazkoak ote diren arazoari ajolarik eman gabe.

EBOLUZIOAREN AURRERAPENA

Holaxe, gure nortasuna etengabe ari da hazitzen, garatzen eta heltzen. Bere mugimendu bakoitza zerbait berria da, lehen zegoenari eransten zaiona. Eta berria izateaz gainera, aurrez ikusi ezin den zerbait ere bada.

AURREZ IKUSI EZINA

Ez dago adimenik, ezta gizakiaz gaindiko adimena ere, forma hau, aldi berean hain sinplea eta zatiezina eta elementuei antolamendu konkretua eman diezaiekeen forma hau aurrez ikusi ahal duenik. Zeren aurrez ikustea zerean bait datza: *gerorako asmatzean lehengokoan sumatu duguna, hau da, etorkizunean etorriko denari aurrea hartzean, alegia.*

Eboluzioarekin elkarturiko kontzeptuak.

Eboluzioarekin elkarturik daude: inboluzioa eta iraultza.

Inboluzioa eboluzio atzerakoia da, atzeraka doana, eboluzioa alderantziz eta okerka.

Iraultza, berriz, bapateko *aldaketa da,* etenezkoa.

HERIBERTO SPENCER

Eboluzioaren maisu eta irakaslea Heriberto Spencer izan zen, inglesa, XVIII. mendean bizi izan zena.

HERIBERTO SPENCER

Filosofo honentzat eboluzioa da *gaiaren integrazioa*, bere sarketa osotasun batean eta, aldi berean, *higiduraren sakabanatzea.*

Esan liteke, integrazioa osotasun batean parte hartzea dela, osotasun baten izate eta egoeran.

Higiduraren sakabanatzea.

Higiduraren sakabanatze honek albokoekiko desberdintzara darama eta gaiaren integrazioak, berriz, zatiezinezko nortasunera.

Gaiaren aldaketak.

Higiduraren sakabanatze honetan, gaia berdintasun (homogenotasun) mugagabe eta elkargaitz batetik desberdintasun mugatu eta koherentera igarotzen da.

Eboluzioa, disoluzioa.

Filosofo honen iritziz eboluzioa, bere azaleko itxuran zera da, gaiaren integrazioa higiduraren sakabanatzearekin, eta disoluzioa, alderantziz, gaiaren desintegrazioa higiduraren zurgapenekin.

SPENCER

Edozein moduz ere eta azkenik, hona Spencer-ek eboluzioari buruz zuen ideaiaren mamia: eboluzioa kualitatezko edo bizitzezko era da, hau da, funtsezko alkaketa, berdintasunetik ezberdintasunera aldaketa sakona.

Eboluzioaren izaera eta motak.

Eboluzioa izan daiteke:

a) izaki bakarrekoa, ontogenia deritza eta inguru-indarrek bizitza eta urteetan zehar sortutako aldaketei dagokie;

b) mota espezie edo enda bateko eboluzioa mendeetan zehar, filogenia izenez ezagutzen dena. Adb: giza-arrazaren eboluzioa.

Ontogenia delakoaren izaera eta motak.

Izaki bakarraren eboluzioa, honela xehetu liteke: landareei dagozkiena, arimazkoa, psikikoa, gizartekoa... eta abar.

Eboluzio psikikoari buruz, harira datorkigu iraupenaren garrantzia Bergsonek zioen arabera.

Iraupena.

Iraupena da bizitza psikikoaren ehundura.

Bizitza psikikoa da zentzuen bidez soilik ezagutu ezin litekeena.

IRAUPENA

Iraupena ez da, ez, une bat beste une baten ondoren, une baten ordez beste bat jartzea. Horrela orainaldiko denbora besterik ez genuke izango, baina ez lehenalditik orainaldirako luzapena, hau da, *egiazko iraupena*, eboluzioaren iraupena, izaki bat bera bi une horietan egoten denekoa.

Lan onurazkoa.

Lan onurazkoa izango litzateke gure bizitza osoa, gure historiaren eboluzioa horri batean jartzea, jaiotzetik hasita, jaio aurretiko denbora ere kontutan harturik.

Eboluzioaren zintzotasuna, benetakotasuna.

Eboluzioak ez dauka itzulirik, ez dauka atzeratzerik.

Iraupenak ez du barkatzen bera gabe egiten dena.

Eboluzioaren erlojuan ez dago orratzak aurreratzerik.

Une eta ordu guztiak igaro behar dira banaka-banaka.

Heldutasuna ezin liteke aurreratu ez laburtu oihuka.

Hazia lur onean bota behar da, eta lagundu eta berotu heldutasuna iritsi bitartean.

Eboluzio psikikoaren haziak.

Eboluzio psikikoaren haziak, irudi eta ideak dira.

Irudi eta ideiak motor eragileak direlarik beren antz eta irudira moldatzen gaituzte.

Ideiak eta irudiak burutik kentzen edo ezabatzen badira, bizitza psikikoa ere ezabatzen, itotzen, desagertzen da. Alea ez da hazitzen, harri gainean balego bezela.

Hamar urte eta gehiago igarota ere, hazia ereindako eran geratuko da.

Behin eta berriz esana daukagu: ideia eta irudiak kentzea eta estaltzea, haziari lurra eta ura kentzea da.

Zenbat eta denbora gehiago pasa bidetik kanpo, orduan eta luzeago joko du galdutakoa berreskuratzea.

5. IKUSPEGIA. GIZARTEA

OHITURETARAKO IKUSPEGIA

GIZARTEA

a) Kontzeptua eta azalpenak.

b) Gizartearen arazoa.

c) Elkartasuna.
Elkar-behartasuna.
Agerpenak.

d) Psiko-fisiko arteko.
elkar-menpekotasuna.

e) Gizartearen eragingarriak.
Jakintza, kultura, zibilizazioa.

f) Jakintza.
1) Definizioa.
2) Ezaugarriak.

g) Jakintzaren historiari.
buruz bi hitz.
Francisco Bacon.

h) Zibilizazioa - Aurrerapena.
Kultura.
Definizioa.

Ikuspegiaren agerpena.

Begien aurrean ditugun gai handi eta zabal horiek huts hutsean eta inolako apaingarririk gabe ez aurkeztearren beste batzuk hautatu ditugu, garrantzi guxtiagokoak baina. nolabait ere, lehen aipatutakoekin zer ikusirik dutenak.

Arazo garrantzitsu hauen gaiak agortu ezinak eta idazle-talde oso batentzat egokiagoak direnez gero, zor zaien begirunea aitorturik ere aipatu gabe utziko ditugu, sakon sakonetik eta alde guztietatik erabili gabe, holako gai zabalak ez bait dira egokiak gizaki bakarrarentzat.

Ondorioz, hemen ipintzen ditugun lantxo hauek ez dute ikuspegia osatzen dutenen adina garrantzia. Benetako garrantzia, ordea, ikuspegi honen eragintzari dagokio, eskeintzen digun naturarako norabideari eta gai hauei buruz izan behar dugun ardurari.

Gizartea.

Gizartea ez da, inondik ere, leku eta denboraldi jakin batean bizi diren gizaki bakarren multzo huts bat. Beharrezkoa da, multzo hori osatzen dutenen desberdintasunei norbaitek edo zerbaitek batasuna ematea. Eta multzokoen desberdinta-

sunei batasuna ematen diotenak, denen artean ezarritako helburu edo zedeak dira.

Helburuak garrantzirik handiena du gizarte berri bat sortzerakoan. Zenbat eta nolako helburuak, hainbat eta halako gizarte mota. Gizartea, bere zentzurik hertsienean, gizaki arrazoidunez osatutako elkarte bat da, beraiek bakarrik bait dakite beren arteko desberdintasunei batasuna ematen. Hala ere, arrazoigabeko bizidunez osatutako elkarteen agerpenak ugariak dira.

Gizartearen arazoa. Beraz, gizartea giza-multzo bat da, denen artean ezarritako helburu jakin batzuei atxikia eta lotata dagoena.

Gizartearen lotura elkartasuna da, elkar-behartasuna eta elkar-menpekotasuna.

Elkartasuna gizakia onartzea da, gizaki delako, besterik gabe. Osotasun baten zati desberdinen artean edo multzo bate osagai ezberdinen arteko elkar-menpekotasuna da elkartasuna. Gizarteak baditu, beraz, osagai bat, giza-multzoa, eta forma edo irudi bat denen artean jarritako helburuak.

Elkartasuna. Elkar-behartasuna.

Errez aurki daitezke izadian elkar-menpekotasun honen agerpenak. Gizadian dena ondo baino hobeto loturik dago, askatu ezin diren lokarriekin loturik. Hona hemen bukaezina litzatekeen xerrendaren adibide batzuk.

1) Ilargiak eta gure lurrak eguzkiarekin, itsas gora-beherekin eta eklipsekin duten harremana.

2) Lurretik bizitza ateratzen duten landareak eta landareetatik bazkatzen diren belarjale odoldunek elkarrekin duten zer ikusia.

3) Zelula edo bizidunik bakun eta txikienaren barruko lotura-indarra.

4) Izaki bateko zelula guztien arteko elkar-behartasun eta menpekotasuna.

5) Gorputz baten hanka, beso, buru eta beste soin-atalan arteko elkar-behartasun eta menpekotasuna. Ahoak jana bidali behar dio gorputzari eta sudurrak, berriz, airea; hankek nahi duen lekura eraman behar dute biziduna. Bere aldetik, bizidunak soin-atal desberdinei zor die, berauek odola airea eta nerbio-korrentea gorputzean zehar eramatea.

6) Bizidun bakoitzaren irudi, ideia, sentipen eta asmoen arteko mempekotasuna. Ideia eta irudiak eraginkorrak dira, egintza bihurtzen dira eta beren antz eta irudira moldatzen gaituzte.

7) Gizon-emakume bikotearen elkar-behartasun eta adiskidetasuna.

8) Gizakiak lan egin eta umeak sortu behar ditu gizartearentzat; gizarteak, berriz, ogia eta heziketa eman behar dizkio gizakiari, bere serbitzutan jar dadin.

9) Sendi batean, guraso eta semeen arteko menpekotasun eta behartasuna. Gurasoek, janaria, adiskidetasuna, babesa eta kontseiluak eman behar dizkie seme-alabei, txikiak diren bitartean; Seme-alabek, aldiz, begirunea zor diete beti gurasoei eta laguntza zahartzaroan.

10) Lantoki batean ere ugazaba eta langileen arteko harremanak onak izan behar dute; arduradunak begirunea eta lan-sari duin bat zor dizkie langilei; langileek hari zintzotasuna eta leialtasuna lanean.

11) «Elkartasunetik dator indarra».

12) Eginbeharrak eta eskubideak denean eta denentzat, Eman hartzeko; lanean ihardun, gero saria jaso ahal izateko. Lagundu, laguntza merezitzeko.

13) Estatu batean, zaintzaile, egile eta gobernuaren arteko zer ikusia.

14) Abereen arteko elkar-menpekotasuna; intsektu, txori, hegazti harrapari eta lauioneko haragi jaleen arteko harremanak.

15) Zuhaitz batean, sustrai, azal, enbor, adar, lore eta hazien arteko laguntasun eta harremanak.

16) Gure egintzen eta beren ondorioen elkar-menpekotasuna. Egiten dugun guztia bizitzaren menpean eta zerbitzutan dago.

17) Bakardadearen elkartasun eta batasuna izadiko zentzu orokorrarekin.

18) Garrantzi handienetako elkar-menpekotasuna dago psiko-fisikoaren artean, materia eta izpirituaren artean, gorputz-gertaera eta arima gertaeren artean, sentigarriaren eta sentigarriatik harago dagoenaren artean.

Bizitza psikikoaren oinarrizko legea, ahaztu behar ez dena, psiko-fisikoaren arteko elkar-menpekotasunari dagokiona da, hain zuzen.

Deitzen zaio psikikoa, zentzugarri bihurtu ezin litekenari. Psikea da zentzuetatik harago dagoen errealitatea, gorputzetik harago dagoena.

Adibidez: Etorkizun ilunean izkutatzen direnak ezagutzea. Psike edo arimaren egite asko dira gorputz gabe ondo ulertu ezin litezkeenak, eta psikeak, aldi berean eragin handia du gorputzean.

GIZARTEAREN ERAGINGARRIAK

Jakintza, zibilizazioa, kultura.

Jakintza. Esan liteke jakintza edo zientzia, izaki jakin bati buruz eta sistema bat osatuz, elkarren mendean kateaturik dauden ezagupenen multzoa dela. Ez, ordea, edozein moduzko ezagupenak, baizik eta izaki bati buruz sistematikoki (doctrina-gorputza osatuz) egindakoak.

JAKINTZAREN EZAUGARRIAK

a) *Ziurtasuna.* Jakintzaren esparru zabalak aukera ematen du izakiak ziurtasunez ezagutzeko.

b) *Orokortasuna.* Zientziak, izaki banakoetatik gain, lege orokorrak aurkitzen eta ezartzen ditu.

c) *Jakintzaren garrantzia.* Jakintzaren garrantzirik handiena bere aplikazio teknikoetatik datorrela dirudi, ezagupenak erabiliz, berauek asmakizun bihurtzeko ahalmena bait du.

JAKINTZAREN HISTORIARI BURUZ BI HITZ

1600. urte inguruan bizi izan zen Francisco Bacon inglesak inork baino hobeto jarri zituen zientziaren oinarriak.

Bere geraikide batzuren antzera harriturik geratu zen, gigon ezezagun batzuek lortutako aurkikuntza eta asmakuntzen ondorioak ikusita: inprenta, polbora, iparorratza... e.a.

Erronka bota zien gizon honek guda eta inperio guztiei, erlijio eta filosofia berriei, baita izarrei beraiei ere, ea beren artean zeinek erakuts zezakeen haiek lortutako aurkikuntza eta asmakuntzen parekorik.

Gizaki guztiak bultzatu zituen naturaz jabetzera, giza-bizitzaren baldintzak hobeagotzeko asmoz.

Baconentzat, gizon-emakumeek lekurik gorenena hartu behar zuten naturaren barruan eta horren aldeko borrokan aritu zen jo ta ke.

Bere ardura bakarra, gizakien zoria hobeagotzea izan zen, giza-arrazaren jabetasuna izadiaren gain hedatuaz.

Baconek, bere lan eta ardura guztia gizadiaren serbitzutan jarririk, garrantzirik handieneko leku bat lortu zuen jakintzaren historian; ohorezko lekue, bere merezimenduz irabazi eta jadanik inork kendu ezin diona.

Zientziak giza-bizitzan zein leku bete behar zuen, horixe zen bere kezkarik nagusiena. *Zein zen gizonaren lekua gizadian eta zein jakintzarena giza-bizitzan.*

Izadia ezerezetik sortua izan zenean, bibliaren arabera, gizonak munduko izaki guztietaz jabetzeko agindua hartu zuen. Galdutako jabetasun hau gizadiari berreskuratzen laguntzen ez zion ezagupen oro mespresatzen zuen Baconek.

Hauxe da buruan etengabe zerabilen gogoeta: natura menperatu gizadiaren serbitzutan jartzeko, honela honek jasaten duen pisua arindu, onaldiak ugaritu eta gaitzak eta atsekabeak gutxituz.

Baina oraindik gehiago esan liteke Baconen alde: Bere metodo berri eta berezia. Metodo berri honi «Novum organum», «Logika berria» deritza. Izaditik ateratakoa, edo hobeto esateko, izadi berberaren irudi eta ispilua. Ez da zerbait subjetiboa, norberaren ikuspuntuari datxekiona, ez, alderantziz, izaditik ez irtetzea, izadiari ezer ez kentzea, izadiari ezer ez ezartzea, horixe da bere mezua. Bere «indukzio ez-osoa» aurkikuntza eta asmakuntza askoren giltza izan zen.

Baconek erakutsi zien gizonei izadiko liburua irakurtzen; berak deitu zion izadiari liburu, izadiko liburua. Idazleek besteen liburuetatik ateratzen dituzte beren liburuak gehienetan. Baina liburuok ulergaitzak, akatsez beteak edo arinegiak izaten dira sarritan.

Hala ere inork ez du irakurtzen ulerterreza, egiazkoa eta huts gabea den izadiko liburu hau. Airea bezain merkea eta, aldi berean, diruarekin erosi ezin litekeen altxorra, asmakuntzaz eta aurkikuntzaz betetako altxorra.

ZIBILIZAZIOA. AURRERAPENA

Zibilizazioak, aurrerapenak betidanik izan dute, egintza eta ezagupenez baliaturik, asmakuntza berriak egiteko joera.

Zibilizazioa progresoa da, aurrerapena, hau da, ezagupen eta egintzak beti aurrera eramatea, hobeagotzea.

Gizadiak zibilizazioa sortzen du aurrera joan ahala.

Gizadia zibilizazioaren sostengu eta euskarria da.

Kultura, aldiz, balioak norberaganatzean datzalarik, gizabanakoari hobeto dagokion egitekoa da. Hala ere, kulturak ohitura bihurturik geratzen direnez gero, esan beharra dago herriak ere kultur-eusleak izan daitezkeela, kultur eramaileak, kultura ezberdineko herriak, beraz.

Gizakia zibilizazio baten barruan bizi da. Gerta liteke, gizaki bat, zibilizazio handi baten barruan bizi izanik ere, kultura gutxi edo bat ere ez duena izatea eta, alderantziz, zibilizaziotik hurrun bizi den gizona kultura oso baten jabe izatea.

BALIO-JUDIZIOAK EDO BALIOZTAPENAK

Balio-judizioak edo judizio baliotsuak balioak jartzen dituzten dira. Adibidez: «bat izatea hobe bi itxarotea baino».

Balioztapenak alderatze-esaldien bidez eginak dira: «hobe da, nahiago dut». Adibidez: «nahiago dut izatea, itxurak egitea baino».

Zer dira balioak?

Balioak izakien berezitasun objetibo eta irrealak dira, izakiei on izaera ematen dietenak.

Kontrabalio edo baliorik eza, aitzitik, izakiei gaitz izaera ematen dien berezitasuna da.

Balioen izaera.

Balioak ez dira lehenagoko bati erantsitako errealitate berriak. Ez dira gauzak, irrealak dira. Badaude baina ez dira. Objetiboak dira, izadian daude, denentzat balio dute, ez dira norberak izan ditzakeen ikuspuntu subjetiboei dagozkionak. Adibidez: Diruaren balioa gauzak erosteko objetiboa da, denentzat dagoena; baina, aldi berean, irreala da. Gauzak erosteko balio duen dirua bera da eta ez diruari ezarritako ezer.

KULTURA

Zer da kultura? Esan liteke kultura *balioez jabetzea* dela. Aurrera baino lehen bi hitzon esannahia argitu behar dugu A) Balioak; B) Jabetzea.

A) *Balioak.* Balioak, izakiei onizaera ematen dieten berezitasunak dira. Kontrabalioak, aldiz, izakiei gaitz izaera ema-

ten dieten berezitasunak dituzu. Adb: osasuna balio bat da, eta gaisotasuna kontrabalioa.

Balioen mailak. Balioak mailakatuak daude, ez dira berdinak, desberdinak baizik. Elkarrekiko menpetasunean daude. Batzuk besteak baino baliotsuagoak dira. Bizitza-balioak baliotsuagoak dira apaingarrizkoak baino.

6. IKUSPEGIA. GIZADIA

OHITURETARAKO IKUSPEGIA

GIZADIA

a) Egintzarako gida-taula.

b) Gizadiaren arazoa.

BIZITZA

a) Definizioa eta azalpenak.
Zertan datza bizitza?

b) Ezaugarriak.

c) Inmanentzia.

d) Besteekiko elkartasuna.

e) Inguruarekiko egokipena, ingurura hartarakotzea.

f) Lanaren banaketa eta elkar-menpekotasuna.

g) Funtsezko arazoa.

OLERKIAK

1) «Maite irrikorra».
«Har nazazu oraintxe».

g) «Zorentxu» (Onaindia).

IKUSPEGIAREN AGERPENA

Begien aurrean ditugun gai handi eta zabal horiek huts hutsean eta inolako apaingarririk gabe ez aurkeztearren, beste gai batzuk hautatu ditugu, garrantzi gutxiagokoak baina, nolabait ere, lehen aipatutakoekin zer ikusirik dutenak.

Arazo garrantzitsu hauen gaiak agortu ezinak eta idazle-alde oso batentzat egokiagoak direnez gero, zor zaien begirunea aitorturik ere, aipatzeke utziko ditugu, sakon sakonetik eta alde guztietatik erabili gabe, holako gai zabalak ez bait dira egokiak gizaki bakarrarentzat.

Ondorioz, hemen ipintzen ditugun lantxo hauek ez dute ikuspegia osatzen dutenen garrantzia. Benetako garrantzia, ordea, ikuspegi honen eragintzari dagokio, eskeintzen duen naturarako norabideari eta gai hauei buruz izan behar dugun ardurari.

GIZADIAREN ARAZOA

Gizadiaren arazoa beronen irautea da umeen bidez.

Hauxe da nire seksuari dagokion arazoa.

Hauxe da maitasunari dagokion arazoa.

Gizarteak ez dio barkatzen gai honetan zalantzakor dabilenari; bere ikuspuntu berezia eta ez gizartearena duenari; elkartasunetik aldentzen denari. Eta epai hau ematerakoan gizarteari ez dio axola epaitua erruduna ala errugabea den.

Eginkizun horretarako girorik egokiena, gorrotorik eza da eta baita ere nahitasun eta joera kosmiko edo orokorra: ondasun ta bizitza duten izakiak maitatzea.

Hauxe da gizarte eta gizadiaren jokoa.

Gai honen baldintzak. Heldutasuna. Eboluzioaren puntu, ordu eta heldutasuna. Helgabetasunetik ez datorke fruiturik.

Gizon-emakumeek adiskideturik bizi behar dute, nahastean izan ez arren beti.

Galdu dute auzi hau, ondoegi egitea nahi izan duten guztiek.

Beste baldintza bat honako hau da: gizonezkoaren, emakumezkoaren, eta gizartearen gorputzak ondo ezagutzea.

«Teoria oro lausoa da, bizitzaren zuhaitza, ordea, dirdiratsua». (Mefistotelesek esana Fauston).

BIZITZA

Zail da bizitza zertan datzan esatea. Beronetaz kanpoko ezaugarrietatik abiatuta adierazi beharko dugu.

«Bizitza» izena, bizitzan bertan gertatzen den zebaitetik dator. Gertatzen den zerbait hori honako hau da: «norbera mugitzea» (movere seipsum). Mugitzeko indarra eta indar berberaren mugimendua. Adibidez: txoriaren hegaketa, belarraren hazketa, gizonaren ikuste entzute eta ibiltzea.

Izaki batzuk bizidunak direla dirudite, bizitza dutela, zeren nondik sortzen eta nork mugiarazten dituen garbi ez egonik ere, ez bait dute berak baino beste eragilerik.

Bizitza bakarrik agertzen da, eta horretan datza hain zuzen, *zelularen bi atal nagusi, funtsezko eta nahitanahiezkoak diren protoplasma eta nukleo-gaia elkarrekin bat eginik diharduenean.* Soin-atalen jakintzak *(anatomia)* eta *soin-funtzioen* jakintzak *(fisiologia)* argi eta garbi erakusten dute, gorputz bizidun guztiek salbuespenik gabe, zelula bakarrak direla edo zelulekin osatuta daudela.

Zelulak dira bakarrik izaki bizidunak. Zelula bakoitzak ezagutarazten dizkigu bizitzaren agerpenik garrantzitsuenak, gaiaren, irudiaren eta indarraren aldaketetan.

Zelula da bizidunen artean bizidunik txikien eta bakunena. Horregatik, Bruk-ek *bizidun elementala* deitzen dio zelulari, atalgabea, eta Wirchov-ek *zelulen elkartea* deitzen die landare eta abereei. Honek esan nahi du gorputz bizidunak zelulekin osatuta daudela.

Ondoren, bizitzaren ezugarririk ezagunenak aipatuko ditu-

gu: A) Inmanentzia; B) Besteekiko elkartasuna; C) Ingurura hartarakotzea; D) Lanaren banaketa.

A) *Inmanentzia:* nor bere baitan geratzea, norbera baino beste eragilerik ez izatea. Nor bere baitan geratu, kanpora irten gabe.

Osotasunetik etorri eta osotasunera joatea. Nor bere baitan jaio eta geratzea. Egintza, jaio den izakiaren baitan bertan geratzen da. *Bi egintza mota daude:* 1) *Transeunte* delakoa, igaro egiten dena; 2) *Inmanente* delakoa, geratzen dena.

Transeunte egintza ingurura igarotzen da, inguru hau nolabait aldatuta utziaz. Adibidez: Aizkolariaren egintza enborretara igarotzen da, berauek aldatuta, puskatuta uzten dituelarik. Suaren egintza egurretara igaro eta errauts bihurtzen ditu. Jatekoak hartzean, berauek odol eta haragi bihurtzen ditugu. Bizitza, ordea, ez da horrelakoa. Bizigintza inmanentea da, iraunkorra, ingurura igarotzen ez dena, norberaren baitan jaio eta geratzen dena. Adibidez: hegaztien hegaketa, umeen jolasak, landareen hazketa, gizonaren ikusmen eta entzumena. Egintza horiek ez dira ingurura igarotzen; inguru hau ikutzeke, aldatzeke geratzen da.

Bizitza txingar eta dirdira da, sortu den izakiaren baitan bertan geratzen dena.

B) *Besteekiko elkartasuna.*

Elkartasuna, adiskidetasuna, elkar-behartasuna, elkar-menpekotasuna.

Elkartasuna gizakia ulertzea da, gizaki delako, besterik gabe. Osotasun baten zatien artean antz ematea edo gizamultzo baten gizakien artean dagoen elkar-behartasuna, elkar-menpekotasuna, hain zuzen.

Bizitzaren barruan dena ondo baino hobeto lotuta dago, askatu ezin diren lokarriekin lotuta.

C) *Ingurura hartarakotzea.*

Gorputz bizidun baten atal desberdinek, giro arrotz ba-

tean aurkitzen direnean, badute giro berri hortara ohitu eta egokitzeko ahalmena, multzo osoaren onerako.

D) *Lanaren banaketa eta elkar-behartasuna.*

Atal desberdinek lan eta egite bereziak betetzen dituzte gorputz bizidunetan, beste atalentzat ere beharrezkoak eta onurazkoak direnak.

Landaretan, Pujiulak dioenez, sustraia, lurretik xurgatuz, gatz mineralak urtuta berarekin daramatzan ura, orriaren serbitzutan jartzen da. Orriaren klorofilak gatz mineralak desosatzen ditu eta beraiekin hasten da sintesis organikoa.

Baina klorofilaren egintzatik datorren sintesis organiko hau behar-beharrekoa dute, bai berau sortzen duen orriak, bai haziz doan sustraiak ere. Honela, orria, bere aldetik sustraiaren serbitzutan jarririk, ondo baino hobeto ordaitzen dio honi, berarengandik hartutako onura.

Hauxe bera gertatzen da zelula edo gorputz elementaletan. Haietan aurkituko dugu, hain zuzen, lege berbera. Zeren zelularen atal desberdinek ere zeregin desberdinek betetzen bait dituzte elkar-menpekotasunaren legeari jarraituz.

Mundu honetako arazorik garrantzitsuena *bizitza-arazoa* da. Beste arazotxo batzuei urteak eta urteak irauten duten ikasketa luzeak eskeintzen zaizkie. Muntarik handieneko gai honentzat, ordea, ez dago irakasbiderik; kaleko unibertsitatean bakarrik ikasten da, atalka eta arrastaka.

ANDREGAI IRRIKORRA

Zu izango zara niretzat
trikitrixa baino tranposagoa
bere kanta barregarriarekin;
Urruneko mendi zuria baino
sugerikorragoa;
elizeko ama birjina baino
izadizkoagoa;
garbiagoa baino beharragoa.

ZUK ESANGO DIDAZU NERI

«Har nazazu oraintxe
nire ileak oraindik
ilunak direnean;
Hartu oraintxe, nire ezpainetan
irribarrea dabilenean
oso azkar erabilitako
kanpantxo baten moduan».

Juana de Ibarburu

ZORENTXU

Hitzegin ezik, ikusi hutsez
besterik ezertxo gabe,
egin zera zu, maite laztana
nere bihotzaren jabe;
Tximist argiaz jota bezela,
begi sorgin horien mende
bihotz barru nik sugar ikara
gozo bat... ala ber ote?
Orain ez baina gaztea nintzan
garaiz izanik denbora,
ez zitzaidan lehen inoiz horlako
maizterrik sartu kolkora.
Zaude, zaude hor, ateak itxi
gehio ez irten inora;
Bihotz gaixo hau zugaz pizturik
jardun beti gora eta gora.
Galdetu eta maite nauzula
erantzun didazu benaz;
zeru eta lurra gaur bezain alai
ez zaizkit agertu lehenaz;
Sargori dagon arrats batean
izuma sortzen den eraz
nigana ere haiz eman ari
gozoa dator maiteraz.

Onaindia

AHULA NAIZ

Ahula naiz
eta desiorik garbienak
ezerezean
deuseztatzen zaizkit,
baiñan zuk
maite banauzu
eta nik
maite bazaitut,
badugu munduaren
aurkako
sendagai miragarri bat.

Muxu bat
jarriko dut
zure ezpaiñetan
eta
irriparrak
begiak
berri alaituko
ditu.

Eta mundu txar hontaz
ahaztutzean,
zearo ahaztutzean,
berpiztu egingo gera
maitasun zelaietan
argi berriari begira.

Eta eskutik
hartuaz
han aremango zaitut
lausorik gabeko
zorion bideetan
barrena.

BI MENDEON ARTEKO GIROA ETA INPRESIONISMOAREN ERAGINA

Juan San Martin

C. Monet iraultzaile

Paris-en, joan zen mendearen azkenaldera, 1874. urteko egun bat zen zehazki, pintore gazte batzuk erakusketa bitxi bat ideki zutena. Han aurkeztutako lanetariko batek egunsentiko zirrara errepresentatzen zuen: *Impression*, tituluz. Claude Monet zen lauki horren egilea. Orduan balio gutikotzat jo zen arte lan hura urtetara lapurtua izango zen eta egun inork ez daki lauki hori non denik.

Erakusketa hura arrarotzat hartu zen, baina estilo berri baten hastapena zekarren.

Talde harek, akademia arauak alde batera utziz, edo hobeto esan, lehendikako tradizioaz hautsiz, era berriak zekarzkin pinturagintzara, argi berriak kolore biziz eta perfilik apenaz markatugabeko pintzeladaz eginak; baina, hori bai, koloreen armonia taxuz ordenaturik.

Kritikorik gehienek zigorra eman zien. Horietako batek, Monet-en titulu haretan oinarriturik, izekaz, *Inpresionistak* deitu zituen, izen horrekin estilo berri bat bataiatzen zuela igarri gabe.

Zorionez, denak ez ziren uste berekoak, Durand-Ruel martxanteak beraienganako fedea zuen eta honi esker bizi ahal izateko zerbait saltzen zuten.

Gairik gehientsuenak paisajeak, argiz oparoak, eta laukiok zeramaten bizitasunagatik, «Naturalezak artea imitatzen zue-

la» zion Oskar Wilde-k. Geroxeago, era politak lortzeko moda etorri zen *Art Nouveau* (1896) baina inoiz ez zuen lortu inpresionismoak hartu zuen indarra gainditzerik eta laster suntsitu zen. Aldiz, Monet, Renoir, Sisley, Pissarro, Cézanne, Degas eta Berta Morisot-en erakusketaren eraginak berebiziko indarra eman zuen ondorengoentzat, kolore berritzez eta formaren mugikortasunez jokatuz, jarraian emango bai zituen *fauve*, espresio berria eta kubismoa.

Politena izan zen, talde hartan, bakoitzak bere era berezia gordeaz jarraitu zutela, argi berritzean eta mantxaz pintatzean bat etorriaz. Beren gurasotzat jotzen da Monet. Ez bere lauki batetik taldeak izena hartu zuelako, baizik lehenagotik eta sakonago bide horiek ikertu zituelako. Pinturagintzaren era berri hori Sena ibaiaren inguruetan 1869rako burutu xamar bai zuen, munduaren ikuspegia desmaterializatuz argiz eta lurrunezko magiaz tintatuz.

Benetako jenioa den artistak begi berriz ikusten du mundua eta era berriko moldez adierazi. Monet-ek ere eritzi berriak zekarzkin eta bilaketan ahalegindu zen. Airea pintatzea zen bere obsesiorik handiena, eta gogoz heldu zion atmosferak dituen tinte aldakorrak oihaletara eroan ahal izateko saioetan.

Paris-en jaioa zen Claude Monet, baina familiarekin haurtzaroan Le Havre-ra joana. Han, gaztetxo hasi zen pintatzen eta laster ohartu ere atmosfera lausotuaren kromatika balioaz. Geroztik horrek emango zion gogoeta gaia eta burukomina, saioen eraginaz ahaztu gabe. Bere ikerketan, egia esan, holandarren eta japondarren erak izan zuten ikustekorik, zerulurrak egitean; baina atmosferaren mikro-kolore ugariak kezkatzen zuen gizona eta horren joritasuna bere oihaletarako lortu nahiak. Ahantzi ezinezkoa da Turner-egandik ikasia. Hargatik, Monet-ek hautatu zuen Tamesis, eta Londresko ibai ertzean aurkitu zuen narotasuna: Waterloo zubia eguzki-lainotzan lausoturik agiri delarik eta Parlamentua lainopean edo lainoarteko arginabarrez. Horiek izango dira bere ikerketaren eta teknikaren adibiderik egokienak.

Argitasuna gauzetan sartzen denean, bereziki lainoarteko

argi sakabanatua, itzalak berak ere tintura bereziak eskaintzen ditu eta Naturaren fenomeno horrek erakutsi zion Monet-i itzalaren trasparentziak koloreak zituela, matizazioak elkarren artean nahasirik aurkituarren, horrela ikustera iritsi zen argidizdiren efektua. Ikustera heldu zena oihaletara eroateko teknikak izan ziren sakonki ikertuak, argi sakabanatua batasunera ekarriz, argiaren efektu berria piztuz. Hor zegoen atmosfera argiaren fantasia eta magia, lurrun teluriko batean zerulurrak elkar urtzen direnez.

Une hura izan zen XIX. mendean arteak egin zuen egiazko iraultza.

Kromatikaren armoniari poesia kutsua dario eta hala erakutsi zuen Rouen-go katedrala. Baina, artegintza burutzean, hor ditugu hain bikain pintatu zituen ninfeak, nenufarrak, zenbait kritikoren ustez, artearen historian, ninfea horiek soilik katedral batek haina balio dutenak.

Unamuno eta Euskal Herriko pinturagintza

Unamunoren idazkera beti izan zen sutsua eta kulturaren arlo guzietan kezkatua. Gaztaroko Unamuno, liberal eta foruzaleak, hogetabost urte baizik ez zituen Alcalá de Henares-tik 1889. urteko uztailean *El Noticiero Bilbaíno*-ra gutun gisako artikulu haiek igorri zituenean. Gogoeta gai, pintoreentzat Gaztelaniak haina aukera eskaintzen zuela Bizkaiak, gure paisaje, kolore eta argiz. Baina bereziki, argiak. Gutun haiek Juan Jose Lekandari eskainiak ziren eta Euskal Herriaganako maitasun suharrez beterik zetozten.

Oroi Bilboko Ronda kalean, Migel Unamuno bizi zen etxe berean zuela dibujo eta pintura akademia Antonio Maria Lekuona tolosarrak, eta han ezagutu zituela, besteak beste, Adolfo Guiard, Anselmo Guinea eta Pako Durrio, eta horien bidez Darío de Regoyos asturiarra, Unamunok zionez bere aberria hemen aurkitu zuen artista.

Ez ziren lagun txarrak sorkuntzazko arteak berakin dakarren nahitaezko eraberritzeaz jabetzeko. Baina Unamuno ez

zen ohartu horien eraginetik laster piztuko zen mugimenduaz. Hala ere, mugimendu hori opa zuen, eta neurri batean espero zuen, bere idazlanak erakusten digutenez. Baina bere burua arte klasikora hertsiegi zuen eta laudoriorik handienak Zuloagari eskainiko zizkion.

Bere gaztaroko lagun haien artean ez zuen ikusten eibartar pintorearenaren hainako baliorik. Eta harritzekoa ere bada hemengo argiaz hain kezkaturik zegoen batentzat.

Hainbeste larritzen zuen argiaz gauza bat zeukan garbi: «¡Mi país, mi país verde, húmedo, graso, pletórico de sangre, linfático! Me parece estar viendo los cuadritos de Teniers». Eta erarik estoikoenean aditzera emango zuen, gure gazterik bazenez herbesteetan ikasten hemen lana egiteko, bere itxaropen osoa jartzen zuela horiengan, eta kanpoan ofizioa hartu ondoren egiazko ikasketak hemen bertan egitekoak zirela; zientziak ez omen du aberririk, baina bai arteak.

Gure izakera kontutan hartzen duelarik, bere ustez, Iparragirreren laztasun zakarra, Bilintxen grazia eztitsua, Durangoko zilarginen lilluratasuna beti izango dira gustagarri; aldiz, ez dira hain ondo ikusiko ahaleginduz txukun aurkeztuarren kondaira loguragarri eta aspergarriak, hauek gure gogoarekin bat ez datozenez.

Baina, esan bezala, Unamunoren zalantzak eta larritasuna gure zeruaren argiarekikoak ziren. Gure argi aldakorra, une batetik bestera gora-behera lasterrez, hainbeste berde eta urdin aldakor, heuren matiz bereziekin. Gaztelanian eguzkiaren indarrak jaten zituen koloreak eta horregatik iduritzen zitzaion gure argia aberatsago, baina era berean ondo interpretatzeko zailagoa.

Unamuno jaio orduko hila zen Turner, baina apenaz zuen artista inglesaren berririk. Gainera, hamalau urte igaroak ziren Claude Monet-ek eguzkiaren irteraz plasmatu zuen inpresioa agertu zenetik (1874), era berri bati izena emango ziona: Inpresionismoa. Baina ez orduan eta ez geroago, ez zen ohartu estilo berri bat sortu zela Europako artean.

Atlantiko parte honetan, *Gulf-Stream*-ren eraginez, gure itsas-hegaleko argiaren aldakortasunean zeru lausotuaren kromatikak kolore bereziak eskaintzen ditu. Hori ikusteko eta interpretatzeko eraz jokatu zuen Turner-ek, eta inpresionismoaren guraso zen Monet, horren atzetik, bila abiatu zen La Havre aldera lehenik eta Holandara gero. Handik Londresera joatean aurkitu zuen naro Tamesis ibaiaren inguruetan. Orduan heldu zen atmosferaren kromatika lantzera, zeruaren antzera oihalak jartzeko. Pintura argiagotu zen eta jarraitzailerik aski izan zuen Parisen une bakoitzeko argia oihaletara eroan nahirik. Lausotasunik gabeak ere, trasparentzian zeramaten plastikaren argi berria.

Mendearen bukaeratik goraka zekarren euskal pinturak Paristik ikasia. Atmosfera lausotuaren barruan argiarekin jokatuz lehen aldiz hasiko zena A. Guiard izan zen, bereziki Desierto-Erandio tarte hortan ibai ingurua pintatzean. Gero baziren era horretan gehiago sakondu zirenak. Hemen denak ezin aipa eta B. Barrueta gogoratzea aski zaigu; eta oraingo, beste era bateko trazuz, B. Bienabe Artiak landua.

Gainerakoak, inpresionistak eta postinpresionistak libertate osoaz jokatu izan dute argi-koloreen kontzeptu berrietatik, bakoitzak bere sigilua gordeaz, eta euskal pinturaren eskolak lan eder eta ugari eman zuen.

Baina, Migel Unamuno, ez orduan eta ez gero, ez zen jabetu hortaz. Darío de Regoyos eta Adolfo Guiard-i buruz artikulu interesgarriak idatzi zituen 1913 eta 1918an, eta argitaragabeko eskuizkribuen artean Franzisko Iturrinori buruzkoa utzi zuen. Baina guziak artista horien gizatasuna goretsiz, eta bat bera ere ez beraien obraren aburuz. Iturrinoren *fauve* zer zen eta Matisse nor zen jakin gabe, klasikotasunari jarraiki, Zuloaga zuen bere begietako euskal pintorea. Maita eta aipa zituen R. Zubiaurre, J. Etxebarria, M. Losada eta beste, baina inoiz ez zituen ulertu artista bezala. Hainbeste opa zuen pintore mugimendua iritsi zen, baina Unamuno ez zen gai izan emaitza hura ulertzeko.

IN MEMORIAM

PERPETUA SARAGUETA

(1905-1986)

J. M. Satrustegi

Eultziko eguna beste askotan bezala, gari lastoz urreztaturik Mezkirizko larrainak, eta hautsa ugari herri inguruan. Ahotz urrin goxoa, bestalde, goizaldeko ipar-haize eme ernagarrian. 1905.eko abuztuaren hirua kondakizunaren hari muturrean.

«Mezkiritz eta Olondriz, ogi guti eta ume anitz», esan ohi zuten zaharrek. Horregatik edo, istilu haundiak zituen galbikorrak eta estimu gutxi ahotzak.

Egun horretan bazen beste berririk ahotan. Aurizperrin belarretan ari zen tokian jakinerazi zioten Harakiñeineko nagusi gazteari erdiminekin zela bere emaztea.

Lehen haurra izanki, «belarra belar eta andrea lehenik», erabaki zuen gizonak eta etxera itzuli.

—Nola dago nere andrea? galdetzen dio amatxiri.

—Erdi da zorionez, erantzun zion berehala.

—Nexkakoa edo mutikoa?

—Nexkakoa.

—Ba!! ihardetsi omen zion nahigabez gizonak. «Zaku bat agotz!»

Hara Perpetua Saraguetaren estimua mundura etorri zenean.

Biziak gazterik erakutsi zizkion Perpetuari beharraren hortz zorrotzak. Zoritxarreko gertakizun ilun baten ondorioz, ezindurik egon zen aita denbora luzean eta nekez bezain urri zetorren etxera eguneroko ogia. Alaba zaharrena zen, noski egoera larriaz senideetan hobekienik jabetzen zena, eta sei urte zituela aitarekin izandako elkarrizketa hau jaso zuen bere izkribuetan:

—«Ni juan nindeike astoakin mendira, juan eta nork kargaturik banu han. Orduen, zuk gosaltzen duzun denboran ekarri nezake egurra».

Eta aitak erran zire:

—«Beharrak kargatuko dizu; zazi trankil, ikusiko duzu zein ongi etortzen zaren».

Hala juan nitze asto gañan. Nik zautze nue mendia eta, neure aitak manatu bezala, juan nitze lasaitasunez betea.

Juan mendira eta astoa bera paratu ze egur metain ondoan. Jautsi nitze ederki, ekendu nitio sokak eta egon nitze ixtenpat ia etortzen zen beharra, baño nior etze heldu. Orduen hasi nitze beharrai deitzen, baño beharra etzela ageri. Ia aspertuxia etzelakoz nior ageri, hasi nitze egurrak paratzen zamuketan, eta ongi arront, fardelkerik gabe, arront hortan nindegoken bezala; eta gañera egur anitz paratu nio.

Soka nola paratu? Lehen bezala nindego hastean, baño negarrik egin gabe. Hasi nitze alde batera eta bertzera; baño azkenian erdietsi nue, eta etxera. Ederki juan ze astoa; etzitzego egurrik erori. Etxeko atarien zeude aita, ama eta amatxi, ia noiz agertzen nintzen:

Neure aitari ikusi orduko, erran nio:

—Aita, ez da nior etorri astoain kargatzera.

Eta aitak: —Nola egin duzu?

Nik:— Nola!!? Beharko nue...!

Aitak:— Hori da beharra.

Neure haurtasunean, erran nio:

—Hori ez da egiten!, gaizki egina da.

Aitain aitak ere gauza bera egin ziola berai, erraten zue. Nere aitak deitu zio beharrari Sakarteko oihanean, eta nik Irikoian eta Turtziperako artean. Irrigarria, baño egia da.

Nere aita etze egundaño gehiago astoarekin egur eske juan. Zertarako? Bazue alaba eta ekarriko zue».

Pasartea bere gordintasunean ez da behin-behineko gertakizun soil bat. Aitaren esperientziarekin lotzen du alabak eta, besterik gabe, honen bizia markatzen duen ezaugarria da. Emakume azkarra eta zuhurra gertatu bada, nahigabeen sutegian eta lanaren txingurean landurik zegoen bere nortasuna.

Aitak bere burua poliki ikusi bezain laster, egur lantegiak bere kontura hartuz, ikazkintzari ekin zion. Aizkora eta txondorren berri hobeki zekien geroztik Perpetuak eskolako liburuena baino. Izan ere ez zegoen herrian maisurik eta apaizari esker ikasi zuen leitzen eta idazten, irakurketak eman ziolarik beste gainerakoa. Mendiko lanbidea ez zen, hala ere, bere nortasuna zaintzeko heziketarik egokiena. Egia da, bere gogortasunean ogia zekarkiola etxera, *primum vivere*, eta bizitzeaz kontent ziren etxean. Zoritxarrez ez zien denbora luzean iraungo. Sei, zortzi eta, behin edo beste, hamar txondorretaraino berotzen zuten denbora berean, aitak leher-zapart egin zuen arte. Hala omen ziren mezkiriztarrak; *Japonesak* deitzen zieten neurri gabeko langileak zirelakoz. Eta gailurrean txondorrari su ematen ari zen batez gertatu zen istripua, bere alabaren aurrean. «Hautsi zitue bi besoak, bi tokitatik. Hori egin zuenian izantze arroitu bat hain haundia, nik uste nue endaia kiderra hautsi zela. Berak ere kiderrai begiratu zue; baño gelditu ze erranez, ez da kiderra».

Berrogeita bat urte zituen orduan bere aitak eta apurketa horretatik ez zen inoiz ongi jarriko.

Emakume trebe eta azkarra eguneroko biziaren borroka latzean egin zen, bere izerdiz ahora ogia eramanez.

Idazlea

Harrigarria badirudi ere norbaiten goratzarre hitzak zoritxarreko aipamen ilunekin hastea, ez da inola ere bere desohoragarri. Egiari zor zaio berea eta esandakoak ez dira gurutzebide luze baten lehen adibideak baizik. Inguru egoskaitz horren barruan bakarrik hartzen du, hain zuzen ere, Perpetua Saraguetaren izenak eta izanak bere biziko ikuspegirik eredugarriena. Nahigabeen kopeta beltza izan da emakume honen izpiritu alai eta argia ilundu ez zuen bidelagun beldurgarria. Basamortuko zurrunbilo eta ekaitz gogor guzien erasoek ez zioten bere bihotzeko amets politen hegorik inoiz hondatu, indar berriz astindu, lurretik jaso eta zeru urdin itxaropentsuetara bultzatu baizik.

Eta idazle bilakatu zen.

Ez zen, noski, berezko erabakia izan. Pertsona bakoitzaren bidean bada gertakizun xumeren bat edo beste uste gabeko oihartzuna sor dezakeena, teila gorriak erortzean jotako ezkilak sortutako zarataren antzera. Bere amatxi zenaren heriotz urte mugako mezaren iragarkia eraman zuen behin Iruñeko «La Voz de Navarra» egunkarira. Ez zitzaion gaizki iduritu bertan zegoen norbaiti eta, ea zergatik ez zituen herriko berriak igortzen, esan omen zion neskatillari.

—«Nik!? —erantzun zion berak. Nik ez dakit deus ere. Hamar urtetarainoko eskola bakarrik dut; ez dut geagokorik eta ez da posible...»

Mezkirizko alaba ez zen ezezkoari errez makurtzeko umea eta kezka eraginkor berri batekin itzuli zen etxera.

Osasunez ez zebilen ongi une horretan eta gaitzak bortizki jo zuen batez ezagutu zuen Doxandabaratz, Iruñeko sendagile abertzalea. Ez zegokeen askoren baitan lumarekiko lotura lortzea, Jaun ospetsuak aburu hau eman zioelarik:

—«Adiskide onak izango dituzu bazterretan...»

Eta besterik gabe abiatu zen orduan. Gaztelaniaz idazten zituen lehenik bere albisteak, eta urteren batez honela aritu

"Itz aurre"

-tzukal erran; bai ote da inder gabeko Emakumeik?

Neure idatzi eleiza izen ori ematen diotet.

Baño galdera ori ez dut gorputzeko indartasunari gañera egiten. ez; Nere galdera da animaren indartasunaz. Orai artio ez zitzarde gogoratu ziako galdera ik, baño egun eletan, aintzke emakume igaro dire nere bizi-ruan, dinak indartasun sundiko ak, ala batre ikartasun gabekoak, eta berze batzuk irakarle sundiak eta ikasle zaindaria ere bai... Zetzuk euskaldun erri otan etorri da alako [illegible] emakume gizenetan? Lurdun emakume eliza-tiarekin nola [illegible]

Indartasuna [illegible] andik eldu zaigu; eta baño ez da Bata[illegible] arki Nik uste dut guk ere zerbait egi[illegible]eko, eta gorputz-sum sundiz[illegible], bai eta ere garbitasun a[illegible] otoitz egitea... ik batean ontzat[illegible]ak, baño geago ere gorputzekoa[illegible]eraera bat-ematen duena: "ze[illegible]n bedigute". eta maitatzen[illegible] maite duenak sarridiak ere m[illegible]dire. Eta dot sandiak nere u[illegible] errian gure al--tzinekoek eram zu[illegible] eta ongi artu zuela emakume gurietan e[illegible]. Sinesmen arkana ikaropen negurri gabe[illegible] Orrengatik da aintzke indar Euskal errieko x[illegible]ik ez Leguiken Nafa-rroketa eukal errietik [illegible] eta ez gizonik ortarako ez nair kanpora atera[illegible] beretan beda arki Nirikosta zarde au[illegible]

1986

Gertaera eletan id[illegible]eko batzuek esaten dute beren emena beren bataioko izena eta aizenak [illegible]eko, eskerrak emoten diotet. B[illegible] gizenei ez dairet eskerr--ik dembora eskas d[illegible]lakor aferá oletako. Eta eleizen [illegible]a badaiket ez da berena. Bat bada B[illegible] dut eraguiten baño er[illegible] Bizkaiko emakumeen Nafarroketan zela eta Sagarti beltza zuela aizena eman dire. Gerenak Naparroiak dire, Euskeren minko den errietatik eta denek maite zute euskera biok gustik. Errosario-ren errietakoak. Baztangoak ziago, Amaian aldetik, Olaque aldetik... Irurio ko ak... Amerikara juan eta etorri ez direnak... Andik zenbat juan direnak... Zenbat ikas-guni utzi dizulinak... Nik uzuik ikes dut eleen gendik eta beren bizitzik zuzko



Perpetua Saragüeta Saragüeta

Trinidad Urtasun-en alarguntsa

Bizia emanez eta denak maitatuz
bizitu zinen gure artean.

Bere seme-alaba, Mirentxu eta Luis, Rosa Mari, M.ª Inmaculada eta Karmelo, M.ª Lourdes eta Txomin, Maite eta Jesus Alfonso, M.ª Gemma eta Pedro; iloba eta bilobak; anai-arreba, Eugenia, Julia, Jose Maria eta Luis Maria; ezkon-anaiarreba, lehengusu eta beste jendakiak.

Denek bihotzez eskerrak ematen dizkizugu, guretzat pake, barkamen, maitasun, elkartasun, itxaropen, sinesmen eta pozaren emaile izan zaitugulako.

Eskerrak ere lagundu gaituzuenei.

Irunea, 1986ko martxoaren 26an

ondoren ekin zion euskaraz idazteari. Adinak eta heldutasunak bakarrik eman dezakeen zuhurtasunarekin, honela esan zidan behin inolako harrokeriarik gabe:

—Ni atrebitu txar bat nitze nonbait, bertzenaz ez dakit nola menturatu nintzen hain eskola gutxikin... Eskatu zirete eta ez nue buruan pasatu gaizki egine izain zela».

Ausardiaren izar ona. *Audaces fortuna juvat* esaten zuten eskola zaharreko jakintsuek.

Lau argitalpenetan haizatzen zituen bere herriko albisteak: «Bi egunerokotan eta bi asterokotan idazten nue asteoro, dio berak, eta han ateratzen zire ezkondu zirenak, sortu berriak, hil zirenak, hala nola mota guzitako berriak eta bertze gauza geago».

Noizbait entzun nionez, *El Pensamiento Navarro* zen bigarren egunkaria eta erdaraz idazten zuen karlisten periodiko hartan. Euskarazkoak Donostiako *Argia* eta Baionako *Euskalduna* astekarietan agertu ziren.

Gogokoa gertatu zitzaion joku berria eta igande arratsaldetan bere adineko neska-mutilak ijili-ajala plazan dantzan edota errepidea pasealekutzat harturik joan-etorrika jolasten ziren bitartean, Txorrondoko barne isil baketsu batean sartuta bizi latzak ezarritako hesi estuak apurtzen ahalegintzen zen idazle gaztea. Euskal Herriko mendi guzien gainetik hegan zebilen bere izpiritua bihotzak eskatzen zion askatasun zabalaren bila. «Nik maite nue gauza ebek egitea, aitortzen du xalo-xaloa. Nik orduen ikesi nue anitz hitz berri euskaraz eta haur-haurretik ikasiak bezala hitzegiten nue berekin». Euskalkien arazoaz jabeturik batuaren aintzindari bihurtu zen.

Idaztea, handik aurrera, ez zen albiste batzuren adierazpen hutsa emakume honentzat. Belarrietara heldutako gertaerak aitzakitzat harturik, utzi-ezina gertatu zitzaion lumarekiko lotura polita. Halako batean, badoa Arizkuna ahaideen etxera, eta Baztango berriekin jarraituko du hasitako lana. Nor bera joaten zitzaiola bere berriekin, esango zuen gero, eta amak Mezkiriztik igortzen zizkion hango gertaera guziak.

Idazlearen harra sartua zuen barnean. Eta ez zion ofizioak irabazi haundirik ematen, noski: «deus hartu gabe, periodikua bakarrik». Nere galdera oso arrunta da: Euskal Herriko zenbat etxetan sartzen ote ziren bi egunkari eta beste bi astekari gerra aurrean? Eskolak eman ezin zion informazio eta jakintza maila lortu zuen herriaren aurrean.

Baina ez zen hori beretzat lorpenik estimagarriena. Ezaguna zen, nortasun bat ematen zion jendearen begien aurrean eta adiskide asko —batez ere hau errepikatu ohi zuen berak—, adiskide asko zuen inguruan.

Haserrerik ere sortu zuen, noski, behin edo beste. Mezkirizko hilarrietatik hezurrak ateratzen omen zituztela zakurrek, esan zion norbaitek. Joan eta bere begiz ikusi zuen pareta erdi eroria, han hemenka zuloak eginik eta hezurrak bistan. Hori izan omen zen hurrengo albistea: lotsagarria zela ikusi zuena, euren aintzinekoak zirela han ehortziak eta, Jainkoaren izenean, erremediatzeko hura lehenbaitlehen.

Bere aferetan sartzeko esan izan behar zion norbaitek; ez zela hori gauzak esateko modua. Baina horma jaso zuten eta hori zen bere helburua.

Bost urtez bete zuen kazetaritzako eginkizun hau, hogeita hamaseiko gerrateak euskal gaien mezulariei ezpainak josi arte. Beste amets askoren antzera, bertan hautsirik gelditu ziren emakume honenak. Denbora hartako lanetan nekez aurki daiteke bere aipamenik: «Txorrondo» bere auzoaren izena, «Aritz» inguruko zuhaitz nagusiarena, eta «Mendigibel» atsegin zitzaion toki-izena, gertatu ziren egilearen estalki, mezkiriztarraren adierazgarri eta izenorde.

Bertsolari etxea

Guerra denborako Perpetuaren isilaldia bertso giroak bete zuen sukalde txokoan. Baztango egonaldian ezagutu zuen Iruritako Trini Urtasun, Beltraneko seme bertsolaria. Ogi banatzen zebilela aurkitu zuen erosle berria eta bota zion lehen bertsoa.

—«*Neska; hurrunera eltzeak urrezkoak ditun, allegatu eta lurrezkoak*», esan zion herri-filosofia zaharreko hitz zuhurrekin aitak, berria jakin bezain laster. Une horretan ez zen begi onez ikusten herriko alabak kanpotarrekin ezkontzea.

Bizi legez edo hala beharrez, 1931ko uztailaren 22an uztartu ziren aldare aurrean euskal letrekin lotuak ziren gazte hauek. Festa giro alaia ekarri zuten Mezkirizko karrikara, senargaia laguntzera Baztandik etorritako Olaetxea anaia txistulariek. Elizkizunaz landa, Auñamendiko Amari loreak eskaintzera joan ziren ezkonberriak Orreagara.

Gertakari polita kondatzen du gero P. Saraguetak bere Oroimenetan. Orreagatik itzultzean, hain zuzen, non esaten dion amak ehun kiloko zaku irina ekarri zutela artean etxera. «Eman diot bortz egun pezetakoa eta etzue itzultzekorik. Orduan ez nue bertzerik eta zure senarrak utzi dituen hiruetan hogeita bortz peztak eman dizkiot.»

—«Bai!? —erantzun zion hitzetik hortzera alabak. Ongi dago; oso ongi: *agotza irine egin da.*»

Bere biziko arantza atera zuen horrela bihotzetik etxeko andere gazteak bizitza berrian sartzean.

Urtasunen bertsoa bizia omen zen, hitz joku irrigarrietan oinarritua. Ahalmen osoan ezagutu zutenek esaten dutenez, euskara eta erdara txandatuz egindako bertsoak omen ziren jakingarrienak, gatz eta ozpin mikatzaren pizgarriarekin. Lan hauek gehienak galdu dira. Antonio Zavalak dozena erdi bat jaso ditu «*Bidasoa aldeko bost bertsolari*» izeneko liburuan (Auspoa 97). Perpetuak dioenez, mingarriak gerta zaitezkeen horietako asko eta bera arduratzen zen erretzez. Herriko neskatoekin sartzen zenean, batez ere, ea nahiko lukeen bere alabekin norbait horrela sartzea, gogorazten zion emazteak.

Bertsoa-bertso, festa ez zen beste zerbait ere gertatu zitzaion euskaltzaletasuna gatik Urtasun-Saragueta familiari. Euskaldun agertzea Nafarroan arrisku haundiko gauza zen. «Io zute bide edo hiru aldiz bertsolaria zelakoz», aitortzen du Perpetuak. Hona hitzez-hitz berak idatzitako pasarte bat:

«Bein batez Erratzun aigine ogi saltzen. Iru gizonek gelditu zigute, eta galdetu zakote nere senarrari:

—Zu zera Trinidad Urtasun?

—Bai, jauna, hala naiz.

—Zu zera «nacionalista»? (dena erderaz).

—Bai jauna, hala naiz.

—Eta zuk zer uste duzu horrekin?

—«Joño!! *Amar al nación!!*» (Baño motela bezela).

Eta orduan erran zio batak bertzeari:

—Burgostik iortzen digute hala gizonak hartzera?

Hala juan gine etxera afera guziak egin ondoan. Halako koropilo ederrak berexi ditugu, baño nere senarra arront gaizki jartzen ze... berrogei egun seurik egon ze leihoak hertzirik, argi pixkat sartu gabe bere gelan.»

Baztanen zuen lanbidea galduta emaztearen herrira itzuli zen familia. Ez zuten horrekin arriskua baztertu; joaten ziren tokira jarraitzen zien salaketak eta bekaizkeriak. Halako batez, gizonaren bila joan ziren etxera hiltzaileak. Herriko apaizak aurpegia eman zuen, eraman behar ba zuten bere porgutzaren gainetik iragan beharko zutela esanez.

Gora-behera hauekin gizonak osasuna galdu zuen, alde batetik, eta zerbait egin nahi izanagatik ez zioten inon lanik ematen, bestetik. Perpetuaren gain zegoen, beraz, sei alaba eta senarrari ogi mutur bat ahora ematea. Idazlearen amets guziek jo zuten bai jo, lurra, eta lumaren ordez orratza hari luzearekin harturik ekin zion oihal bordatzeari, gauak eta egunak adoretsu elkarri josiz. Osasunez ez hain azkarra izanik, izpiritutik zituen indarrak miresgarriki lortzen.

Lauetan hogei urte bete aurretik ezagutu nuen nik Urtasun bertsolaria. Hitza zuen moteltzen hasia ezpainetan, besoak geldi eta hankak nagi lurraren gainean; baina betiko bertsolari zirtadak bere hitz bakarretan.

—Zer diozu, Trini?

—Hemen nago ni, ezin bizi eta ezin fini —esan zidan behin, ikustera joaten hasi berri hartan. «Hil altzineko gaitzaikin» igaro zituen hainbat urte umore onean, 1978ko uztailaren 29an munduko neke guziak utzita negarrik gabeko bidea hartu zuen arte.

Neguko azken orriak

Familia hazirik eta eguneroko ogiak ikasi ziolarik bere bidez etortzen etxera, lumarekiko borrokara itzuli zen Perpetua, pozaren pozez, azken urteetan. «Hala nola negua doaien udaberrira, nere biziko neguan egin behar dut ahal guzia hurbiltzeagatik nere biziko udaberrira», zioen berak bizi nahiaren eraginarekin.

«Egia da beti banuela —eta anitz denbora du— nere bihotzean nahi bizi bat aspaldien agertue, idazteko nere oroimenak... Eta hala nola udaberrian betetzen diren lorez aldaska berri guziak, hala nere biziko oroimen guziak atera dezatela lore mota guzietatik neure idaztietan.»

Bere bizian zehar zubi bat eginez, gazte denborako amets ederretara itzuli zen azkenean, bizi luze bateko esperientzia aberatsari zerion hitz paketsua isuriz paperean. FLV, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, Eusko Folklore* delako *urtekarian* eta *Egan* aldizkari honetan bertan joan dira ateratzen bilduma horretako zenbait atal; baina argitaragabeko beste lanik ere badu bazterretan.

Nere kantu apal hau ez da hemen itzal haundiko zuhaitz sendo eta mardulen adarretan jauzi ikusgarrien dantza egiten duen katagorri zauliarena, oihaneko lur apalean lorez-lore eztia xurgatu eta erlauntzara neguko hazkurria biltzen duen erle xumearena baizik.

Perpetua Saragueta zenaren aipamen berezirik egin behar banu, gaurko joera aurrerakoien aintzindari bezala azpimarra nezake. Emakumearen eskubideak zaintzea zuen aburu mami-

tuenetakoa, mende honen hasieran sortutako emazteki batengan sineskaitza badirudi ere. Horrela, maisurik gabeko herri txiki batean izandako lehen letren urratsekin soil-soilik abiatuz, bere kasa urratu zuen idazten hasteko bidea. Eta besterik gabe, Nafarroan emakumezko lehen euskal idazlea gertatu da.

Emakume bezala bide berriak irekitzeko grina arlo guzietan agertzen du. Adibidez, autoa gidatzeko baimena lortu zuen bigarren emakumea, bera genuen Nafarroan, Baztango bide bihurrietan ogiaren furgoitxoa herriz-herri eramateko gaizela agertuz.

Barne muinetan ala bihotzean sartua zuela emakumearen nortasuna eta izen ona plazaratzen joateko kezka, esaterik ez dago. Berak ezaguturiko euskal emakume eredugarrien aipamena idatzi zuen, besteak beste. Esanguratsuak dira bilduma horren hitzaurrean ezarritako lerro hauek: «Emakume fierrak ezagutu ditut neure 77 urtetan eta ahal guzia egin nahi dut altzina ere. Zuk nahi baduzu nerekin ezagutu multzu bat eremanen (zaitut) neurekin herriz-herri eta etxez-etxe; zer edertasuna duen gure Euskal Herri maiteak! Berdin Nafarroan nola Bizkaian, Araban nola Gipuzkoan. Euskal Herri guzian. Uste dut merezi duela.»

1983an idatzi zituen berrogeita bi emakumeren aipamen hauek eta berehala eman zizkidan bere azken borondatea bezala, ordura arte bildutako lanen gehigarri. Berehala hasi zen ahalmenak galtzen eta apaltzen azken eritasun garaitu-ezinaren inarrosiaz.

Asteazken Santu egunean, *Egan-en* bere ipuiak tinta bustiaren jantzi beltzez plazaratzen ziren bitartean, abiatu zen sinesmen haundiko emakumea bere biziko pazko nagusira, 1986ko martxoaren 26an.

Ahotz zaku hura urre bihurtu zela munduan, esango zion besarkatuz bere aitak.

Et lux perpetua luceat ei. Betiko argiak argi egin biezaio.

ARESTI ZENAREN "MUNDU MUNDUAN" ETA LAN ARGITARAGABEAK

J. S. M.

Igazko *Egan*-en 5-6 zenbakian eman genion hasera Gabriel Aresti zenaren zenbait lan argitaragabe publikatzeari. Ordutik zenbaki guztietan eman dugu zerbait, bai hizlaxoz eta bai hizneurtuz, eta oraingo honetan dator orainarte aurkitu dituguneN amaiera.

Azken lau urteotan, «Antolojia laburra» argitaratu genuenetik (ikus *Egan*, 1982ko alea, 13-49 orrialdeak eta ohar eraskina 50-57.etan), G. Arestiren zenbait sorketa lan, itzulpen eta ohar eman ditugu aldizkari honetan gure poeta zenaren aberastasuna agerrerazteko ez ezik berrikuspegi baterako lagungarri direnak. Eta uste dugu denbora heldu dela bere lan bilduen irakurketa, gehiengoan berrirakurketa baldin bada ere, orokorki eta urrutiagotik harturik berrikustapenak agertzeko.

Egan-en argitara genuen «Antolojia laburra» behar beharrezkoa zaio bere lanak aztertu nahi dituenari, eta horren ondotik emandako lan argitaragabeak ere aintzat hartzekoak dira.

Bestalde, itzulpen kontuan, lehenago herbestean lau eta bost hizkuntzetan argitaratu ziren liburu haietatik gure artean zabalkunderik gabe gelditu zirenak, poeta itzultzailea hil zen garaian argitaratuak zirenez, F. García Lorca-ren *Sei poema galego* eta V. Paz-Andrade-ren *Uma-oncitic negarra*, *Egan*-en bildu genituen 1983 eta 1985.ean. Baina, behar duenak, poesia itzulpenen agiri zehatzak Euskaltzaindiaren *Euskera* ager-

karian eman nituen (ikus, *Euskera*, XXX, 1985. urtekoan 535-589 orrialdeak).

Beraz, gure poetari buruz lan egin nahi duenak horiek haintzat hartu beharko ditu.

Aipatuak aipatu, orain beste zerbait ere gaineratzea iduritu zaigu, «Mundu munduan» lanari egileak erantsi zion «Oharra».

Zentsuragatik edo nik ez dakit zergatik, inoiz argitaragabea. Eta Arestiren lanak aztertzen ari den Aurelia Arkotxarekin bat nator «Oharra» behar beharrezkotzat jotzean «Mundu munduan»-en muina ezagutzerik nahi bada. Aurkezten diren pertsonaien baliozko ordezkoak zeintzuk ziren historian eta Testamentu Zaharreko pasarte eta mitoetatik jokalarietara, lehena eta oraina barne, ulertzeko bide bakarra deritzagu. Hor dago gaien gakoa edo giltzia, nor nori ari den jakitzean. Egilearen intentzioa erakusten bai dugu, eta berak sortu zuen mundua ideki.

«Mundu munduan» *Egan*-en argitaratu zen lehen aldiz, duela hogetabat urte (1965ean) eta hogei urtera berargitaratu (1985) Erein argitaletxeak Karmelo Landaren hitzaurrez. Lastima liburuari berari ez ezartzea «Oharra». Zeren, obraren mezua, mezurik baldin bada, «Oharra» delako honetan datza.

Orainarte non egon den? Hara hemen argibidea: egileak, bizi zela, kopia osoa igorri zidan —hobeto esan, lan hori Agora sarira aurkeztu ondorean— eta heriotza ondotik, beragandik jasotako paperak, ahal nituenak edo gorde nituenak, bildu eta Euskaltzaindiko agiritegira eman nituen han edonork aztertzeko aukeran jarriko ziren ustean. 1982. urtean izan zen, paperetatik «Antolojia laburra»ri kopia bat egin eta hau oharrez *Egan*-era eman nuenean.

Orain, ongi deritzagu «Oharra» delako hau lan argitaragabeekin batera agertzea, eta hara hor hitzez-hitz, zegoen bezala.

OHARRA:

Irakurleak eztezan atentziorik gal, orain banan-bana aipatuko ditugu nobela honetan mintzatzen diren *solastariak:*

Joko Arriskutsuak kapituluan:

Bost haurrak:

Miramamolin, Kordobako kalifa (Petri Motz).
Fatima (Joana Mendia), eta
Zoraida (Teresa Urresti), haren emazteak.
Antxo Nagusia Nafarroako erregea (Josepe Zufia)
Iruineko borreroa (Eztebe Mendia).

Pederasta erren bat.

Zerutik Sua eroriko da kapituluan:

Josepe Zufia, taferna bateko jabearen semea.
Teresa Urresti, haren maitalea eta tafernako neskamea.
Hernando Zenarro, tafernako morroia.

Famili-biltzarra kapituluan:

Josepe Zufia.
Eztebe Mendia apaiza, haren kuinatua.
Andere Zufia, Joseperen aita eta tafernako jabea.
Katalin, haren emaztea eta Joseperen ama.
Neskame bat.

Holofernesik gabeko Judit kapituluan:

Hernando Zenarro.
Tereza Urresti.
Bazkoare Arrona, etxola bateko jabea.
Eneko, haren semea.
Haur jaio berria.
Arratoia.

Nebarrebartean kapituluan:

Eztebe Mendia.
Joana Mendia, haren arreba eta Joseperen emaztea.

Bihurrerarik eztuen ordua kapituluan:

Hernando Zenarro.
Tereza Urresti.
Josepe Zufia.
Bazkoare Arrona.
Eneko Arrona.
Ruiztegi polizia.
Donostiako soldado bat.

Kontuak guztiok pagatu behar ditugu kapituluan:

Josepe Zufia.
Eztebe Mendia.
Paulo Amantegi pederasta kondenatua.
Petri Motzen espiritua.

karian eman nituen (ikus, *Euskera*, XXX, 1985, urtekaria, 589 orrialdeak).

Beraz, gure poetari buruz lan egin nam duetak horiek hamtzat hartu beharko ditu.

Aipatuak aipatu, «Mundu munduan» *Egan*-en argitaratu zen lehen aldiz, «Oharra» dela hogetabat urte (1965ean), eta Euskaltzaindiko agiritegira eman nituen (1985) Erein argitaletxeak Karmelo Landaren hitzaurrea. Lehen tima liburuari berari ez ezartzea «Oharra». Zeren, obrazko ezua, mezurik baldin bada, «Oharra» dela hogetabat urte.

Orainarte nonbaitan, «Oharra» dela hogetabat urte, bizi zela, kopia osoa igorri zidan, bahuna ezaik lan hori. Agora sarira aurkeztu ondorean— eta heriotza Urresti. Jaidik jasotako paperak, ahal nituenak edo gorde nituenak, aldu eta Euskaltzaindiko agiritegira eman nituen. Ezaik aztertzeko aukeran jarriko ziren ustean. 1962. urtekaria, paperetatik «Antolojia laburra»ri kopia bat. Ezaik Arrez *Egan*-era eman nituen.

Orain, ongi deritzagu «Oharra» delako ben lanak ezaik beekin batera agertzea, eta hara bor nituen.

OLERKIÄK



OLERKIAK

CHRISTMAK

Bitoriano Gandiaga

XXVI



GABON, BELEN; BELEN, GABON:
JAINKOA EGIN DA GIZON,
JAINKOA EGIN DA GIZON,
GIZONA GIZABIDEAN
KONPROMETITUZ TXIT SAKON.

1. Gizona zabal bizi da
zabala dugun munduan,
bizi ahal duen moduan.

Gizona gaizki bizi da
gure mundu obreruan:
jende asko da paruan.

Laguntza faltan gizona
«nivel de vîda» karuan,
ailegau ezin klaruan.

2. Luzeak gara dotrinan
lar luzeak endreduan,
motx samarrak anparuan.

Gizona atendituta
dago gure partiduan
kanpaina egin orduan.

Ganora bako moduan
gizona dabil jokuan
gure mundu saltseruan.

3. Sozial demokrazia
dio, dios, aingeruak,
komunismoa saguak.

Gizona dio elizak,
gizonari estaduak;
asko dira adabuak.

Gizajo gizona, gizon
egiten du enpleguak,
desgizon desenpleguak.

86. abendua

XXVII



DESAGERTU BIRTUTE
EDERRAK HAN BAIT DIRA,
IKUS DEZAGUN BELEN;
GAGOZKION BEGIRA.

1. —Ikusi makusi.
—Zer ikusi?
—Ikusten, ikusten,
a, a, a.

Jaunak gugatik egin
duen miraria:
Hitza gizon egin da
hartuz haragia.
Hitza gizon egin da.

DESAGERTU BIRTUTE...

2. —Ikusi makusi.
—Zer ikusi?
—Ikusten, ikusten,
e, e, e.

Gezurra zabal dabil
orain eta hemen.
Egia bazterrean,
Egia Belenen.
Egia bazterrean.

DESAGERTU BIRTUTE...

3. —Ikusi makusi.
—Zer ikusi?
—Ikusten, ikusten,
i, i, i.

Hemen harrokeria
ari da nagusi.
Egia apala da,
pobre ta biluzi.
Egia apala da.

DESAGERTU BIRTUTE...

4. —Ikusi makusi.
—Zer ikusi?
—Ikusten, ikusten,
o, o, o.

Egun injustizia
bizi da oparo.
Egia justua da,
astanduta dago.
Egia justua da.

DESAGERTU BIRTUTE...

5. —Ikusi makusi.
—Zer ikusi?
—Ikusten, ikusten,
u, u, u.

Guk behingoan ohi dugu
zuritu nahiz beztu.
Egia zintzoa da,
faltsiarik ez du.
Egia zintzoa da.

DESAGERTU BIRTUTE...

86. abendua

XXVIII



BELENGO ZURE
JAIOTZAK POZTU
BEZA KONTENTUZ
JENDE TRISTEA,
DAKARKIOZUN
ASKAPEN-MEZUZ,
DAKARZKITZUGUN
KRISTAUON ESKUZ.

Lurreko jende
zapalduaren
pozbiderako
jaio bait zinen
Belengo Jesus,
begira ta ikus
zein herrialde
handiak dauden
bizi-pozaren
eske, zizpuruz. BELENGO ZURE...

Kristauon erruz?
Kristautasuna
desafiatuz,
atsekabezko
negar odolduz
laguntasuna
estu eskatuz,
miloika pobre
ari da munduz,
gose ta biluz. BELENGO ZURE...

86. abendua

XXIX



Kantatzera noa
Gabongo argian;
kantatzera noa:
Haur bat jaio dela
gauaren erdian.
Gauaren erdian
kantatzera noa
pobrezan jaio den
Haur-Jaungoikoaren
penazko leloa:

ESAN GABE DOA
POBREZAKO HAURREN
INTZIRI GAIXOA:
POBREZATIK POBRE,
LAGUNTZARIK GABE,
GALDUZ GALDU DOA
HAUR POBREZAKOEN
NEGARREZKO ESKE
ALFERRIKAKOA.

Izarren begian
Jaungoiko den haur bat
jaio da mendian
geure ageri ta
geure haragian.
Geure haragian
kantatzera noa
pobre jaio diren
Jainkoaren haurren
penazko leloa:

ESAN GABE DOA...

Denaren premian
Jainkoaren haurrak
pobreen haurrerian,
gosek-hilen mundu
beltz eta gorrian.
Beltz eta gorrian
kantatzera noa
pobre jaio diren
Jainkoaren haurren
penazko leloa:

ESAN GABE DOA...

86. abendua

XXX



Bakoitza bere ardurak edo
zereginak afandua,
jo batera ta jo bestera hor
ehun arazotan nahastua.
Inurritegi aztoratua?
Halaxe giza-mundua.

GABONAK DITUK, EGUBERRIAK,
GELDI HADI PIZKA BATEN.
BEGIRA HITZOK ZER BERRI EDO
ZER KRISTO DUTEN ESATEN.
BIRPENTSA HITZAK, IKUSIKO DUK
ZER GOZABIDE DAUKATEN,
ZER ITXAROPEN, ZER ARGITASUN,
ZER BAKE DUTEN EMATEN,
GABON BAIT DIRA TA EGUBERRI
MUNDUA POZTU DEZATEN.

Askotan gaizki, gutxitan ongi,
ekintzak liluratua
itsu dabilen tajurik badu
koloka edo galdua.
Inurritegi aztoratua?
Halaxe giza-mundua. GABONAK DITUK...

86. abenduan

ZELAN BIZI GAREAN

Gabriel Aresti

Sollubepeko bertsolari
Juan Ormaetxe abillari

1. Agur Juan Ormaetxe
Sollubepe ona
Agur biotzetikan
Zeu zara euskalduna
Zeure bertso galantak
Allegau dira ona
Bakit zer dan eskua
Aiskide batena.

2. Bilboko kale artean nintzan
Modu gatxean gizondu
Zuk baserriko solo artean
Gizontasun ori lortu
Gauza gustiak nik arpegira
Egiten ditut azaldu
Gatxak ta onak lagun ta arerio
Eztot egirik ostendu.

3. Diogenes famadua
Farola bategaz
Antigualean gizon
Billa ibilliaz
Euskaldunen artean
Aren parea nas
Arbolearen pean
Gizon gitzi diraz.

4. Orregaitikan dot txapelea
Zeure aurrean kenduten
Gizontasuna prestutasuna
Orain deutsut autortuten
Edadez eta kondiziñoez
Ain diferente izan arren
Biotz biotzez anaiak legez
Adiskidetu gaitezen.

5. Kantadu gura deutsut
Amabi bertsotan
ZELAN BIZI GAREAN
Gaur Euskalerrian
Erdaldunak paradu
Diraz gure artean
Jangoikoak eztaki
Nos joango direan.

6. Suspirioka eta aieneka
Dabil ortik jente asko
Bururik eta zentzun artezik
Etxakenak eskatuko
Orreik entzuten ditudanean
Eneuke ezelan esango
Aberriaren amai justua
Eztodala ikusiko.

7. Erderazko libruak
Dirauskue sarri
Zelan dan euskaldunen
Erria Euzkadi
Euskeraz eztakian
Belarri motzari
Erdalduna dalako
Gustetan jako ori.

8. Nire adiskide ganorabako
Batek esan deust askotan
Aberriaren salbaziñoia
Eztala gure lurrean
Parau bagiña euskaldun danak
Itsasoko isla batzutan
Elegoala Euskalerria
Oraingo arrisku onetan.

9. Beste lagun bateri
Entzunda deukotsat
Laster bear dogula
Eukin Mesias bat
Beste erremediorik
Eztala guretzat
Esperantza gustia
Osorik galdu jat.

10. Mutiko arek eskatu eustan
Bere biotz zabalean
Euskal Mesias prestadutea
Andikan aurrerantzean
Ainbat fabore ukatu neutsan
Ezer dudatu barikan
Orretariko etnarkarikan
Ezta sartuten zeruan.

11. Euskaldun etnarkea
Eztot izan gura
Orretako enintzan
Etorri mundura
Nire asmoak itxura
Orretan eztira
Peneak eta gloriak
Ezteustie ardura.

12. Atzerritikan etorri jakun
Gudari baten semea
Baekiana ederto zein dan
Euzkadiko banderea
Onegaz arek estaldu eban
Barrutik bere arimea
Allegadurik ikusi eban
Bizi jakula euskerea.

13. Banderadun mutillak
Asko aspertu nau
Abertzalekeriak
Gustiz itsutu dau
Ezeban autortuten
Egi biribil au
Gauza gatxa zan ura
Biurtuten ardau.

14. Fameliaren usario zarra
Segietan eban laster
Euzkadi dala gauza danetan
Lirain galant eta eder
Orren ganean esaten neutsan
Enekiala nik ezer
Gure euskerea ilten bajaku
Eztagoala *rien â faire.*

15. Gudari famadua
Joan zan atzerrira
Antxe bere semeak
Erdaldundu dira
Aiskideak giñean
Etorten Bilbora
Ez geratu konforme
Asarratu gara.

16. Ene laguna izango jaku
Euskaldunen monarkea
Bape maitatu ezpadau bere
Biotzez geure euskerea
Euskalerria gobernateko
Izango deusku lotsea
Sartuko deutsat bengaduteko
Bularrean puñalea.

17. Beste bat dago probintzi aldean
Gustiz mutiko pijua
Esan deuskuna gure errazea
Dala madarikatua
Gure odola berenu baltzez
Dagoala saskeldua
Garbiagoak direalako
Ijito ta judegua.

18. Bernardo de Etxepare
Abade prestuak
Eskribidu ebazan
Lelengo puntuak
Munduan gareala
Txit preziaduak
Baña alan bere gara
Naiko koitaduak.

19. Ene laguna au Jeremias
Izaten jako euskerea
Ordu danetan modu tristean
Negar egiteko ormea
Jangoikoari eskatzen deutso
Aldarriz bere asarrea
Gure ganean jausi daitela
Paradisuko ezpatea.

20. Profeta barri ori
Bizi da negarrez
Jerusalen ganean
Kantetan dolorez
Jangoikoak onartu
Zinduan amorez
Pagua emon deutsazu
Azegariak lez.

21. Iru kaballok zapaldu dabe
Euskalerriko zerua
Apokalipsis miragarriak
Turbadu deutso burua
Zaldiak diraz gerra zantarra
Izurritea ta sua
Goseak eztau iños larritu
Euskaldun estomagua.

22. Etxeparegandikan
Deutsagu itxadon
Gizon fuerte bateri
Baleroso eta on
Orrek egingo euskun
Zeruko gloria emon
Beste tema bategaz
Ezkara iños egon.

23. Gallegu pare zantar bat jakun
Paradu Durango aldean
Itzi euskuna ardura barik
Umetxo bat sasi artean
Ango kaxero ondradu batek
Artu eban bere etsean
Denporeagaz gizondu jakun
Euskaldun errialdean.

24. Geure kasteagaitik
Danak garaz arro
Frantzesak alemanak
Zozo birigarro
Galleguen semeak
Eztau ukatuko
Erreñurik eztala
Galizia lako.

25. Bere erria ukatu dauan
Gizonak eztau lotsarik
Jirasoluak eguskiari
Ezteutso kendu begirik
Segidu egiten deutso atzean
Beti dudatu bagarik
Lora edo gauza eztot ikusi
Munduan leialagorik.

26. Jirasolu barria
Guzurrari leial
Pentsamentu danetan
Zikin eta zital
Zuriak edo baltzak
Emoten deutso igual
Argiagoa izan zan
Leengo Neandertal.

27. Diñotsudana egia ezpada
Jausi bekidaz begiak
Istori itsusi au badakie
Bilbon euskaldun gustiak
Irudituten jakez ederto
Galleguaren gloriak
Bide luzea galmendirantza
Daroia Euskalerriak.

28. Kantuaren ederra.
Bein entzun nebana
Larroriko txoriak
Kantadu ebana
Arek ezirudian
Ormaetxerena
Eukan gustiz sartua
Santuen usaña.

29. Eskatu eiozu Jesukristori
Zeruko laguntasuna
Eta Andra Mari Birjiñeari
Be Bitartekotasuna
Segi daiala izaten beti
Erri onek euskalduna
Ondo ikusi egingo dozu
Zein etedan erantzuna.

30. Amen egon zanean
Gizon Jankoikoa
Judeguak ipiñi
Eutsen allegoa
Erantzun eutsun zeuri
Sollubepekoa
Bere erreñua eztala
Mundu onetakoa.

31. Ama Birjiña Karmelokoak
Ta Migel Arkanjeluak
Ondo dakie zegaz gagozan
Euskaldunak beartuak
Zeintzuk direan bearrizenak
Gaukazanak larrituak
Erremedio bat lograduteko
Oba bagiña mutuak.

32. Oneik diraz bertsoak
Juan Ormaetxeri
Aurtengo Urri bietan
Neutsazanak jarri
Erantzuna emoteko
Non naukan badaki
Bere zerbitzaria
Gabriel Aresti.

ZEZEN LARRUA

(Amaiera)

(S. Espriu-ren LA PELL DE BRAU
Otsalarrek euskaratua)

LI

Bidez ibiliak gara eta gaur babespentzen
arbolaren baretasun hazian,
arratseko haize zakarraren kontra.
Lehorra maitatu dugu
eta gure etxe berri amestua
libertatearen orubean eraikia.
Ez lore seguru bat, baina bai hartu dugu
lore seguruaren esperatza, eta daramagu
erromeriazko hauts honen zehar
Orain hitzak uzten ditugu
eta isiltasunera iritsiak sentitzen gara,
urrutiko harrapaladaren hotsez.

LII

Isilaren barnea
zarataz inguraturik,
zezen larru zabala
guziok zanpatua.
Behatz gazteak
hautsetik jasotzen dutenean,
haizeikaraz altura
atsedenean
maite genuenok
zarpail odoldua,
zerbitu genituenok
dolu egunez.

Jarraigo urrutia
orain hurbil da.
Aurretik zetorren
zaldi anblaria.
Zaldun espaingabea
gure izenei barrez.
Hitz hotza
beldurrik gabe entzunaz,
zeren esperantzan
salbatzen dugu azken bihotza
gauza bakoitzetik biluztua,
gizonetik, gorrotoa
errotzen den putzutik,
oinaze handi guzia
itoarazten duen gaitz zaharra
barkamenaren uretan.

LIII

Gure esperantza apalean
sari soilez iristen denean
gauaz beheruntza jarraigoa
liberaturik, jadanik ez dugu
anblariaren pausorik ez nagusitasunik.

Zeren kopuru handia
hitzetan ikasia eta ordenatua
isilean galtzen da poliki-poliki,
orain idatzi nahi dugu
zure izena soil-soilik.

LIV

Guk nahi dugu
soil-soilik,
itxaropen
apalez,
arrosaren
betidaniko betetasun osoa,
loretasun gorena
betikotasunean.

Gaueko etxeak, banan bana,
itxitzen diren artean,
eta iluna sartuz
egunsentiaren
iturrietaruntz,
gure begiek ikasten dute
itsuaren
behatz oharkorretatik,
begiratzen eta jakiten,
konprenituaraziz
maitasun astitsuz.

Horrela ibili ditugu
ibaiak eta mendiak,
goiordeka lehor eta hiriak,
eta bere gizonen amets bakoitzean
lokartuaz,
Haizeaz egon gara
zelai eta basoetan,
hosto eta iturrien zurrumurruetan,
eta idatziaz goaz
etzanik larru honetan,
bihotz ezkutu eta hilezkorrean,
poliki-poliki
Sepharad-en izena.

Lavinia, 1957.eko ekaina.

Sinera, 1958.eko uztaila.

«Con buen servicio vencen caballeros de España.»

Libro de Buen Amor

KONTU KONTARI

Gaueko etxeak, banan bana,
itxitzen diren artean,
eta iluna sartuz
egunsentiaren
iturrietaruntz,
gure begiek ikasten dute
itsuaren
behatz oharkorretatik,
begiratzen eta jakiten,
konprenituaraziz
maitasun astitsuz.

Horrela ibili ditugu
ibaiak eta mendiak,
goiordeka lehor eta hiriak,
eta bere gizonen amets bakoitzean
lokartuaz,
Haizeaz egon gara
zelai eta basoetan,
kosto eta iturrien zurrumurruetan,
eta idatziaz goaz
etzanik larru honetan,
bihotz ezkutu eta hilezkorrean,
poliki-poliki
Sepharad-en izena.

Lavinia, 1957.eko ekaina.

Sinera, 1958.eko uztaila.

«Con buen servicio vencen caballeros de España.»

Libro de Buen Amor

ZAZPIGARREN TXITATXOA

(Sakiren ipui baten moldapen aski askea)

Jon Iriarte

HOSPITALE BATEAN. EGUNEZ BARRUAN

Iluntzea da. Pasiloetan ez dabil ia inor ere, edifizioa erditzalean dago.

Enfermerak elkarrekin txatxaleatzen ari dira, gizonezkoek ordea komestazioan dihardute emakumeek baino izkiliminatsuago.

Noizean behin pertsonaren bat lehiatilara iritsi eta pase bat eskatzen du. Hiri txikietan ohi den gisa, heltzen diren pertsona hoiek zerbait esaten dute isilik ez egotearren eta guztiek beren berandu ibiltzea justifikatzen saiatuko dira. Henryk dozena bat aldiz jarraian jasan behar du monologo antzerakoa: behin zortziretan ixten duen karamelera bat izango da, beste behin jolasa besterik ez daukan mutiko uherra soplamokos batez konbentzitua mandaturako... beti diferenteak baina beti berdinak.

Lana bukatzeko horma erloju bat dute etsai. Erlojuak hiru beso ditu eta bakoitza bere antojura dabil. Iluntze guztietan langile guztiek haien muturretara lotuak dirudite eta astoek ejeari bueltak emanez pozuetatik ura ateratzen modura langileek beraien saminak, inuzentekeriak edo planak isurtzen dituzte borborrean.

Lau enplegatu daude lehiatilaren ostean eta asteburu aurrean. Heuretarik bat Henry da.

GEORGE.—Etxera joan, usaigoxoa bota eta lagun baten urteguna ospatzera etxean antolatu duen partyra.

PAT.—Ez daukak sasoi txarra gau osoa tunan ibiltzeko ere. Ba nik lasaiago ibiltzeko ustea zeukeat. Lehen ere holakoak egin gabeak ez gaituk eta. Bihar goizean ehizara irtetzeko asmoa diat eta arratsaldez (Henryri begiratu eta esango dio zuka, adin kontuagatik...) boxeoa ikustera jetsiko naiz tabernaraino.

Henry paper batzuk atontzen arituko da sekulako aurpegi motelez.

HENRY.—Ez hasi berriz horrekin, badakizu gaztetako afeziyua dela ta.

PAT.—Nik beti pentsatu dut amodioak ez duela bururik endredatu behar eta ezkontza jatorduak prestatuko dizkizun emakume batez jabetzeko papeleoa besterik ez dela.

GEORGE.—Hori da suabidadea. Horixe esan beharko diet neskatilei gaurko festan kandelengatik etxeak sua hartzen badu bizkor aldegin dezaten.

HENRY (Georgeri).—Ez dut ulertzen oraindik nola ez duen borrero ofiziorik hartu.

PAT (Azalpenetan hasita).—Bien. Badakit ez naizela oso fina, baina beti izan naiz antzekoa. Zu ordea (Henryri destainaz) ezkondu zinenetik txoriburututa zabiltza. Aurretik itsua zinen boxeo arloan, igotzen duzu aldarera eta Clasius Clairen izena ere ahaztu egiten zaizu santiamenean. Erotu ezik ezin da hain bizkor aldatu. Ez da normala boxeozale sutsu bat aitagurea batez liburu kopiatzaile bihurtzea.

GEORGE (Henryri).—Ni hemen nabilenetik ez duzu holakorik aipatu. Liburu kopiatzailea zarela?

PATEK (moztuz).—Bai. Ez zara inoiz konturatu ze letra txukuna daukan gure lankideak? Ezkondu zenetik horretan ematen du denbora, Shakespearen idazlan guztiak eta Dos-

toievskiren garrantzizkoenak kopiatuak dauzka. Gero beste gauzetarako astirik ezin hartu. (Henryri burlaka) Horrela ez dago abizena aurrera ateratzerik.

HENRYK (Sutan).—Lotsagabe hori, ea poliziak barrura eramaten zaituen astelehena orduko.

(Besteei) Orain lagun batekin egon behar dut. Aio.

TABERNA BARRUAN. EGUNEZ

Orma ilunek leihoetatik sartzen den argitasuna jaten dute. Mostradorean jende bakartia nora begiratu ez dakiela, eta malda batzuk igota jendea hitz egiteko batzen da mahai borobilen inguruetan.

HENRY.—Begira Stik! Lanagatik eta eguneroko estutasunengatik ez dut koittarik joten. Ondo dakizu lan orduetatik kanpoko bizitzaren tristezia eta monotoniak errebentatzen nauela. Interesdun gauzarik ez zait egundo gertatzen.

STIK.—Tira Henry! Hoiek gizon guztien kontuak dira... esplika iezadazu bestela zergatik betetzen diren sex-shopak aste buru oro. Jendeak egunerokotik aparte zerbait behar du.

HENRY.—Hasi zara berriro ere inoren kontura barre egiten, ezta?

STIK (Henryk ez harrapatzeko besteko ironiaz).—Lagun baten lepotik barre nik? Holakorik ez Henry... ez didazu ukatuko asperdura gaur egungo gizartearen eta bereziki gizonen minbizia denik.

HENRY.—Zer esaten ari zaren badakizu? Nik deitu laguntza eske eta azkenean neuk eraman beharko zaitut erotxeko ateraino.

STIK.—Berriz ere txantxetan nabilela usteko duzu, baina gauza argi eta eztabaida ezina erakutsiko dizut. (Alde batetik bestera begiratzen du eta mostradoreko tipejoak banan banan aztertzen ditu klandestinoki hitzegiten hasi orduko. Erakunde armaturen bateko informazio sekretua baleu-

ka bezela arituko da). Emakume kontua zergatik ez den galdegin nahian ikusten zaitut eta nik bi hitzetan erantzungo dizut laister. (Misterio kutsua hitzetan) Esaidazu baina, lehenengo, nola ikusiko luketen andrazko bat sex-shop baten atarian zai, edo, okerrago dena, esaidazu nongo putetxean eskeiniko dioten arra t'erdiko buztan bat.

HENRY (Moztu nahiean).—Onartzen dut, gizartea horrela dago baina...

STIK (Bukatzen uzten ez diolarik).—Utzidazu azalpena bukatzen.

Zertara horrenbeste dato? Ba emakumeek, telebistaz ikasi duten bezela, beraienak ez diren gizonen beroaldiak irabazteko askoz ezkutuago ibili behar direla.

HENRY.—Zu eta zure tesiak...

STIK.—Hori da nire arrazonamendua. Emakumeek asmamena gure aldean trebatua dutela eta puntoa egiten ari direneko asperdura, itxura bakarrik dela. Lan detektibeskoan arituak dira gehientsuak.

HENRY.—Eta horrek zer esan nahi du? Nire emazteari galdegin behar diodala gure etxean emakumeak noiz eta nola sar ditzazkedan bera enteratu gabe?

STIK.—Henry. (Isildu eta begietara begiratzen dio) Koploso haundi bat zara.

HENRY (Moskeauta).—Gaurkoz nahiko barre egin duzu nire kontura eta emaidazu gutxienez monotoniatik ihes egiteko errezetatxoren bat. Ala berriz kontatuko dizut nire bizitza osoa eta bizitzako gauza hutsal guztiak?

STIK.—Ez, holakorik ez. Saiatuko naiz, baina bihar edo bihartik aurrera, azkenengo trenak aldegingo dit ezpabe. (Agurkera trufosa batez uzten du Henry, berak ordainduriko garagardo hutsen aurrean).

HENRY.—Stik. Hi halakorik ez diat ezagutu. Beti entretenitzen nauk azken ordurarte eta nik ordaindutakoarekin erdi

lanpartuta ezer konpondu gabe hanka. (Stikek entzun ezin diolarik). Ez ba, txakurrak paatuko dik hurrengoan.

EGUNEZ KANPOAN. LAUTADA BAT

Egusentian tren luze bat, bere izaera mekanikoaz damutua bezala itzelezko lautada batetan lasterka eta pio pio afoniko batian.

EGUNEZ. BAGOI BAT

Lanera doazen gizonezkoek betetzen dute konpartimentoa. Isilik doaz, zer esango pentsatzen. Henryk apurtzen du isiltasuna.

HENRY.—Ez dakit sinetsiko didazuen baina hil honetan bertan libra bitik gora egin duen patata bat atera dut neure ortutik.

Taldeko ironikoenak: libra bi eh!

HENRY.—Libra bi t'erdi ia ia.

DUCKYK (Barrezka).—Pasadan astean libra t'erdikoa zela esan zenigun.

STEVENEK.—Ez pentsa Henry gezurretan dabilenik. Besteren bat izango zen hura.

IRONIKOAK.—Henryk diona ez inoiz zalantzan jarri. Eta, gainera, ez pentsa patata berberaz arituta ere egirik esaten ez duenik. Orain dela gutxi barazki eznormalei buruz hitzegiten ari ziren irratiz eta harritzeko gauzak entzun nituen jakintsu haiengandik. Berrogei berrogeitamar bat urteko batek hazkundea gelditzen ez den hilondoko izatea dutela zioen. Horregatik beharbada hilaren lehenengotan libra t'erdikin atera bazuen lurretik, sinestekoa da hogei egunetan Henryk diona irabaztea.

Bagoikideek ezin barregurarik ezkutatu. Bat komunera joaten da eta besteak txiste kontatzen hasten dira gustora barre

egin ahal izateko. Henryk berak burla egin diotela somatu eta buru makur geltokirarte.

EGUNEZ KANPOAN. STIK BIZI DENEKO ETXE AURREAN DAGOEN ENPARANTZA

Lorek atzera botatzen dute ugariaren ugariz eta ibai simulatuaren mila biurgune simetrikoek gauza bera. Henry ahateei ogi mamina jaurtitzen, asper asper eginda Stiken zai. Stik etxetik jeisten denean Henry arin eta deika joaten zaio.

HENRY.—Atzo harrapatu al zenuen trena?

STIK.—Harrapatzeko astiz ibili nintzen baina aspaldi ezagutu nuen emakume batekin topo egin eta etxean bakarrik zegoela esanez afaltzera gonbidatu ninduen. Gaur goizean beraz ekarri nau. Emakumeekin ezin dut karrerarik egin, eskerrak nire emaztea tolerante samarra dela.

HENRY.—Stik, badakizu era hortako abenturak entzutea ez zaidala atsegin; eta badirudi nire treneko lagunei ere ez zaizkiela nireak gustatzen.

STIK (Burlaka).—Ez zara oraindik patata handiaren kontu gatzbako harekin ibiliko, ezta?

HENRY.—Zu ere haien modukoa zara. Desesperatuta.

Zer egingo dut ba nik? Ez daukat elkarrizketa gai hoberik eta.

STIK.—Zuk diozun gizonen bizitzak arruntak eta berez interes gutxidunak dira, eta beste gizon batzuen bizimodu arrunten gertaerek ez uste suteraziko dituztenik. Horrelako kontuekin jai dago. Kontaiezu zuri edo zure senitartekoren bati gertaturiko gauza bitxi edo harrigarriren bat. Berehala interesatuko dira eta ez eduki dudarik zutaz hitzegiten duten bakoitzean nolabaiteko harrokeriz egingo dutela.

HENRY.—Bai, konforme. Baina zertarako balio dit aholku horrek. Gauza aipagarririk ez zaidala gertatzen mila aldiz ez badizut esan, mutua naiz.

STIK.—Henry, txorokila ez izan. Asmamena zertarako da?

HENRY.—Bueno... baina esaidazu zer asmatu.

STIK (Modu klandestinoan orain ere parkea begiztatu eta hasten da).—Atzo goizean suge bat sartu zen zure oilatokian eta zazpitik sei txitatxo hil zituen; lehenengo hipnotizatu eta gero hainka egiten zien. Baina zazpigarrena begiak lumez erdi estaliak dituztenetarikoa zenez ezin izan zuen hipnotizatu eta honek, uste gutxien dena, erdizka ikusten zuen gorputz irristakor hartara jauzi egin eta mokoka zaitu zuen.

HENRY.—Asmakizun zolia benetan. Norberenean jaso ezkero harrotzeko modukoa. «Eskerrikasko»- siku batez eten egin zuten.

EGUNEZ. TRENEKO BAGOIA

EDWARDEK.—Steven, zure osaba hil zela pare bat urte bai?

STEVEN.—Datorren hilean hirura doa.

EDWARD.—Gezurra dirudi. Atzo bertakoa balitz bezela ez dizugu oraintsu arte aipamenik ere egin eta...

STIK.—Hitzegitekorik eman zuen ba! Papeleta urnara sartzen zegoenean hiltzea be... Nori? ta hari gertatu behar.

«IRONIKOAK» (Henryri).—Nola dago perretxiko erraldoi hura? Farre algarak.

JOANNEK (Ironikoari).—Pitto burua ez hadi izan. Hura lebadura zaku bat huan.

—Henry guztiz amorratuta; Duckly gaztearen kontakizun bat entzutea besterik ez zitzaion falta.

DUCKLY.—Duela aste bete aita ta biok joan gara basora, ezagun batekin elkartu eta solasean hasteaz bat ezagun horrek (bapateko despistez) urrutiko muine batetara begiratu eta kristona botatzen digu: «Hango zuhaizpetan batu daitez-

keen perretxiko guztiak eskuz jasoko dituen gizonik ez da oraindik jaio.

(Ikuslegoaren arreta irabazi zuela, ziur).

Nire aitak ea oraindik edaria utzi ezinean zebilen muturreratu zion. Gizonak txorauta zirudien eta haraino joan behar genuela ikusteko eta haraino joan arte ez zeukan bakerik. Nire aitak hatsean ez zionez mozkor lorratzik sumatu, haruntz jo genuen. Sei bat kilometro oinezean bai. Total, heltzen gara hara ta ziertoa, hango perretxiko aldea!

EDWARD.—Ez duk izango?

DUCKLY.—Perretxikoak zapaltzeko beste, ziento bat gizon kontsolatzeko dina.

HENRY (Asmakizun prestatuak egiten dion pisua jasan ezinik). Ez dut ukatuko harrigarria denik, baina atzo arratsaldean, atzo bertan, nire oilategian zazpi txitatxotik sei suge batek hil zituen.

Denak batera (Harrituta).—Holakorik!

HENRY.—Ixi, interesgarriena zazpigarren txitatxoarena da ta.

(Zigarro bat pizten du, Bogart txiki haren aldean. Lotsarik ez zitzaion somatzen eta gaiztakeria hasteko ausardia izan ezkero aurrera jarraitzea zein erreza den konturatzen hasia dela keinuen ziurtasunean igartzen zaio).

Bizirik atera zena begiak luma gangar batez estalia duten horietakoa zen. Ia ezin zuen sugerik ikusi eta beraz ez zen besteen moduan hipnotizatuta gelditu. Lurrean okertzen zen zerbait ikusi zuen soilik, gainera jaurti zitzaion eta hil arte mokokatu zuen.

KOROAK.—Horreatio! Nik inoiz...! Harrigarria zer da gero berau!

KANPOAN EGUNEZ. GELTOKIAN BIHARAMUNEAN

Guztiek hitz egingo diote trenaren zai dauden bitartean eta bera harro sentituko da guztien estima lortu duela ikusiz. Ba-

tek «kristolango hotza gaur eh!», besteak «bi egun besterik ez aste bururako», guztiek ere «fenomenoa haiz» adierazten duten esaldi eta keinuak.

GAUEZ BARRUAN. RESTAURANT BATETAN

Zerbitzariek berezkoa ez duten finezia erakutsi guran dabiltza. Mantelak zigarro iñozenteek erreta ageri dira; platerak kolorez joanda.

HENRY.—Aste hau espeziala izan da niretzat Stik.

STIK.—Espeziala? (Karta irakurtzen ari da zer esaten duen jakin gabe). Bai, dudarik gabe. Zer afaldu behar duzu Henry?

HENRY.—Betikoa.

STIK.—Betikoa? Nola baina? Puntuan esaten didazu aste espeziala dela eta asteburuko egunik garaiena zuk eta zure emazteak astero afaltzen duzuen jateko tristeaz amaitu nahi duzu. Ogia baino arruntagoa zara Henry.

HENRY (Kokolo aurpegiz).—Arrunta?

STIK.—Bai, arrunta. Seguru oraindik ezkondu zineneko gantzontziloak ez dituzula aldatu. Hogeita hamabost urte ezkondurik eta seme alaba bakar bat ere ez. Eta apustu egingo nuke ez dela antzutasunagatik, baizik eta geldoa zarelako.

KAMARAREROAK (Gisako egoera konfliktiboetan prezentzia adierazteko egin ohi den eztultxoaren ondotik) Gauon. Zeuok esango duzue.

HENRY «betikoa» esaten saiatzen da baina Stikek gainetik egiten dio.

STIK.—Hasteko bi Quich Lorraine, gero beste bi lenguado Meunier... Karbonada Flamenkoa ere biontzat.

Stikek jarraitu ahala Henryk aurpegi negargarriagoa jarriko du eta karterari holako golpe reflejo bat egingo dio.

STIK.—Eta bukatzeko, nik neuk, Bella Elena madariak. (Aukeraketa bukatzen duenean poza aurpegiratzen zaio beste bataila bat irabazteagatik).

KAMARERoa joaten denean, Henryk: Gehiegi barkatzen dizudala uste dut.

STIK.—Bai zera! Zure onerako besterik ez nabil eta.

(Henry den beste moskeauta.)

Afaritxo honetan bertan ikusiko duzu zeinbat aholku aprobetxagarri esango dizkizudan.

GAUEZ BARRUAN. HENRYREN ETXEA. Emaztea sukaldean.

Henryri bibotea eta patilak sendotu zaizkio.

EMAZTEA (Su eta gar).—Begira, Henry, «Hegal zabal» aldizkarian argitaratu zuten artikulu bera egunkariak ere badakar.

HENRY.—Lanetik nator eta ez nago txantxetarako Nancy.

EMAZTEA.—Benetan ari naiz. Tori. (Ematen dion bitartean sarrera errezitatzen dio) «Interes orokordun berri harrigarria funtzionari baten oilategian...»

HENRY (Adurra dariola).—Nancy!

EMAZTEA.—Eta hori ez da guztia. Bazkal ostean Dama batek Eskoziako iparraldetik pareko gertakizun bat ikusu duela kontatzeko hots egin dit telefonoz. (Pixkatera) Badakizu, gezur batek askoz ere kondenagaitzagoa dirudi beste batzuk bere aldera erakar ditzakenean.

HENRY.—Hau zelebratzekoa da! (Gatzontzitik hamar lagunentzako tarterakada bizitzeko lain hartzen du hatzamarretan).

EMAZTEA (Txilioka).—Zentzu bako hori. Ez horreitiño guzti hori bota. Gorputza errebentatuko zaizu golpean. Txoriburu. Hilebetean tensioa zaintzen horretarako. (Bla, bla, bla...).

EGUNEZ BARRUAN. HENRYREN ETXEA.
HENRY TELEFONOA ESKUAN

HENRY Stik? (...).—Bai, plantatu dedila mesedez. (...) Ezin dut gehiago Stil. Ez zaitez beti bezala gauzei garrantzia kentzen hasi. (...) Zer? (...) Begira, telefonoz adarjoterik ez dizut onartzen. Smith Panddon ezagutzen duzu ezta? (...) Bai, hoixe beroi, trenean nirekin joaten den isil hori.

Silloi baten espaldan jarri eta hanka bata bestearen gainera botatzen du. (...) Zer gertatzen den horrekin? Ba isila izango dela baina gaur goizean hasi da bere alabari oraintsu gertaturiko gauza batekin eta akabo nire egoera errespetagarria. (...) Gutariko inork ez genekien eta bera berbalduna ez denez... (...) Kozinamentuan ari zarela txotxolokerietarako astirik ez duzula? Txotxolokeria deritzozu?

STIK (Neska batekin konpartitzen duen ohetik jeikitzen ikusiko dugu. Alkondara lotzen ari den bitartean, aurikularra matreila eta sorburu baten artean estututa.)

Ea ba, esaidazu...

HENRY.—Arloa hauxe da. Smith Panddon'en alaba komedia musikaleko aktriz baten kotxeak lurreratu eta ia ia zauritu zuela. Eta gero aktriza ez zihoala kotxean baina umearen egoeraz oso arduratuta dagoela entzun behar. Erakargarri horrek kostariko ospea ohostu dit. (...) Nola diozu? Zerbait asmatzeko? (...) Errez esaten da. Baina zer asmatu?

Henry adi.

HENRY ISPILI AURREAN bere buruari falta duen atrebentzia eta hizlari sena atera nahian hasiko da, baina ekin ahala ziur ageriko da.

HENRY.—Bazegoen behin nire izeba neska zaharra Wellinton parkean eserita, tenpleu, jostun eguna txokolate ta ardau goxoz ospatu ondoren eta etxeratzeko gogo gabe. Iluntzen ari zuen eta jende gero ta gutxiago zebilen kaleetan. Halako batean berebil zoro bat kalea pasatzen ari zen taldetxo

baten gainera jausi zen eta itxura ondun gizonezko bat zapaldu zuen. Kotxepean zegoena ezik, besteak zerbaiten beldurrez edo ingurutik desagertu ziren. Lurrean zegoenak burua kotxepetik atera eta esan zion zapaltzaileari: «Ze motibo izan duzu pertsona bat apropos zapaltzeko? Gainera ez nauzu ezagutzen». Bestearen erantzuna ere harritzekoa: «Berdin zitzaidan zu edo beste edonor zapaltzea. Ni hiltzaile bat besterik ez naiz; Nik jakin behar dudan gauza bakarra pertsonak hiltzea da». Lurrean zegoen gizonak burutik zerion odol txirrina bizkorra igurtziz: «Arrazonamentuak ez dirudi okerra; Baina esaidazu, orain, hilketa noiztik kontsideratzen den jende aurrean aurkezteko bidezko era bat». Hiltzaileak ezer erantzutekorik ez eta besteak, hil orduko, bere burua aurkeztu zuen ikaragarrizko serenitatez: «Jakik gutxienez, mixerable horrek, odolustu arte Larry Letruc naizela».

FUNDIDOA. BAGOIKO LAGUNAK AHOZABALIK ADI

(Bagoian)

—Hori bai gauza harrigarria.

—Ez sinestekoa ia.

—Zure izebari diozu? Eh?

HENRY.—Hori, ordea, ez da ezer. Pentsa, nire izebak, bera denaz, poliziari deitzea pentsatu zuen lehenengotan, baina afektatuaren axola eza ikusirik tautik ez esatea erabaki zuen. Guzti hura ardo goxoak filtraturiko zerbait iruditu zitzaion eta hil elizkizunak bete behar diren eran bete ondoren, burubide arruntagoz, astia puntuginan ematea erabaki zuen.

Zeregin honetan zebilen behin bere adineko alargun batek bigarren kapituloa kontatu zion. Eta oraintxe dator harrigarriena. Gizon batek beste bat apropos kotxepean nola hartu zuen ikusi zuela esan zion, nola azkenatsean zegoenak aurkezpen hoberik ezagutzen ez zuen galdegin ziola

eta besteak atzetik hiltzen duten hiltzaileetarikoa ez zela eta Larry Letruc zeritzala! Letruc hari nahiko itxura ona ikusi ziola. Nire izebaren lagun honek elizkizunak bete behar diren eran bete ondoren, burubide arruntagoak izatea eta astia puntuginan ematea erabaki zuen.

BARRUAN GAUEZ

Henry mesaganotxeko ispiluaren aurrean bere eskuz idatziriko gezur egutegi antzeko batekin esku tartean. Kuadernotxoan irakurtzen duena memorizatu eta errezitatzen saiatuko da.

FUNDIDOA.

KANPOAN EGUNEZ

Heenry bagoian kontalari trebeziaz keinu batetan eta entzulegoa ahozabalik.

FUNDIDOA.

B. Gez.

Henry etxeko pasiloan gezur bloka eskuetan zabalik hara ta hona.

FUNDIDOA.

K. Gez.

Henry ekinean bagoiko lagun harrituen aurrean.

BAGOIAN EGUNEZ

DUCKLY.—Aspaldian kontulari zer zabiltza Henry!

HENRYK lepoa altxatuko du bere gustoko egoera adieraziz.

DUCKLY.—Kotaiezu putzuarena baina.

HENRYK isilik egoteko esan nahiko duen zapaldu bat egingo dio zapatetan.

DUCKLY (Jakinguraz zegoen entzuleriari).—Antza denez, bere auzoan ura ateratzeko putzu bat zabaltzen hasi omen zen bere aita eta...

HENRY.—Hago isilik, hori gaztetako tontolokeria huan.

DUCKLY.—Bai, arrazoia duzu horretan, duela bi urte gaur egun baino gazteagoa zinen, orduan berrogeita bederatzi urte besterik ez zenituen.

Henry nora begiratu ez dakiela.

DUCKLY.—Halaxe ba, putzua egiteko hasi da lurra zulatzen baina uraren kolorerik ez. Bi metro, lau ta ezebez, sei ta berdin... baina halako baten hasten da uroi zeren pare irtetzen eta aitak ez zekiela igerian. Ura gero ta gorago ta igerian jakin ez. Eskerrak bizkor etorri zitzaiola akordura sabaira joatea ta eskailera nagusia hartzea, ta horri esker atera zen, bestela akaboa.

HENRYK bere burua nola justifikatu ez dakiela.—Jaramon egiten diozue honi? Oraindik ez duzue ezagutzen ala?

STEVEN.—Nork egin ziala sei metrotako salto mortal hori?

EDWARD.—Beronek, gizona.

Pixkat entrenatzen bahaiz Manchako kanala txakada batetan eginda daukak.

BARRUAN GAUEZ. HENRYREN ETXEA

Berokia kentzen duen bitartean: Gaur majo jo didate adarra trenean. Irabazitako ospe guztia galdu dut berriro.

Emakumearengana hurbiltzen delarik, galdetzen dio axolage: Zer betiko solitarioa?

NANCY.—Ez maitia. Hilaren buruko solitarioa da, denetatik zailena. Inoiz ez dut asmatzerik lortu, eta nolabait asmatzeak beldurtu egingo ninduke. Nire amak bizitza osoan behin bakarrik lortu zuen burutzea; berak ere beldurra zion. Bere amaordeak ere behin soilik atera zuen, eta hark era-

gindako emozioz bapatean hil egin zen; eta nire amak behinobehin atera ezkero hilgo zen ustea zeukan. Lortu zuen gauean hil egin zen. Bere osasuna txarra zen sasoi hartan, hori egia da, baina kointzidentzia bitxia izan zen.

HENRY.—Beldurtzen bazaitu ez egin.

NANCY (Deika).—Henry ikaraldia izan dut. Ia ia burutu egin dut. Bosteko diamanteak galerazi dit bukatzea.

HENRY.—Bueno... burutu dezakezu. Zortziko bihotza bederatzi zabal horretara pasatzen baduzu, bostekoa seikoaren azpian jar dezakezu.

Emazteak hatzamar arin eta perleziatuez berak proposaturiko mogimendua eginez, kartak talde egokietan ipiniko ditu. Ondoren bere gizonari begiratuko dio eta ezer esan ezinda arnasarik ez duelako izango, aulkitik hila eroriko da.

Henry, harrituta, begira geratuko zaio eta pixkatera bakarrik hitzegiten hasiko da emozioz: «Azkenez, azkenez nire bizitzan gauza izugarri bat gertatzen zait. Nire bizitza ya ez da oroimen kolore bakoen ilada bat. Trajedia hau ondo esplotatu behar dut».

Trajedia egoki adieraziko duten izenburuak gorpuzteko pentsatzen jartzen da: «Heredatutako aurreustea benetazkoa egiten da». «Hilaren buruko solitarioa: bere deitura belaunaldietan zehar justifikatu duen karta jokua».

FUNDIDOA.

Henry bere eskritorioan gutun bat bukatzear. Amaitzen duenean kartazalean sartu eta Essex Vedette idazten du haren gainean.

FUNDIDOA.

Henry, bere istoria kontatzen duen Essex Vedette izeneko egunkaria eskuetan, alai.

EGUNEZ TREN BAGOIAN. Henry ezik beste guztiak.

STEVEN.—Dolu orduetan ez da zuzena txistosoa izatea.

Besteak ados.

EDWARD.—Zer idatziko dugu egunkarirako?

STEVEN.—Nire ustez gauza laburtxo bat izan beharko litzateke.

DUCKLY.—Ea balio duen: (Papertxo bati begira) Bihotzeko ataka baten ondorioz bapatean hil den Henry Blenkinthrope gure kide errespetatuaren emazteari ongi nahia.

KOROAK.—Bale, hoixe beroi.

EGUNEZ TRENEAN

Egusentia. Henry treneko joan etorrian bakar bakarrik.

Ahotsa OFFean: Henryk bagoiko lagunen harremanetatik alde egin zuen eta bidaia goizeko lehen trenean egiten hasi zen. Noizean behin pasadako lagunen baten sinpatia eta aditasuna irabaztea nahi izaten du bere kanario hoberenari edo bere azenario handienaren neurriari buruz hitzeginez. Ia ia berak ere ez du aldaketa sinesten.

IXIDOR

Patxi Etxeberria, S. I.

Irun'dik-edo abitzen zan bultzi goiztarra, ttiki-ttikia genduen. Alegia, motxa. Baiñan, bai bizkorra. Antxe sartu. Kea zerion gurditzarretik Beasain'en jetxi eta Salbatore'n oñezkoak gooraka abittu ziralarik, aiekin apaiz gaztea bildu. Nor izango... ta, neroni.

—Egun on, guztioi!!

—Ala ekarri.

—Bidetxiur ontatik abitzekoak al zaituztet?

—Bai, jauna.

—Goiztar zabiltzatela iduritzen zait.

—Zerori bezelaxe.

—Ez zerate, ba, Kizkitza'ra zoaztenetakoak izango...

—Asmatu diguzu. Zerori ere gain artarañoko asmoz, ala?

—Garaiz iritsiko ba'giña.

—Beintzat, orren berandu danik ez genduke esango.

—Berandulariak beti izaten dira. Euskaldunon artean ez gutxina. Geroaren magalean zer aurkittuko degun ezin asmaturik gabiltza. Izan ere, Euskalerriko bazterrak ain mearrak diranez, aruntzago so-egiten ez dakigu. Leenagoko amonari gertatu zitzaiona lekuko. Ua, gaixoa, bere txokotik gutxitan irteten, eta alako batean aldameneko mendi tontorrera igo zitzai-

gun. Andik zelai zabala ikusi eta, «Mundua bai aundia dala, esanez asi». Bitartean, ego-aizea or nonbaitetik etortzen zaigu. Gizarteko iritzi tximenak ere, orrelatsu. Izatekoak izango ez gera, ba!! Aur jaioberriak Paris'tik ekartzen zituztela esaten ziguten. Guk, umeok, garai artan bai sinistu ere. Arrittuko al zerate? Orrela mintzo izaten zitzaizkigunak, beren artean elkarri so-egiñez begiak okertuz eta ezpañak arrotuz irri-parra izaten zuten. Umeok ikusi ez, beraz!!! Ni emendik bein ere ez naiz ibili.

—Nondik dator?

—Munduaren erdi-erditik.

—Bertsotan asi al zazkigu?

—Ez det ezpalik.

—Bañan, euskeraz guk añean ba-dakizu. Berealaxe antzematen zaizu.

—Ama det alakoa.

—Oraindik bizi al zaio?

—Errira eta jaiotetxera agertzen naizenetan, osaba Martin'ek auxe esaten dit: «Orain ere amari titia artzera, beraz?» Eta lotsatu egiten naiz.

—Senide asko al zerate?

—Amalau eta neroni zaarrena.

—Sail ederra benetan. Gazteenak zenbait urte dittu?

—Nexka degu. Bai, aur politta!! Begiak zuri-zuri eta prantsesa dala esaten diogu. Lau urte besterik ez eta sorgiña dirudi.

—Arrebatxoa ziñez maite dezula izketan agertzen diguzu.

—Sei mutil eta zortzi neska. Etxera biltzen geranean, amak guztioi geron izenez dei nai izaten digu. Eta... ezin asmaturik ibiltzen ez zaigu, ba!! Esanez: «—Auxe ere, ba-dek ba!! Ta guztiok nereak zerate». Orduan banaka-banaka muxuka as-

ten gatzazkionean, aren poza. Aurtengo epaillean, kistartasuneko deun aundi Ioseba'ren egunean izugarrizko bazkaria izan genduan. Nere arrebak ere amari laguntzen. Bañan, langillerik maratzena, ama. Bein ere baño gazteago eta ederrago agertu zitzaigun. Aitak ere esaten zion: «—Au dek au emakumearen izatekoa!! Bein «ere ez zaigula zartuko...» Senideok esaten genion: «—Amatxo eseri zaite ementxe, eta dakizkizun ipuietakoak esazkiguzu...» «—Etxe guztia bete didazute, eta orain ipuilari asi bear dedala? Neronek ezer egiten ez ba'det, ez al zazkidate goseak ibiliko?...»

—Apaiz jauna! Ama asko maite dezu...

—Ua izan ere, alakoxea degu-ta.

—Arek ere asko maite zaitu, noski. Zergatik dan esango al diguzu?

—Geienetan, zuek amaok, lenbizi izaten dezutena asko maite izaten dezute.

—Ala uste al dezu?

—Gañera, nere amak esaera zaar asko dakizki. Alako bat ialkitzen zaionean, arkatza eta orri-mutturra artzen ditut, amari esanez:

—Ama! Uste gabean irten zaizun esan egokia, berriro esan bezait.

—Ez al didazu gogoan artu?

—Ez, beintzat, osorik.

—Onatx bat: Ba'gendu ba-giñakide puzkarra burruntzian sartzen.

—Ai au usai txarra!!

—Ez nuen uste, orren azkarr minduko ziñatenik.

—Or bazter orietan zabiltzanean entzungo ez dezuna, guk emen esaten: «Urrutiko kanpaiak otsa fiñe»

—Ori oso politta degu. Euskal-esan geienak bezela. Ona batzuk: «Aleluia, mezaluzagarria. Ollo gosea kantari, neska asea dantzari. Landerra dirudi intxausti, guziok arrika beti.»

—Emengo beste au ez dezu noski entzun izan: zure amak ere ez zizuen esango: «Izarra ortzean, esnea pertzean, neskea etxean.»

—Ori gurasoentzat degu. Eta, beste au: «Naiago diñat bein no!, eta ez amabi emango.»

—Esku-kakoentzat esana, agian. Onako au, ordea, esku-zabalentzat: «Laister damanak bi aldiz ematen.» ...Beraz, ama miastra aundia, zuk.

—Esaten dizkidanak, ain txintxo orrira aldatzen ikusten nauenean, oso alai jartzen zait. Gero, berriz, senideen artean ez degu bein ere erderaz itz-egiten.

—Orduan, *bizkaitarra* zaitugu...

—Munduaren *erdi-erdikoa* naizela esan dizuet.

—Bai-ba, baiba. Goiko Altzo'n alaxe esaten dutela ikasiak gera.

—Gezurti dirala uste al dezute? Lurbira erdi lezaken aria andik barrena botako ba'lute, goi-alde aiek ez al lirake erdi-erdian? Bañan, an beste arazo latzagoak astintzen dizkizue. Alegia, kaleko umeak beti etxea utzirik an ibiltzen dirala biurri-kerian. Lengoan ere txakur bati tomate-poto utsak isatsetik lotu zizkioten, eta, gero arrika asi zitzazkion. Txakur errukarriak, isatsekoak ainbesteko otsa ateratzen zutela, eta erotu bearrean iesi-egin nai. Olaxe, luzaro baño len ibaira amildu zan. Izan ere, kale-etxeak ain estu eta illunak gertatzen dira. Sendi bakoitzean gu aña anai-arreba ba'dira, arnasa artuko ba'dute norabait irten bearr. Etxeak eraikitzerakoan, zergatik ez zabalago egin?

—Lena berrituz, auxe egia: egitan bertsolari aundia zaitugula.

—Ipui alaiak eta zirtotsuak esan gabe, aldapa auek goora ez al giñake aspertuko?

—Kizkitza'n izango duten elizkizun nagusirako, garaiz ote-goaz?

—Eguzkia oraindik asko ez da igo, eta ez-garaiz goazenik ez zait iduritzen. Murumendi eskuian ortxe utzi degu. Aizkorri or aurrean zut-zutik: bekozkoa bezten bazaio, kazkabarra ere aurki izango degu.

* * *

Otoitzerakoan obe da biotza itzik gabe; eta ez itz asko biotzik gabe. Esan onen mamia Kizkitza'n ederki ikusi zitekean. Egun artan oso ostetza nabarra bildu zan. Gain artan ori lendik ere iakiña genduen. Urte artan, ordea, guztiek an egizko otoitz-giroa zabaltzen. Beizama'tik gizaseme gazte bizkorrak. Aldaba'tik sail ederrean gurasoak eta seme-alabak isil-isilik. Bidani'tik mutil musugorriak eskuzapian ollanda zuria zuela. Matxinbentatik auspolari alaia, bere otsak Izazpiraño luzatuz. Bertaxegotik Garin'go aittona eta amonak eskutik illoba ttikiak zekaztela. Ermita politta erabat bete zutelarik, an atzeko leiotik erdi-señorito ziruditenak, Zeruko Ama'ri so eta so ia malkoak zeriztela. Ori guztia ikusi gabe iñork ez luke sinistuko.

Urte artan abeslari berriak agertu zitzaizkigun. Beiñolako izlari bikaña ez zala etorriko aurreko urtean ber-berak esan zigun. Urtero-urtero bertako txaunburu buruzuria izaten zuten aldarean iaupari. Oraingoan gazteari tokia utzi nai izan zion. Ordurarteko oitura zanez iaupa-emalleak itz-egingo, azalpenetan labur-labur.

«Nere biotzeko entzule zintzoak: Ama zer dan guztiok dakizute. Gañera emen ama asko bildu zerate. Eta ama izan nai dutenetakoak ez gutxi. Ama guztiak beren biotza zabal-zabala eta Jesukristo'ren Amak iñork baño zabalagoa. Ama Birjiñaren biotza itsaso nastu zakarrena gertatu zan. *Aspicite et videte si est dolor sicut dolor meus.* Ikus!, Ikus! nere samiñaren garratza bezelakorik iñon ote dan. (Erostak esaten zaion idaztiko

1, 12). Guk, apaizok esan nai izaten degu, Belen'go arzuloestalpean Ama Birjiñaren samiña zer izan zan... Bañan, ittoaren gogorra nabaitu, ezin nabaitu degu. Esaten dizuedana ulertu dezakezutenak zuek zaituztet, ama maitati zeratenok. Orain bertan eguzkipean zer ikusten ote-degu? IESUkisto'ren sinisterik ez dutenak asko: gure Erosle Ona beste bein egurrean zintzilik iosi naiekoak sail ikaragarrietan. Ori ikusten digularik, gure Zeruko Ama naigabez izango ez degu, ba... Eginkizun narratxak utzi ditzagun! Gure biotzak eta bizitza guztia ere orban gabe zaindu dezagun. Geiegi eskatzen ote-zaigu? Indarrik ez degula iduritzen ba'zaigu, Ama Birjiña berari laguntza eska dezaiogun...»

Aterpetxo ua ia uste zuten. Guztiak pagondo-ipurdietan eserita'edo ekarri zutena iaten asi ziran. Ontan Salbatore'tik gora ikusi nituenak itsasoarrekin bildurik:

—Ez genduen asko uste!! Aldapa-goora lagun izan degun uaxe bera, apaizik nagusiena bezelaxe.

—Gerok ere, ementxe Itsaso'n elkarrekin bizilagun degun arren ez genekian asko zer gertatzen zitzaigun.

—Ori da gizasemearen bikaña, ori!! Ibilian baserritar utsa dirudi.

—Etorriberri artan besterik zan. Gure ume koskorrak elizaatarian azootan zebiltzala, apaiz gaztea aiei begira genduenean, guk uste izaten egoaizeak orbela bezela Mendiguren'en barrena eramango zigula. Apaiz iaun mee eta segallagorik ez genduen bein ere ikusi izan. Gerora, piska-piskanaka loditzen asi zitzaigun. Emengo eguraldiak ondo artu digu, nolanai ere.

—Itsaso'n apaizak maiz aldatzen al zaizkizue?

—Gazteak ez digute etsi nai izaten. Oso egonarri txarrekoak gertatzen zaizkigu. Emen, goi ontan, alakoxe amona batzuk besterik ez omen gera bizi. Gazteak bere kidekoa maite. Azkeneko au besterik degu. Gaztetxoei euskal-abestiak erakusten egiten dizkigun alegiñak!!!

—Goorakoan elkarrekin giñan, eta euskaltzale aundienetakoa ote-dan iduritu zaigu.

Oraindañokoan beste iñork ez bezelako zerbait orretxek lortu digu. Nai duena iristeko izugarrizko eskua du. Mingaña bai leuna. Itz bat bestea baño goorago ez esango.

—Berak esan digunez, ori guztia, bere amari zor dio...

—Orain arteko apaizik geienak elkarrekin beti erderaz sumatzen genituen. Don Ixidor gurean agertu zanetik, apaizak ere euskaldunagotu egin zaizkigula dirudi. Batetxo asarretu gabe eta guztiz minbera danari miñik eman gabe apaiz gaztea irabazian atera zaigu. Ona: ementxe datorrkigu...

—Otordu goxoa, beraz!!!

—Apaiz iauna! Ekarri deguna. *Puska legorra* esanez obeto asmatuko zigun. Ortik goora gentozen ortan, ez digu asko esan...

—Zer esan bear nizuen? Jakin bear dana, garai egokian onena.

—Iaupa-emalle berori izango genuela esanez, arnas-estuka ibili bearrik ez genduen. Gure auspoak zaar gertatzen...

—Guztia asmatzen duenik ez omen da izaten. Nongoak zeratenik ere ez didazute esan.

—Ez digu galdetu-ta. Zaldibiar monteju-jaleak gerala esanda, berori parrez astea besterik ez genduen egingo-ta.

—Zuek Zaldibi'n bai omen dezute MANDOA esaten diozutena. Ibarguen etxean bizi zaizue. Ortaz gañera Erauskin bertsolaria ere zuen errikoa.

—Oriek guztiak nondik atera dizkigu? Ta, ai beza!!! Guri adiraztekorik are izango du ba...

—Oraindik bazkaltzeko nago. Beste batean bearko...

Bitartean, baso-barreneko azken-pagoaren itzalean izketa beroan an ari ziran. Areri eta Gabiri'ko amona eta adiñeko

etxekandereak ardalla bizian, beren iarduna ezin bukaturik. Zer izango... ta, Maxepa Lizarreta'k don Ixidor'ekin artu-eman estuegiak zittuela. Biak gazteak... eta? Zerk gertatu bear ote-du?

Itsaso'ko apaiz berri au agertu arte, Maxepa'k bai, mutil adiskideak ba-zituen. Bakoitzarekin illabetez'edo adiskide bezela ibili, eta laister maitale berria aldamenean. Errian zeresana obeto zan. Noskiago, ia orain arte, olakorik non ikusi zitekean, Donostia'n bestetan. Otsa geiena iasotzen zuena, Urtega'ko etxekandere gaztea zan. Beintzat, aren etxean Maxepa ez zala sartuko. Zertara?

Don Ixidor'ek goiko mutiltxo eta nexkei euskal-abestiak irakasten zizkiela. Elizkizunetarakoak. Iletak zituztenean ere, bai egoki ari izaten zirala. Orain elizak zerutxo ttikia zirudien. Bai abesti polittak eta txito entzungarriak. Errierriarenak, berriz, aiek alakoak:

Ez al didazu nonbait esango,
Non dezu erosia;
Astelenetan izaten dezun
Lanerako nagia.

Beste ateraldi politta auxe. Gaztetxoei galde eta galde, emen bertan abesti egokirik ez ote-genduen... eta Aristizabal'go alaba zarrenak auxe abestu zion:

Nere maite politta
Donostia'n dago:
Laister etorriko da
Iiankoak nai ba'do.
Iainkoak nai ba'do, ta
Berak gura ba'do,
Taloa utzi eta
Ogia iango do.

Lara, lara lala lalai, lara lala lai: lara lara lalai.....
Ez! Ez! Ori ez degu apaizaren lana eta egitekoa eta iarduna.

Bear bezela sinistun zintzo izaten irakatsiz ere, batentzako aña eginkizun eta buruauste ba-zuen. Maxepa Lizarreta gaztetxoekin bildu ez zitzaion, ba!! Umeak bezela abestiak ikasi... Beintzat, ala nai eta ala esan. Zertarako? Beste iñork baño eztarri obe eta garbiagoa duela erakutsi nai ote-digu? Neska gaxo errukarriak bere buruan aize askotxo. Bakarka ere, gazte pertxentak naiko zuen zerbait are ikasi. Eta apaiz gazteak baiezkoa eman. Olakorik!!! Txaunburu zaarrak ez al zion bere zainpekoari ezer esaten? Itsaso'ko mutil gazteak zer ikasi bear ziguten? Eta Maxepa'ren adiñeko neskatzak ez al ziran okertuko?

Ontan Atinzabal'eko Luzia antxe gertatu, eta amona aien galdekizunak entzun zituelarik, aiei esan:

—Ongi ala ere!! Urrutiko kanpaiak otsa zakar. Agian, zerbait entzun dezute; bañan erdizka bakarrik eta ulertu ez. Maxepa'k apaiz gazteari, bakarka ikasketak egin zitzan eskatu ziola. Orduan don Ixidor'ek erantzun: «—Laguna ekarri bearko dezu. Nai ba'dezu zure aizpa. Nai ba'dezu zure ama. Besterik ezean zure amona. Ulertzen...? Len ere maxiagarri zerbait gertatu zala... Eta, berriro era ortako zer-esanik ez degu bear.»

—Maixepa, apaiz gurbillaren esanera makurtu zitzaigun. Gure adiskide lirañak eztarri ederra izan eta gai asko ikuttu zituen. Bai ikasi ere. Beste iñork añean bai, noski. Gaur bertan ere Berri Ona'ren azalpena ondoren, arek Gounod'en AVE MARIA latiñez abestu digu. Entzun al diozute?

—Beintzat, barrunbe guztia txilioz bete digu eta zerbait badalakoa erakutsi du.

—Orain arte, gain ontan, era zarreko ariketak izaten ziran...

—Gizarte guztiaren gogoko danik, noiz etorriko ote-zaigu?

* * *

Irailla'ren zortzigarreneko gertakizun oriek orduko, don Ixidor Iturzaeta toki aundiagorako aukeratua genduen. Iñori

ez zion esaten, ontan, italiar otsaundiko Puccini'ren TOSCA'tik arako Ellucevan le stelle puxka Maxepa'k ikasi nai. *Bizi izatea ez det ainbeste maite izan* itzei ekiterakoan, apaizari beti malkoak zerizkion. Ikaslea benetan arritu, eta apaizari antzeman zerbait bazuela. Eta, alako batean galdetu, eta apaizak aitortu. Bañan iñork ez zuela ezer iakin bear:

—Isilik ibili bear dezu, gero!!! Salatzen ba-nauzu, galdua naiz.

Toki onean!!! Maxepa'k berekiko esaten:

—Neri esan arteko onik izan ez ba'du, beste iñori ez diola adirazi? Sinistagarri danik ez det uste.

Eta Maxepa'k Azpitarte'ko Margarita'ri esan. Bañan isilleko ori iñori ez ziola esan bear. Eta, olaxe ezkutukoa zabaldu zan, eta beranduko batean txaunburu iaunak ere entzun:

—Beraz, berri alaiak dituzula?

—Nik zer alaikizun izan nezake?

—Zerorrek dakizu. Zuk esanda beste geiagok ere bai. Ori egingo zenduen, ba?

—Iñori ez diot gezurrik esan.

—Egi guztiak ez ditugu nolanai zabaltzekoak. Garaiz iakitun jarri ba'ninduzun Gotzain iaun agurgarriarengana ioango nintzan, oraindik ere gurekin bizitzen utzi dezaizun, eskean. Ez zaitugula maite uste al dezu?

Izan ere, ementxe nere txoko ontan biok izketa luzerik ez degu izan. Nik, bai gogoa; zu, ordea, beti lanpetua. Zerorrengan su irazekia dezula, ederki erakutsi didazu. Beiñolako kistar-sinistun gartsuak eraikuntzarik ederrenak zutik jarri zituzten: guztiok dakizkigun katedral aundiak. Goi-Goikoari eskeintzen zizkioten emari bikañak. Sinismen biziaren aitormen garbiak. Bereola Palestina'ko bazterdeunak, kistarren eskuetaratu zituzten. Elena'k Gurutze deuna berrerosi, eta olako asko, nik aipatu ez arren, zerorrek ongi dakizkizunak. Garai aie-

tan sendiko aurrak sinismenean azi eta ezitzeko eragozpenik ez zuten, Guraso zintzoek ortarako aski ziran. Eta gizarteko artu-emanak erabat bestelakotu zaizkigun ontan, zuk beste zerbaiti ekin diozu. Gaztediari ariketa egokiak artu-erazi.

Sarasate arrabitalaria nor izan zan ba-dakizu. Bein erestaldi batean izugarrizko ekitaldian, entzule guztiak zoratu zituen. Biaramunean izparringilari batek iruñear ospatsuari buruz auxe idatzi zuen: «Eguzkipean degun gizuren arrigarrienaren ioaldiak entzun ditugu...» Orduan Sarasate'k iardetsi: «Ni gizuren naizela? Iaun orrek ez al daki ogeitamazazpi urtez egunero amalau orduz ikasi eta ikasi ari izan naizela. Noski gizuren ez; langile bai. «Zuk ere lana gogoz egiten dezu. Emen izan zaitudan aldi laburrean... orixe erakutsi didazu. Nora zoazkidan ez dizut galdetu... bañan, toki berrian emen sorrtu zaizkizun oztopotxoak nola garaitu ikasi diguzu.

Euskaldunon artean zintzotasuna garaile zan aldiak izanak gera. Bein Nuarbe'ko mutil gaztea, lenbiziko karlistetan gudulari eraman zuten. Errukariak gudua zer zan bai al zekian? Ibili eta ibili, alakoxe egun txarrean etsaiaren aldetiko ezkuraleak burua zulatu zion, eta an iñor ez izan, eta ia odol-ustu zitzaigun. Azkeneko arnasa ez zuen eman nai. Biotzean eta oroimenean gurasoak zituelarik, aientzat mezua biali nai. Ontan, norbait agertu zitzaion, eta ari auxe esan zion: «Oraingoan, Nuarbe'tik gudulari ekarri nauten bakarra ni. Laister ilko naiz, eta nere gurasoak ikustera ioaten zeranean, auxe esaiezu: Iltzerakoan NERE JESUKRISTO JAUNA biotz-biotzez esan dedala...» Guraso maitatiei berri oberik ez zien biali.

Bein Belabietáko artzaia Tolosa'ra ietsi zan. Ain zuen iñork ez zion ongi etorri esan, eta batetik bestera zebillen. Ontan, Tolosa'ko alkate iaunarekin bat egin zuen, eta onek ari galdetu: «Nor zaitut emen bazterrak neurtzen? —Ni alkatea naiz. —Nongoa, gero? —Nik nere buruarekin bakarrik agintzen det. Izatekotan neronekin asarretzen naiz. Iñotxori ere ez diot zorrik. Ez beintzat, lañope ontan. Bestalde bakoitzari berea opa nik. Besterenik ikuttu ere ez. Batez ere, urkoaren izen ona beti zaindu.

Ixidor! Luze ari al natzaizu? Gogo onez adirazi, dizudanak ez zaitzala mindu.

—Burua zuri dunaren esanak aintzakotzat artzen ikasia naiz, eta eskarrikasko!!!

* * *

Andik zortzi egunera, agur-aparia izan zuten. Eralkizun geienak txaunburuak ordainduz. Guztira berrogei maikide. Abeslarientzat baztertxoan'edo, geigarri bezela, mai ttikiagoa. Bañan gogo zuenak zerbait eman zezakean, txaunburu iauna aberatsegia ez zala ba-zekiten-ta. Euskaldunok abesti gabeko otordurik ez degula izaten, eta bazterreko maiean, Maxepa buru zala, laiste asi ziran. Eztarria legortuko zitzaien beldurrik gabe, asi ere. Sukaldekoak ia attu zirala ere, abeslariak ezin bukaturik zebiltzan. Bakarlariak ere ausartu ziran, eta Maxepa berak ederkiena auxe abestu zuen:

Eguntto batez nindagualarik
Maitenarekin leiuan...
Erran ukan niriozun
Ua niala goguan:
Nere oñaze mingoitzaz
Urrikal artu lezan... urrikal artu lezan.

Abestia bukatu zuenen, apaiz irakasleari muxupa aundia eman zion.

Uaxe bai izan zala otz-arritzea. Lotsaren lotsaz txaunburu iaunari ere musua gorrittu zitzaion. Mai nagusian zeuden adiñeko emakumeak bertantxe iaiki eta ezer esan gabe alde-egin zuten.

Neska ergel txoriak besterik zer egin zezakean...?

Biaramunean, goizean oso goiz, lagunik ez nai eta don Ixidor bakarbakarrik oñez aldapa aiek beera ioan zan.

Geroago izan ba'zan, Itsaso'ko mutillak arrika ere asiko zitzazkion.

JAN EDANAK

Ixidor! Luze ari al natzaizu? Gogo onez adirazi, dizudanak ez zaitzala mindu.

—Burua zuri dunaren esanak aintzakotzat artzen ikasia naiz, eta eskarrikasko!!!

* * *

Andik zortzi egunera, agur-aparia izan zuten. Eralkizun geienak txaunburuak ordainduz. Guztira berrogei maikide. Abeslarientzat baztertxoan'edo, geigarri bezela, mai ttikiagoa. Bañan gogo zuenak zerbait eman zezakean, txaunburu iauna aberatsegia ez zala ba-zekiten-ta. Euskaldunok abesti gabeko otordurik ez degula izaten, eta bazterreko maiean, Maxepa buru zala, laiste asi ziran. Eztarria legortuko zitzaien beldurrik gabe, asi ere. Sukaldekoak ia attu zirala ere, abeslariak ezin bukaturik zebiltzan. Bakarlariak ere ausartu ziran, eta Maxepa berak ederkiena auxe abestu zuen:

Eguntto batez nindagualarik
Maitenarekin leiuan...
Erran ukan niriozun
Ua niala goguan:
Nere oñaze mingoitzaz
Urrikal artu lezan... urrikal artu lezan.

Abestia bukatu zuenen, apaiz irakasleari muxupa aundia eman zion.

Uaxe bai izan zala otz-arritzea. Lotsaren lotsaz txaunburu iaunari ere musua gorrittu zitzaion. Mai nagusian zeuden adiñeko emakumeak bertantxe iaiki eta ezer esan gabe alde-egin zuten.

Neska ergel txoriak besterik zer egin zezakean...?

Biaramunean, goizean oso goiz, lagunik ez nai eta don Ixidor bakarbakarrik oñez aldapa aiek beera ioan zan.

Geroago izan ba'zan, Itsaso'ko mutillak arrika ere asiko zitzazkion.

EUSKALTZALE ETA EUSKALARIEN JAN-EDANAK

Gastronomia hain garrantzitsua den herri honetan jakingarria deritzagu euskaltzale eta euskalariek zelako janariz eta edariz ibiltzen diren beren bilera eta ospakizunetan. Era berean, baita ere, jakin nahi dugu nolako hiztegia erabiltzen duten.

Duela ehun urte Durangon egin ziren Euskal Jaietako menuaren berri emanaz hasiko gara. 1886ko uztailaren 26an ospatu zen anaiarteko bazkari txartelean eskuz idatzirik agertzen zaigu honako zerrenda hau:

Sopak

Arroza Balentziako oiturara
Bedarrezko sopia

Erregosiak

Lenguaduak
Gantzorezko pastelak urdantzakiagaz
Makallaua Bizkaiko modura
Ollaskuak Jerez-saltsan
Urdantzakia
Izokia maioneseagaz
Lekaak

Erria

Solomochua bedaspilliagaz

Sopák.

Arroza Balentziako oiturara.

Bedarrezko sopia.

Erregosiak.

Lenguaduak.

Gantzorezko pastelak urdantzakiagar.

Makallaua Birkaiko modura.

Ollaskuak Jerez-salsan.

Urdantzakia.

Yrokia maioneseagar.

Lekaak.

Erria.

Solomochua bedaspilliagar.

Arkenak.

Okantza leitua.

Gartaia.

Era dibardiñeko frutak.

Gozuak eta pastelak.

Azkenak

Ukantra leitua
Gaztaia
Era desbardiñeko frutak
Gozuak eta pastelak

* * *

Aurten, Durangon bertan, mendeurrenaren ospaketa eratu dute tronperriarrak, eta hara zer-nolako afaria eskaini zuten:

Sarrera

Txanpan-koktela
Barazki-sopa
Arroza

Zizki-mizkak

Pernil-xerrak

Arrainak

Itxas-mihia
Makalloa Bizkaiko erara
Salmoia saltsa ezbardinetan
Piper berdeak txipiroiaz beteta

Okelak

Oilaskoa Jerez erako saltsan
Solomoa piper berde eta gorriekaz
Solomillo errea laguntzagaz

Amaierak

Onakak eta fruitu ezbardinak
Euskal gaztaia
Etxeko gozokiak

Ardaoak

Txakolin zuri eta gorria
Euskal ardaoa
Akeita

* * *

Hara hemen 1930. urtean, «Euskaltzaleak» zeritzan erakundeen sortzaile eta eragileek antolatua. Erakundearen buruorde Lizardi olerkaria zen eta aldez aurretik Zumaiako Uranga jatetxearekin mintzatuak zirenaren arabera, jatetxeak menua proposatu eta oneritsia emanaz eta behar ziren zuzenketekin Lizardik erantzuna, ondo iragar zezaten. Hitzez-hitz transkribatuko dugu Lizardiren ihardespen gutuna:

Tolosa'tik, 1930'gneko. Epalla - 3'gnean.

Txomin adiskidea: Irea jaso diat, eta «*Euskal Saleak*»en «menua» ere bai. Tajuzko bazkaria iruditzen zaidak, ugari ta ondo maniatua izan-ezkero. Bereala ziak deia «Euzkadi»ra ta «Argia»ra. «Menu»ak, jakiña, euskeraz agertu bear dizkiagu. Onelatsu uste diat jarri ditekela:

«EUSKALTZALEAK»
1930'gneko. Epalla'ren 9'gneko. bazkaria
ZUMAIA'n, «URANGA»-jatetxean

Jaki-agiria

Zizka-mizka anitz
Arrautz-zopa
Legatza, erregosita
Azpizuna (solomoa) Baratzai-eraz (1)
Arkume errea, urazaaz

Mai-azkenak:
Esnezkoa ta igaliak

Ardoa ta sagardoa

Akeita, edari bizi ta txokorra

Bazkari-saria: ZAZPI'na laurleko

---

(1) «A la *Sardinera*» jartzen dik, baña «A la *Jardinera*» ote dan iruditzen zaidak. Euskeraz alde aundia zegok: *Baratzai*'tik *Sardin-saltzalle*'ra...

Ori eztek garestia izango ta ortxe egin-arazi ditzak eun bat jaki-agiri, irarkolan, ta ordainduko dizkiagu. Beti ere gauzari garrantzia ematea ona dek olakoetan. Olabeaga'ri emaizkok eta ostalariak jarri ditzala tajuz maian.

Gure aldetik, AMARRENTZAKO bazkari-eskariak «apuntatu». Egun auetan etorriko zaizkik, noski, mordoan. Ostiral edo larunbatean, zenbatek eskatu ainbatentzako gaztiatu zak Zumai'ra. Altzeta'k ere esan ziak zortzi-batentzat eskatuko otediken. Ea orko idazleMEAK (Etxabe'tarra ta gañontzekoak) zirikatzen dituken, «arreba»-mordo bat bildu dezagun.

Batasunerako beraz itxura onak Bilbo-aldean...? Jaikoa'k nai dezala, bada, gizona, orixe bear bezela ta betirako egitea.

Agur, adiskide. Iganderarte, J. L.

Lizardi

• • •

Hitzak hizbidea ekartzen omen du eta tolosar Juan Antonio Garmendia adiskidearekin gauza hauetaz mintzatzean, Euskaltzaleak baino lehenxoago Golfeko zelaian egin zen «Eusko Bazkari»-aren berri jakin dugu. Baita jaialdi hartarako iragarri zuten txartel apainaren fotokopia eskuratu ere, adiskide onari esker. Gotiko letraz, txukun, gazteleraz eta euskaraz Tolosako Laborde y Labayen inprimategian argitaratua, folio neurriko orri batean, goialdean jaiaren adierazpena eta kolorezko irudia, azpikaldean bi zutabezko zerrendaz jakiak. Irudiak, batean Ibarrako eliza neoklasikoa eta bere aurrekaldeko zubia ditu apaingarri; bestean txistulari bat, bere atzekaldean Arantzazuko eliza eta erromeria. Testua hola dakar:

EUSKO BAZKARIYA

Erromeriya egunian

Golf'eko zelaiean

izango dana

1928 Uztailla'ren 15'n

BAZKARIYA

Bitartekoak. Talua ta arto berua
Ollo zukua
Eltzekoa
Artikutza'ko amorrayak
Arkumia
Ollasko erriak
Bazkari-ondorenak- Mamiya-ta
igaliak kaikuan
Bertako sagardoa ta txakoliña
Ardo, akeita, edari biziak

* * *

Eskualzaleen-Biltzarrak 1965. urtean Maulen izan zuen bere urteroko bilera, paper apain batean agertu zuen janari ageria, goikaldetik ezkerrean «Zazpiak-bat» ikur edo ezkutu, eskubialdetik «Izarra. Liqueur Basque» jartzen zuena, dena gorri, zuri eta berdez, azpikaldean soinujole eta dantzari irudiz, txukun aurkeztua. Erdian, janari zerrenda honela zetorren:

1965-eko Buruilaren 9-ko
BAZKARIA

Oilo Salda
Lukainka Biperradarekin
Ziberoko Zikiroa
Aphez Ilharrarekin

Bortuko Gasna
Herriko Pastiza
Udareak

Arno Gorria Hoberenetik

Kafea
Grattau Jaunak eman Ondokoekin
«Clés des Ducs» eta «Izarra»

* * *

Berriz ere Maulen ginen 1970eko urriaren 25ean, hiriko eskribau izan zen J. D. J. Sallaberry-ren *Chants populaires du Pays Basque* kanta bilduma liburua argitaratzearen mendeurrena ospatzen bai zen, eta guk oso gutti behar holako dei bati erantzun jatorra emateko, jan-edan bikaina egiteaz gainera, hori bezain atsegin zaigu bazkalondoko alaitasunean xïberuarrak kantari entzutea.

Ortografia bereziarekin, txartek apain batean honela aurkeztu ziguten eguneko menua:

Maule Urrietaren 25ian
Sallaberriren Khantoriren
Ehunqerrena

JATÉKOUA

Salda Adeliekin
Aratzolatzeko Urzouak Saltsan
Artzarki Laurduna
Aphez Ilharrekin

Ahuzkiko Gazna
Etchenko Hounkaillia
Beltcha Ondokouekin

Ardou Gorri Haïtïenak

Restaurant «Chez Altha» - Mauléon
le 25 Octobre 1970

* * *

Handik gehiegi urrutitu gabe ikus dezagun Donibane Garazin nola maneatzen diren manexak.

Jean Barbier euskal idazlearen mendeurrena ospatzean menu-txartel hau jaso genuen han ginen bazkaldiarrak:

Jean Barbier-en omenaldia

a r n o a
«zantxo azkarra» naparrako
gorria eta belza
j a t e k o a k
jan xehe multxoa
iratiko arraina
artxilondoko axurkia
baratzekariekin
entsalada
etxeko kopa hormatua
cafe eta euskal herriko ondokoarekin
brana etxeak eskainia

donibane garazin
1975-ko abendoaren 21-ean
«central ostatuan»

• • •

1983ko urriaren 30ean Euskualzaleen Biltzarra eta Euskaltzaindia, bi elkarteok bildu ziren Azkainen Jean Elissalde «Zerbitzari» zenaren mendeurrena ospatuz.

Bazkalaurrean Roger Idiartek eman zigun hitzaldian ez zen falta gatzik eta piperrik. Beraz, hortik nahiko asetuan joan ginen «Zerbitzari» pilotazalearen ohoretan Laduche-en Trinketera bazkaltzera. Hala behar, pilotazalearen omenez tokia hautatzean. Baina Idiarti entzun genionez, «arrantzalea eta onddoketaria» ere ba omen zen «Zerbitzari» zena. Nonbait, sukaldari manexak ez ziren hortaz oroitu eta hara hor menuaren jakien artean arrainik eta onddorik ez jartzea pekatu. Hala ere bazen zertaz asetu eta inor ez zen kexatu. Muxinik gabe ongi hartua izan zen gutunean aurkeztua: Eltzekaria, Aza xukua, Zikiroa ilharrekin, Ensalada, Gasna, Hotz-beroa eta Kafea.

Izarrak eskainitako ondokoaz inork ez zuen izarrak ikusterik, baina bai zeruko mana goxoa, hain ongi bedeinkatua zen mahaian.

Azkainen Urriaren 30-an
Zerbitzari-ren Omen Aldia

EUSKALZALEEN BILTZARRA
EUSKALZAINDIA

BAZKARIA

Eltzekaria

Aza Xukua

Zikiroa

Ilharra-ekin

Ensalada

Gasna

Hotz-beroa

Kafea

Izarrak eskainiko ondoko arrekin

LADUCHE-en TRINKETEAN
AZKAINEN

• • •

Nafarroako erresuma zaharra ez da izanen janedanetarako lekurik txarrena. Beha han ere nola dakiten gauzak atontzen. Bi orridun txarteltxoa dugu lekuko, *Pedro Mary eta «Maitena»* jartzen du azpian, inprimategiaren ordez. Euskaltzain baten sarrera zen ospakizun. Azalean, ajedrezdun armarri baten azpian, honako hau jartzen du: «Satrustegi jaunaren Euskaltzaindian sartzea. Luzaide'n. 1963: Buruilak 15». Eta gutunaren barnetik honako zerrenda hauek:

Arnoak

Xuri ta gorria
Chanpagna
Edariak
Kafia

Bazkaria

Ollosalda
Amurraina urdazpikoarekin
Aretxekia baratze belarrekin
Ollaskoa onyoekin
Entsalada

Desertak

Bixkotxa
ta
Karroin opila

• • •

Luzaidek Nafarroa Behereko izakera duenez, jo dezagun goi aldera eta har Euskal Herriaren hiriburu zaharra zen Iruña eta ikus garai bateko jatetxerik apainenean bertsolariei jarri zioten bazkari herrikoia. Hara hemen hitzez-hitz, txartelak zekarrena:

Iruñe-ko «Euskalerria-ren Adiskideak» Elkargoak Nafarroako bertsolariei OHOREZKO BAZKARIA. 1964'go Iraillaren 27'an.

Bazkaria
Salda
Ajoarrieroa otarrainakin
Solomua, entsaladakin
Tarta izoztua
Kafia

Edariak
Ardo gorri eta likoreak

Hotel de los Tres Reyes
Iruña

• • •

Durangoko Euskal Jaien mendeurrenez hasi eta Lizardi zenaren gutunez jarraitua, tolosarrek poetaren oroitzapenez ideki zuten elkarteko afariz bukatzea oso legezkoa deritzagu. Gainera, tolosarrek badakite gauzak itxuran egiten. Kasu honetan, bertako euskara ederraren ospea zalantzan jartzekoa bada ere. Hala ere, gure irakurle ona ohartuko da, saltsak, bietan s eskatzen duela; aldiz, izokiak, z; «irian», idiaren behar duela eta abar. Holako tipikeriak nonnahi eta noiznahi irakurtzen direnez. Zeren, garai haietan, euskararenganako borondate ez zen guti eta barkamena merezi du.

Hara hemen hitzez-hitz. Irurako Restaurant Aizpurua-nean, pelotarien ohorea zio eragingarri zela, afariaren jaki zerrenda:

TOLOSA'KO LIZARDI KULTURA ELKARTEAK
1971'n otsaileko 15'ean - gaueko 10'etan

Pelotarien ohorezko afaria. Zeren Laskurain Ikastola laguntzeko, eratua den Jaialdian jokatzen dutelako. Eskertuaz, hain eskuzabalki eskeini direlako.

JAN ZERRENDA

ARRAI SOPA
TXIPIROIAK BERE SALTZAN
IRIAN SOLOMUA
OGI'GOZO IZOSKIAKIN
ETXEKO ARDOA
KAFIA ETA PATARRA

Salneurria: 325 Pezta

ADABAKIAK

JAN ZERRENDA

ARRAI SOPA
TXIPIROIAK BERE SALTZAN
IRIAN SOLOMUA
OGI'GOZO IZOSKIAKIN
ETXEKO ARDOA
KAFIA ETA PATARRA

Salneurria: 325 Pezta

ASMOZ TA JAKITEZ, BEHEKOAK GOIKOA ESKONDU. Aurtengo *Egan*-en 1-2 zenbakiaren 157-158 orrialdeetan Aulestiko jatorrizko Bengoetxeatarren armarriak iragarritzat duen errefrau gisako esaldiaren berri eman genuen. Eusko Ikaskuntzak bere ezaugarritzat hartu zuen bere azken lerroa:

Bekoak goikoak eskondu leidi
Ta txikiak aundia benzi leidi
Asmuz ta jakitez.

Esaldiaren ondorean eritzi kaxkar samarra agertu genuen, hertsia eta ulerkaitza eta Pello Zabaletari zor diot honako argibide hau. Hala behar ere, Zabaletak hertsitasuna hausteko. Azkue zenaren hiztegia begiratuz, honako hau irakur daiteke: «*Eskondu* (Bizkaiera zaharrean), alcanzar, *atteindre*» aintzinako errefrau batek dionez: «Itxadonik txoria eskondu nei». Gaur egun oraindik Eibarren erabiltzen da «Itxainda txoria arrapatzen da». Orain biak argiago ulertzen dira eta «Bekoak goikoa eskondu leidi» dirudi zuzenena.

ETARRA.—Espainiako jaun txit gorenak, ez dakigu zergatik, baina duela gutitik «etarras» deitzen hasi ziren ETA-koei: Etakoa edo Etakidea esan beharrez.

Baina haien ondotik edo haiei jarraituz, hemengo jaun txit gorenetarik zenbait ere, era horrekin kutsatu dira. Izan ere, hori da normalena abertzale sutsuak erdaraz mintzatzen diren herrian. Horrek erakusten digu zein iturritatik edaten duten. Baina, txarrena, hara hor euskaldunak ere kutsaturik, hainbeste entzutearen buruan.

Zuk pentsa, irakurle, gure harriduraz.

Eta, hori ez da txarrena. Pentsa zazu horientzat zer harridura litzaken orain «etarrik» ez dela zin egingo bagenieke. Harriduraren harriduraz harrika egingo liguteke.

Baina gu, zintzotasunean leial: etarrik ez dela! Zeren Euskal Herrian ez bait da ez herririk, ez txerik Eta izena duenik.

BILBO ZAHARRA. Eskuetara iritsi zaigu Bilboko Zazpi-kaleetako komertzianteek argitaratu duten gida liburuxka, parte zahar hortan zernahi erraz eta laster aurkitu ahal izateko egina. Oso praktikoa. Txukun egina gainera, ezkerreko orrialdea marrazkiz eta eskubikoa zerbitzuen helbide eta telefonoz. Gabinorte, S. A. etxeak Imprenta Industrial, S. A.-an inprimatua da. Baina titulua oker jarria du: *Bilbo Zaharra. Casco Viejo.*

Historiari eta leku-izeneri berena zor zaienez, *Casco Viejo,* Zazpi-kaleak dira eta ez «Bilbo-Zaharra». Zeren *Bilbo-zarra,* iturri ziurretik dakigunez, ibaiaren bestaldea da, Muelle de la Merced eta Naxa (Naja) parte hori. Agiri eta mapa zaharrak, eta ez hain zaharrak, begiratzea baizik ez dugu hori jakiteko.

JAURETXE, JAUREGI JATORRAGOAREN KONTRA. Han eta hemen, geroago eta maizago irakurtzen dugu *Jauretxe, Jauregi*-ren ordez. Elkarren artean desberdinak izatez aparte, itxurarik gabeko bitxikeria iduritzen zaigu.

Orduen Liturgia (1977) edo hasi zen «casa del Señor» adiaraziz *Jauretxe* erabiltzen, baina euskaldun berriak «palacio» ordez erabiltzen hasi zaizkigu.

Elizbarrutiarteko Liturgi-euskeratzaille Taldeak ere hobe zuen Duvoisin kapitainari jarraitu balio; baina, zoritxarrez, ho-

lako gauzetarako ez gara kontserbadoreak, bestetarako garen bezala, eta horregatik darabilkigu hizkuntza hain aldakor.

Lhandek dakar *Jauretxe*, «maison seigneuriale» bezala; baina ber-berak, *Jauregi*, «chàteau», «palais», oso ondo berezirik.

ERITXIRA AMAIÑ EMON DA. Eritzia eritzi, nik ez dakit eibartarrori «Manifestaziñua tremendua, banda munizipala kabezan eta pueblua masan» leporatu zigunak nola arraio esango zuen gaztelerazko *a tientas*, berak horrelako gutxi-gora-beherako eritzizko esaldi hori asmatzean. Gurean, «eritxi», *opinión, criterio* bai da (horren faltaz ez da gauzonik). Eibartarrontzat, «itxuka», (Itxuka eta Begitxuka) jolas bat baizik ez zen, Goyak bere obra batean aurkeztu zuen hura; eta «gutxi-gora-beherara», hur ematen duena, *groso modo;* baina «eritxira» beste zerbait da, hau *a tientas*-en kideko edo ordezko erabiltzen dugu eta ez da gure errua bestek hori ez jakitea.

Hargatik iduritzen zait gure artean haina edo gehiago erabiltzen direla lekukotasunak «eritxira» Euskal Herrietan, lanen doitasun eskasian.

Hori argitu beharra dut ondorean adiaraziko dudanaren ulergarri. Gauzak arin egitea ez baita beti laster egitea. Batez ere buruz egin behar direnak, kontuz arintasaunez kutsatzetik.

Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak udaran argitaratu zuen gida-liburuxka, adiskide batek (emakumezko adiskidea bere zentzurik onenean eta ez Azpeitin erabiltzen duten eraz) eskuratu zidan: *Donostia. San Sebastián 1986. (verano-86). Año XX*. Hor datoz etortzekoak! Gure kultur ahulezia, gida horietan nabari ohi bezala, plater ederrak jakiz, apaingarri beharrez nazkagarri bihurtzen zaizkigunak. Hala ere, aitor dezadan, hutsuneak gora-behera, holako liburuxkak beti direla lagungarri.

Gida-liburuxka hori eman zidan adiskidea galdezka zeto-

rren, 41. orrialdean aipatzen diren hobieri buruz zerbait jakin nahirik. Zazpigarren mendeko hilobiak ez bai dira nonahi aurkitzen. Zazpigarrenekoak? Hara hemen hitzez-hitz bertan diona: «2/8 «ELORRIO (Vizcaya) - Fiestas de Arguiñeta (donde hay tumbas del S. VII». Baina, mendeak eritxira erabilita ere, bi menderen aldia gehitxo ez ote? Hobi horiek, IX. mendearen azken partekoak bai dira, bertako hobi batek duen idazkiaren arabera.

Nor da holako gida-liburuetan eskua hartzen duena? Badakigu Manuel Gómez Moreno-ren «De Epigrafía Vizcaína», *Boletín de la Academia de la Historia*-n (1951) argitaratua eskuratzea nekeza izango dela, baina Bizkaiak badu Gipuzkoak ez duen zerbait, Donostia Euskal Herriko Kultur Hiri deklaratu nahi zuenaren kontra, Javier de Ybarrak argitaratu zuen *Catálogo de Monumentos de Vizcaya* (1958) bi tomo ederrez osatzen dena. Testudun tomoa ikusi bezterik ez dugu, bere 105. orrialdean. Hor bertan ere, transkribapenezko hutsa dator, lapsus bat, 893. urtea jartzez. Zeren M. Gómez Morenok «Era 921 corresponde al año 883 de la Era Cristiana» zionez. Denen begien bistan dagoena da, Argiñetako hobi batean, «ERA DCDXXI». Gure gida-liburuxka honetan eritxira emandako datuz, hara doan turistaren harridura eta lotsaria jakitekoa izango da.

Amaiñ emon da ez ote gabiltza?

Gaztelerazko *desenfreno*, lasaikeria baino zerbait gehiago da Eibarren. Hori da hain zuzen «amaiñ». Ikus «amaiñ emon» Toribio Etxebarriaren *Lexicón*-en.

Hara horren esan nahia ulertu ahal izateko gertakarizko adierazpentxo bat: 1931. urteko apirilaren 14an eibartarrak Errepublika ekartzera beste inor baino lehen abiatu zirenean, libertate oihuak entzuten ziren, baina ez pentsa inor amaiñ emonda zebilenik. Zintzo jokatu zuten eta formal bete, bete beharrezkoak, bakoitzaren animoak kontrolaturik, «amaiñik barik». Bandera nazionala ez zen orain bezain sakratua eta laster baztertu zuten, erregetza zer esanik ere ez. Hala ere, libertate eritxiaz ez zebiltzan eritxira. Errebaleko batek, pozaren

pozez, kaiolako kardantxilloari leihotik amaiñ eman zion, esanaz: «Errepublika etorri dok eta hiretzako be libertadia». Baina, bizitza kaiolan eman zuen txori koittauak ez zuen urrutiregi hega egiteko adorerik eta aurrekaldean zegoen Errebaleko monjen komenturuntza hartu zuen. Eta, gure gizonori larriturik dehadarka: «Horra ez! Horra ez! Hor ez daukak libertaderik!»

Eibarren, hitz horretatik, iturri ezagun baten leku-izena ere badator, Amaña. Paraje haretatik Bizkai aldera etxeak eginala Arteitxa (Artegieta) eta Asoliartza (Asola-Iartza) zehar zabaldu zena. Baina, izen hori, Ego errekan, Makalarroko urak hartzen zituen presa haretatik zetorkion, kanaleratu behar ez ziren ureri amaiñ ematetik.

Errepublikak Eibarri emandako sariak izan ziren, besteak beste, Makalarroko ur-kanal eta kunbuarekin herriko piszina egitea, Amañako piszina, eta Instituto de Primera Enseñanza-ren sorkundea. Franquismo garaian, zigorrez herriko agintari axolakabeegatik galduko zirenak. Industrializatze ekintzak aurrera eroateko aukera bereziak izan zituen hiri honek, luzarora zer zetorrenik gabe, uezaba askok beren poltsak berotu zituzten, baina baita ezertariko plangintzarik ezaz hiriari etorkizun hertsia leporatu ere. Hirira zetorren guztia ez bai zen hiriarentzat.

Hara, idatziaren idatziz, jira ta buelta, lehengora non jo dudan. Baina norbaiti zalantza kentzeko balioko dit. *Egan*-en aurreko zenbakian, Adabakiak sail honetan, «Etxerako dirua» jartzen zuen iragarkia salatu nuen. Norbaiti gehiegikeria iduritu zitzaion eta batzuentzat gure asmakizuna ote zenaren susmoa. Ez jauna; ez! Hara hor, non datorren gida-liburuxka horren bukaeran, eta ez urrezko brotxez edo zarrailuz, baina bai urrezko dominaren irudiz liburuxka itxiaz. Ikus atzekaldeko azalean; izan ere, «azala» behar hori horrela jartzeko: «Etxerako dirua», etxearentzat behar zuenean.

Eibartarrontzat horiek dira «eritxira amaiñ emonda ibiltzeak».

EUSKAL HERRIKO A. A. ETA MENDAUR. Gure artean izan da euskara ona edo euskara txarra «por Decreto» egin behar zela edo uste zuenik. Garai batean, Eusko Kontseiluaren denboran, *Deia* egunkariko bigarren orrialdetik «Mendaur» aritu zen erdaraz, jotake!, Boletin Ofizialak zerabilen euskara mota zigortuz.

Mendaurren jasa hura ekaitz bihurtu zen eta Xalbador salbatuko zuenik ez zen. Talde politikoen karnetak bere indarra bai dute.

Aldatu ziren gauzak, inork espero zezakean baino euskara txarragoa hartu zuen B. O. (Euskal Herriko A.ren A.) horrek: ulertezina, elkorra, euskaldunik gehienok erdarara behartzen gaituena. Eta, Mendaur, mutu!

Irailaren 9koan, erdarazko partean, Aduna jarri beharrez «Aduana» jarri zutela eta bazterretan hasarrea. Baina. zer esan beharko luke Mendaurrek euskaraz baldin badaki?

Bere isiltasuna ez da normala. Normalena, zera da, Xalbador «lanarigo»kide ez izatea. Baina, hala ere, lanean ari da.

IPUÇCHA, LEHEN DEITURA. Guk ere lehengo lepotik burua. Berriz ere hemen gaituzu «giputzez». Izengoitia deitura bihurtu zen jakitea ez bait da gauza erraza. Uste hori ziurtatzerik ez dugu kaso honetan behintzat.

1984ko *Egan*-en 3-4 zenbakiaren 144-145 orrialdeetan XIV eta XV. mendeko *Guipus* eta *Guipuza* deituradun pertsonaien berri eman genuen. Urte bereko 5-6 zenbakiaren 146. orrialdean gure egunotan mugazandik euskal kulturaren inguruan ari den Marie-Pierre *Iphutcha*-ren jatorria ber-bera zela agerraraziz. Baina, gure entzumenera iritsi zaigu horietaz zalantzaren bat izan den zurrumurrua. Batez ere azkenekoan *G*-ren galera nabari delako

XI eta XII. mendetan *Ipuzcoa* agertzen zaigu eta ez *Guipuzcoa*. Beraz, aintzinagoko forma dugu Marie-Pierrerena. Zaharragoa zelan gorde den? Hori da gu geu ere harritzen gaituena, eta agiriak agiri, lehentasun horren kidekorik bada XI. mendean bertan. Olazabaltarrak San Juan de la Peña-ra egin zuten donazioaz 1925 eta 1048. urteko agiriak aski ezagunak dira gure probintziako historiaz zerbait arduratu denarentzat, eta hor, 1048. urtekoan. Gala de *Ipuççha* garbi asko agertzen zaigu.

ARITXULEGI. Oiartzunen, Aiako Arriaren hegoaldeko lepoa da Aritxulegi. 1873. ekainean handik sartu zen Santa Kurutz apeza bere soldadoekin Oiartzun hartzera. Han aritu zen «trabajadore»etan kaminogintzan eta kantari gure Basarri:

Aritxulegi gañean
loa uzten dedanean,
zer poztasun barrenean!

Guri ere ez digu lorik kendu igazko *Egan*-en 3-4 zenbakiaren 193. orrialdean aipatzen zen «Aritzeta eta Aritxulegi» arazoak. Baina, gure esanak esan, Agustin Goñi «Txomin»-ek *Vuelta a Guipúzcoa* liburuan, Arrichulegui eta Arrichulegi jarri zituen. Nonbait, harrika ibiltzea nahiago.

Lehenago ere esana genuen Oiartzungo historiaz liburu mardula idatzi zuela Manuel Lekuonak eta beste monografia labur bat Leandro Silván-ek. Biok, Aritxulegi (Arichulegui) dakarte. Bere jartorria (H)Arritik ala (H)Aritzetik datorren pentsatu gabe, agiri zaharretan hala zeudenez. 1921ean Toledon militar akademiak argitaratu zuen Eufrasio de Munarriz-en *Líneas de Guipúzcoa*-k ere hala zekarren. A. Ubietoren zuzendaritzapean baina hain ongi oinarritua ez den A. M. Inda Sauca-ren *Repertorio de Nombres Geográficos. Guipuzcoa*-k (Valencia, 1976) hori behintzat ondo dakar Instituto Geográfico y Catastral-en 1 : 50.000 mapatik hartua.

Baina, denen gainetik, leku-izenez inon egin bada lan zehatzik, Oiartzunen egin da. Adolfo Leibarren «Contribución al conocimiento del Valle de Oyarzun» deritzana, 1958 eta 1959an *Oyarzun* aldizkarian argitaratua. Eta, zer esanik ere ez, hor ere: Aritxulegi.

Holakoetan, harrera, hala beharrez, hobe umorez. Ez zen hobea Eibarko Arestxuloeta (inoiz Areztxuloeta bezala agertzen dena) deritzan baserriko jatorrizkoei XVI. mendearen hasieran Sevillan eta Cuban merkataritzan zihardutenei bihurritu zitzaien deitura: Aretxuleta (Arechuleta). Egi egia diot. Frogak nahi dituenak ikus bedi Jon Bilbaoren *Vascos en Cuba, 1492-1511* liburuaren 201-205. orrialdeetan. Baserri hori kokatzen den parajean, «are-txuletarik» ez dakit, baina «arri-txuleta» ba zitekean. Gaur egun ordea, handik Elorretatik zehar Lindari alderaino, ezer ematekotan, «pinu-txuletak» izan beharko dute. Eibartarrok egungo ahozkeran darabiguna ordea, askozaz atseginagoa da: «Aritxuleta». Zeren ahariarena beste gauza bat bait da, nahiz zikiraturik edo zikiratu gabe.

LIBURUAK

LIBURUAK

AITA DONOSTIA, *Obras completas.* I eta II Artículos, III Diarios y Reseñas. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1983. IV eta V Conferencias. Sociedad de Estudios Vascos, Gipuzkoako Diputazioaren babespean. Donostia, 1985.

Argitaratu diren bost tomo horietan euskaraz lan guti batzuk baizik ez badira ere, bertako edukinik gehiena euskarari eta euskal kulturari loturik dago, bereziki euskal literaturari, horregatik eta noizbait aldizkari honetan ere kolaboratu zuen pertsonaia jakintsuaren mendeurrena oroitzeagatik dakargu.

Obra garrantzitsu honen hitzaurre eta oharrak Aita Jorge Riezurenak dira, baina lan horietan zerbait gehiago zor zaio Aita Riezuri. Izan ere, Migel Querol musikari jaunak hain ongi esan zigun bezala, Aita Donostiak sorte handia izan zuela A. Riezu bezalako gizonaren eskuetan lanak uzteaz, egilearen ondasunak argibidean jartzeaz batean bere izen ona gordetzen lagunduko digulako.

Batzuk nahiko hurbildik dakigu lehenago, 1960. urtetik hasita, zenbat neke hartu duen Aita Jorge Riezu eskergeak, *Obras musicales* argitaratu eta gainerakoak argitaratze bidean jartzeaz.

Orain, honako hauen lehen tomoan, folklore oharretatik hasi eta musikari klasikoei buruzko artikuluak arte, ehundakak idazlanak biltzen ditu. Arin irakurtzekoak, zeren erudizioz beterik egonarren irakurgai atsegingarriak bai dira A. Donostiaren lumatikakoak. Gaiz eta geografiazko aurkibideak falta zaizkio, behar bada azken tomoan erastekoak, era horretan lanak probetxugarriagoak bihurtuko direnez nornahik ikerke-

tak jarraitzeko. Kulturgintza bultzatzeko beharrezkoa deritzagu eta hala bedi.

Lanik gehienak gazteleraz idatzirik daude, baina badira batzuk frantsesez eta euskaraz idatziak. Bilketazko kantarik gehienak, zer esanik ere ez, euskarazkoak dira. Aurrerantzean, euskal literaturaren ikerlanetan, edo naiz bildumetan, kontutan hartzekoak.

Etnografía gaiak oro: musika, dantza, kanta, euskarazkoez gainare, gaztelerazkoak eta sefardierazkoak ere bai, guti batzu bederen. Haurrentzakoak, Erreginetan, Mayak, Toberak eta abar. Baina, bestalde, musikaririk ospetzuenen bizitza eta lanez.

Lehen tomo honen hitzaurre jakingarria irakurri beharra dugu lanaren muinez eta edukinez jabetzeko.

Bigarren tomoan, «Artículos» anuntziatuarren, artikuluak baino zerbait gehiago biltzen dira. Hor daudenez, besteak beste, bere ikerlanaren fruituz burututako liburu ezagun batzuk ere: *Música y músicos en el País Vasco* (1951. urtean argitaratu zena fakziminez erreproduzituz), era berean *Instrumentos de música popular Española* (1947), *Instrumentos musicales populares vascos* (1952), Madame de la Villehelio-ren *Souvenir des Pyrénées*, Iztuetaren *Guipuzkoako Dantzak* gaztelerara itzuliak eta abar. Nork esango luke artikuluak direnik?

Hirugarren tomoan egunkarikoak eta erreseñak, han-hemenka barreiaturik eman zituen idazkiak, egunean egungoari loturik, kronologikoki, egileak hain bere zituen gaien inguruan beti. Eguneroko deitzen direnak 292 orrialde osatzen dituzte, *Euzkadi* eta *El Día*-n argitaratuak gehientsuenak, guti batzuk *Easo*, *El Universo* eta bestetan. Bigarren partea, beste 120 orrialdekoa, folklore eta musika gaiez. Hauetan behar zuen H. Angles eta J. Pena-ren *Diccionario de la Música*-renak ere, 291. orrialdean aipatuak, baina ez da agertzen.

Tomoaren funtsak, Aita Riezuk hitzaurrean ongi dionez: «El P. Donostia tuvo el acierto, desde su juventud, de preocuparse de la cultura vasca, sin echar en olvido la ajena, que,

sobre acrecentar el saber, dispone a la confrontación de ambas y a descubrir posibles influencias mutuas. Tal actitud o hábito intelectual, que preside y dirige todas sus actividades, resalta particularmente en Diarios y Reseñas».

Hor biltzen dira 1913tik hasita idatzi zituen erreseñak. Hor daude, besteak beste, Carlos Bordes, Chopin, Smetana, Glinka, Mozart, Ghéon, Hemsi eta abarren bizitza eta lanen berriak, baina baita ere Galizia, Leon eta Salamanca-ko kantategieri egin zizkien erreseñak.

Lanok hor gelditu ziren argitaratzaileak porrot eginda. Eta, Eusko Jakintzaren eraginari eta Gipuzkoako Diputazioaren babesari esker, jarraipena eman diote, beste bi tomo argitaratuz eta ondorengoen promesaz. Bene benetan zoriontzeko ekintza, zeren Aita Donostiaren lanak oinarri-oinarrizkoak bai dira euskal kulturan.

Laugarren tomoak hitzaldiak biltzen ditu. Hauek ere, gehienak, lehen han-hemenka azalduak eta guti batzu inoiz argitaragabeak. Frantsesez eta euskaraz emandakoak jatorrizko eran eta gaztelerazko itzulpenez ematen dira.

Neri, pertsonalki, grazia handia egin dit A. Riezuk IV. tomo honen hitzaurrean (ikus 10. orrialdea) Pedro Sarasketak 1917. urteko martxoaren 17an *La Voz de Guipúzcoa*-n publikatu zuena hor sartzeak. Pedro Sarasketa zena, liberal ezkertiarra zen, oraingo Antxon Sarasketa Colpisa-ko kazetariaren aitona. Artikulu haretan erakusten zigun, eibartarren liberaltasuna ez ezik, Aita Donostirena. Pedro Sarasketa harek, inoiz Pedro Gorri izenez ematen zituen bere lanak, Eibarko historiaz monografia bat publikatu zuen 1909. urtean, *Euskal Herria* aldizkarian zenbait lan argitaratu eta *El país de los gabachos* eleberria Frantziako liberaltasunaren alde. Bestalde, Gascue-ren laguna zen, honen euskal-musikaganako begiramena zalantzan jartzen zen garaian, eta horrek eman zion haria eibartar kazetariari: «Escuché atentamente la lectura de su conferencia y, durante ella, entre infinidad de citas de autores que de la música vasca han hablado o escrito, tuve la satisfacción de oír que el capuchino donostiarra citaba al amigo Gascue, y le con-

sideraba amigo. Bello ejemplo de tolerancia, que me cautivó. Y a esta tolerancia y a la democracia eibarresa se encomendó el P. Donostia al principio de su peroración; y en verdad que hizo bien en confiar en nosotros, porque desde el beato más retrógrado, hasta los socialistas más caracterizados que en el teatro estaban, escucharon con gran interés el trabajo del P. Donostia y aplaudieron imparcialmente...» eta era horretan jarraitzen du musikako banda gorri eta iraultzaile zena Aita Donostiaren batutapean jarri arte. Gu jaio aurreko Eibarrek nolabait markaturik utzi ginduzen eta gure belarrietaraino iritsi zitzaigun anekdota hura, *Zirikadak* (1960) liburuaren 104. orrialdean datorrena, dugu harreraren lekuko.

Ikerketaz biltzen duen gauza bitxietariko bat XV. mendeko «Une mousse de Biscaye» da, IV. tomo horren 275 eta 304. orrialdeetan zehaztasun gehiagoz esaldiaren gipuzkoartasuna agertu behar zuena. Hau da, errepika aztertzean, ongi zion Aita Donostiak gipuzkoar eritzia agertzean, *Soaz, soaz ordonarequin, ordu onian* oraindik erabiltzen delako; baina, nik, gehiago esango nuke, bukaerako *-quin* (-kin) horrek ematen diola gipuzkoartasuna, zeren *ordu onian* Bizkaian ere erabiltzen da, baina ez ordea deklinabide horrekin, *-gaz* atzizkiarekin baizik.

Tomo honek, bere azken orrietan musikako exenploak pentagramaz emanik biltzen ditu.

Bosgarren tomoa ildo beretik doa. Batzutan inondiren atonkuntza bitxiak agertzen ditu bere hitzaldietan, adibidez, landare eta abere euskal kantak hain egoki adieraziz.

30 hitzaldi guztiz. Gainera, 30. hau euskarazkoa eta *Egan* bertan 1956.-ean argitaratua. Bere hasierako oharrean dionez, «Euskal-erriko otoitzak» ez omen dute gaztelerazko itzulpenaren beharrik, 20. hitzaldiaren bertsio bera delako. Baina, berdina ote? Ezetz esango nuke, gehiengoan behintzat. Euskarazko hori, medikuntza gaietatik haruntza, eguzki eta ilargi eta abar gurtzeaz ari denean euskaldunon aintzinako sineskeraz ari da eta hogeigarrenak ez du holakorik ikutzen.

Lan txalogarria egileak utzi ziguna, baina baita ere Aita

Riezuk gai eratzez eta inprimatzez bere lepora hartu duena eta zer esanik ere ez argitaratzeko laguntza prestatu eta babestu dutenena. Gure kulturarentzat oinarrizko diren lanak argitaratzeko arreta beti bait da txalogarria.

J. San Martín

J. A. ARANA MARTIJA.—*Euskal musika.* Erein, Donostia, 1985.

Unesco-k, 1985. urtea, Bach, Haendel eta Scarlatti-ren mendeurrenetan oinarriturik, nazioarteko Musika urtea hautatu zuen eta Euskal Herriak arte horretan izan duen tradizioa eta emaitza izan dira egileak adierazi nahi zuena. Izan ere, holako lan baterako gizonik egokiena zen J. A. Arana Martija, lehendik *Música vasca* (1976) liburuaren egile zenez eta hor bildu zuen gaiari dagokion *corpus* orokorra, nik dakidanik, ezagutzen den bakarra.

Aurkezpenean dion bezala: «Liburu honen eskema oso bakuna da. Gure euskal musikaren ezaupide laburra duzu, hiru funtsezko aldiak, gidoi historiko baten bidez, ematen dituena: gure herrian eta kultura berezian musika finkatzen duten ERROAK betetzen dute lehen aldia, euskal musikari nortasun berezia ematen diotelarik; gure nazionaltasunaren ENBOR sendoak betetzen du bigarren aldia, herrikoitasuna elikatu eta sendatzeko erroetatik esnea hartzen duen enborra hain zuzen; eta azkenean, unibertsaltasunari begira dauden ADARRAK, elkartuak eta urrunduak, artearen adierazpenetarako bide berriak bilatzen ari diren adar zabalak». Hara hor, hitz gutxitan liburuaren ildoa. Jakina, hor esanak ez du ukatzen, zuhaitzak bezala, lehen eta orain adarretatik ere elikatzen ez denik euskal musika.

Aditzera ematen denez, bedonekin batean beste bi adizio argitaratu dira, gazteleraz eta inglesez. Hein batean, lehengo *Música vasca* dela esango genuke, edo haren laburpena, baina zuzenketaz eta gaurkotuaz datorrena.

24. orrialdean, «Harriak kantari» jartzen duen partean, badakigu ezinezko zitzaiola guziak aipatzea, baina bai merezi zuen Etxanoko (Nafarroa) atari erromanikoaren aipamena, bereziki titiritero eta musikari elbarrituak biltzen dituelako, garaiko ohituraren adierazgarri. Gorteko musikatik aparte ariko ziren horiek, herriz-herri eta plazarik-plaza, musika barraiatuz. Hori adierazteko bestek baino lekukotasun hobea eskaintzen digutenez, holako lanetarako aipagarriena deritzagu.

Aintzinako denboretatik polifoniara jotzen du Joanes Antxieta goretsiz orainarte guti ezagutzen ziren zenbait berri eskainiz.

Oharrak egiten hasi naizenez, klasikoetan aipatzen duen Juan Andres Lonbide elgetarraz zerbait erantsi nahi diot, organulari ospetsuaren bizitzaren osagarri. Heriotz urtea zuri dakar, neuk ere hala eman nuenez *Landuz* (1983) liburuaren 162-165. orrialdeetan. Lehenik argitu dezadan, bataio agirian Lonbida dakarrela, ez Lonbide. Elgetan jaio zen 1745. urteko azaroaren 14an. Bilbotik Oviedoko katedralera joan zenetik, aspaldi ez dela arte, gauza guti genekien eta Asturiasko hiribururuko berriak gaur egun katedral hartan organulari den Angel González Pérez-ek eskaini zizkigun *Bol. R. S. V. de los Amigos del País*-en (XXXVII, 1981). Hark eman zigun Oviedo-tik Madrid-eko Convento de la Encarnación-era joan zenaren berri eta 1772an Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-eri eskaini zion «Arte del organista» liburuaren aztarnarik ateratzen ote nuen hasi nintzen, baina alperrik. Oraingoz galdutzat eman behar. Baina, handik atera nuen Madrid-en bertan hil zela, 1811. irailaren 2an.

Jose Antonio Arana Martija adiskideak berri ugari bezain jakingarri eskaintzen digu liburu honetan. Gainera, ez da historia soil bat, garai bakoitzeko giro eta ingurua bilduz bere eritziak ematen dizkigulako. Musikan jantzigabe gaudenontzat

ere berri interesgarriak eta irakurgai atsegina. Erein argitaletxeak ohi duen bezala, txukun aurkeztua dator, bai maketazioaren aldetik eta baita ere argazkiz zein marrazkiz.

Joeren gora-behera, musikan ere, plastika arteetako antzera, siklo berdintsuak agertzen zaizkigu. Plastika arteetan, apaingarri edo dekorazio aldetik begiratzen badugu, euskal estilotzat bereziki ezagutzen denaren garairik hoberenak musikarenakin parekatzen dira eta zer esanik ere ekonomiarekin duen zer ikusia. XVI. mendearen haseran indartuz mendebururako garatzen da, XVII.ean goimaila mantentzen du eta geroztik beheruntza nabari da. Hala ere, horrek ez du ukatzen garai guzietan Europaren mendebaldeko kulturan eman diren goren mailako ekintzekin harremanik izan ez duenik. Are gehiago, era guzietako etorriaz jabetu ez denik. Beste gauza bat da estiloen korrentak noiz eta nondik zabaldu ziren. Italiako *Quattrocento*-aren korrenta berandu eta Mediterraneo aldetik sartu zen, hemen borgoinesak eta flamendarrak indartu ondorean, baina ordurako naiz arginak edo naiz organulari euskaldunak hedaturik zeuden Espainia guzian. Horren aurretiko korrentak bizkorrago sartu ziren Nafar erresuma eta Santiobidearen laguntzaz, bai plastika artez eta bai musikaz, eta honen lekukorik aski eskaintzen digu liburu eder honek.

J. S. M.

APEXTEGITIK GOTTI. Jesus Mari Mendizabal. Aurrezki Kutza Probintziala. Donostia, 1986.

Argitaratu berri dira iazko IRUN HIRIA literatur sariak. Besteak beste, ipuin sailean irabazle gertatu zen APEZTEGITIK GOTTI izenekoa, Jesus Mari Mendizabalena

Ipuina lehendik irakurrita baneukan ere, berriro irakurri dut, liburuxka dotore bezain garesti (500 pezta) gisan oraingo honetan, eta lehen irakurketan sortu zitzaizkidan batzuk berritu eta sendotu egin zaizkit bigarrenean.

Lehenik eta behin, urte bete gehiegitxo dela, aukeran, obra sarituak argitaratzeko. Sariak banatzen direnean sortu ohi den irakurmina alferrik galtzeko arriskua bait dakar horrek, eta literatur lehiaketen helbururik behinenak literatur zaletasuna zuzpertu eta literatur obrak ezagutaraztea baldin badira, ahalik azkarren argitara beharko lirateke obrok: hiru hilabeteren buruan gehienik jota, nik uste. Baina gatozen harira.

Bidasoa inguruko kontrabandisten bizimodua isladatzen digu Jesus Marik ipuin honetan. Lan horietan aritutako kuadrila baten pasadizoa ardatz eta aitzakiatzat harturik, kontrabandisten halako argazki barnekoi bat osatzen digu. Pasadizoa bera sinplea da; halako bateko «paketea» pasatu beharra, ibilbideak, txapelokerren aurkako lana...

Baina pasadizoa bera baino garrantzitsuago, nabarmenago, esango nuke, izen ondo aukeratuen azpiko giza-sikologiazko zertzeladak dira. Prudentzio, Matxain, Martzial, Josetxo eta gainerantzekoak bene-benetakoak zaizkigu. Are maitagarriak ere, ipuina ez bait da inolaz ere neutrala, eta herri gizon diren kontrabandisten alde jotzen bait du Jesus Marik hasieratik bertatik, bere joera ezkutatzeko ahaleginik egiteke, gainera.

Eta gisa da, horrela joka dezan, ipuinerako baliatu duen informazioa Bidasoa inguruko kontrabandista ohiei (hala dira kontrabandista denak, beraiei sinistuz gero behintzat) jaso bait die osorik.

Informazioa jaso, eta gorago aipaturiko pasadizoaren jiran antolatu beste lanik ez du Jesus Marik egin. Hori bai: euskara bizi, dotore, egoki, ugari eta aberatsez egin du bere lana, bera goiherritarra izangatik Bidasoako esamolde eta hiztegia maisuki erabiliz.

Ez naiz literatur kritika egiten ari. Badakit hori. Baina zimendurik gabeko teilatugintza hain modako dugun garaian,

beharbeharrezkoa dugu pretentsio eta hantusterik gabeko narragintza hau

Eta horrenbestez etorri gara, ipuin honen irakurketak sortu didan bigarren kezka nagusira.

Udazken honetan onttoak bezain ugari dira gure parajeetan literatur lehiaketak, berauen artean ohizkoenak ipuin sailekoak direlarik.

Norbaitek esana duenez, apenas auzorik dagoen, bere literatur lehiaketa antolatzen ez duenik.

Eta ugaritasuna ez da, berez eta besterik gabe, txarra. Aitzitik, on eta onuragarri liteke ugaritasuna, baldin eta lehiaketa bakoitza hutsune jakin bat betetzera baletor, eta guztiak koordinaturik baleude.

Baina hemen, eta alor honetan, ugaritasuna nahasmendua da, lehiaketak elkarren gainean antolaturik daude, alor bat bera betetzeko hamaika lehiaketa topatuko dituzun bitartean, urtean behingo lehiaketa triste bat bera ere gabe geratzen da beste hainbat eta hainbat alor.

Hutsik eta utzirik dauden alor horietako bat da, nik uste, kontaera tradizionalarena. Eta hala, herri kontaeraren tradizioari heldu nahi lioketen idazleek ipuin nolabait esateko «eruditu»ago, «literario»agoen aurkako lehian aritu behar izaten dute, beren testuak ezagutzera emateko.

Eta non da kontaera tradizional bat ipuin «moderno» batekin alderatu eta erabaki lezakeen epaimahaia? Sagar errea, ala wishy-tarta, zein da gozoago?

Haur literaturaren alorrean sortu diren bezala, kontaeran ere zerbait asmatu beharra dago. Gure irudimenak ez badu lehiaketa beste zuzperbiderik asmatzeko ahalmenik, egin dezagun hori seriotasunez, diren beharrizanak, idazleen interesak eta jenero desberdinak kontutan hartuz.

Hori egiten ez den bitartean, halabeharraren mende egongo dira Jesus Marirena bezalako kontaerak. Halabeharraren, hau

da, obrak aurkezterakoan ezezagun izan ohi den epaimahaian herri literaturaren zale amorraturen bat egokitzearen, noski.

Bukatzeko, eta laburpen gisa, esan dezadan, zer ikasi handia dagoela APEZTEGITIK GOTTI honetan, nahiz eta literaturtasunaren aldetik ezer berririk ez dakarren. Eta deitoragarria litzatekeela Jesus Marik erakutsi duen idazkera trebe eta malguaren lehen eta azken emaitza berau gertatzea.

Joxerra Garzia

ANJEL LERTXUNDI. *Urtero da aurten.* Erein. Donostia, 1984.

Irakurgai laburrak lau partetan zatituak azkenean zuringoarenakin zuritzeko. Trebeki idatziak, estilo bizkorrez eta umorez. Bizia, heriotza, amorea..., dohatsu edo dohakabe; bigarrenetik gehiago bada ere, kontaera beltzenak ere umore onez orekaturik datoz. Ez dugu traszedentalik aurkituko; ez. Egileak berak ere ez zuen holako asmorik. Denbora pasaz entretenigarri irakurtzeko egina bait da.

Hirugarrenean, Etxeparegandik Arestira arte zirikadarik ez zaio falta, Ziburuko Etxeberri, Axular, Tartas, Barrutia, Sarako Etxeberri, Larramendi, Fr. Bartolome, Agirre Asteasukoa, Xenpelar, Bilintx, Tx. Agirre, Sabino, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, S. Mitxelena eta abar. Batzutan izenik agertu gabe, baina gure literatuaz kultur apur bat duenak erraz ulertzeko eraz. Baina zenbait orrialdetan hain maiztasunez aipatzen den ardoarekikoak aintzat hartzekotan Meagher-ek ere beharko zuen tokitxo bat. Bestalde, sail horretan gehiegi ez ote liburudendetakoei jakituria gehiago eskatzea? Hor esaten direnak baino handiagorik gertatu zitzaidan neri Gipuzkoako herrixka batean. Dostoievskiren *El Idiota* eskatu niolako emakumezko dendaria haserre: «Adarra jotzen ari bezera, ni ez nauzu idiotatzat hartuko!»

Berez bizigarria den liburuari txerto biziak ezartzekotan hara hemen etxez-etxe liburu saltzen ibiltzen direnena ere, irakurlea ohartuko da ez direla txikiagoak: Orain ez omen da liburu txikirik eramaten, ez eta ere ez dela itxura enkuadernatugabeko liburuak etxean bistan edukitzea, hiztegiak ere onak omen dira eztabaidak erabakitzeko eta apustuak irabazteko, eta abar. Hori gainera, liburu saltzaile berak liburu imitaziozko kajak eta armairu osoa eskaintzen ez dizunean. Holakoak entzun izan ditugu, eta entzunak entzun, gorreriaz ere oraindik entzun beharko ditugunak. Ba omen plastikozko lorekin batean liburu postizoak saltzen dituenik ere. Gogoan dut beste hura ere, etxean liburuak behar zirela eta erosi behar nizkiola, tabarra eman ondorean, baneuzkala esanagatik ere atetik kentzen ez zena, sinestu ezinez; eta erakutsi nizkionean: «A! Esan behar zenidan zerori zarela liburu saltzailea; etxean almazenarekin gainera. Kontxo; kontxo!». Baina, alderantziz, aditzea dudanez, saltzaileek ere entzun behar izaten dituzte berenak eta bi: «Har itzazu nota, liburu xorta batentzat, apalak txukun jartzeko, larru gorriz enkuadernatuak metro t'erdiko luzera osatu artio eta beste metro bat larru berdez». Ez zen behin bakarrik gertatua, eta plaentziar saltzaileari holako eskaria egin omen zioten; «Hainbeste ale larru berdez, beste honenbeste urdinez eta horrenbeste larru gorriz». Ihardespena: «Zer? Denak larruzkoak?». «Bai, zeren apainak izateaz gainera larruzko bizkarra ikutzea gustatzen zait. Kolore biziz gehiago badaude ere berdin zait». Gure auzokoak: «Hunj ¡...Ostadarrari larrua jotzea nahi zenuke ala?»

163. orrialdean dakarrenak ordea zera gogoratu dit, Eibarko fameli zekenarena. Aita etsipena emanik hilzorian eta alboko gelan semeak entierroa erabakitzen. Batak segundakoa merezi zuela aita batek, eta besteak terzerakoa ere aski zela beren mailako famelikoentzat; hirugarrena ordea, karitasen bidez edo, zerbait merkeago lortu nahirik. Baina, uste ezarren, hilzorian zen aita gizajoa adi, eta ohetik erantzuna: «Mutillak!, ekarri egidazkizue abarketak eta neu joango nauk kanposantura oinez».

Butaneroaren pasartzen ordea, 169. orrialdean, Andu ez da

ohartu nonbait euskaldunok «b», «p» bihurtzen dugunik. *In vitro*-ren kontuan ordea, plaentziarrak zionez, hainbeste «invito» eta «invito» eta geroago eta jaiotza gutiago.

Liburuko kontaerarik gehienak oso laburrak dira, batzu telegrafikoak; luzeena urte berean (1984) *Egan* aldizkari hontan agertu genuen «Samuel». Hori bai, guztiak atseginez irakurtzekoak.

J. S. M.

ETXABURU'TAR JOSE MARI (Kamiñazpi). *Ondarrabiako kondaira.* Euskerazaintza. 1986.

Liburu txukun argitaratua. Aspaldi idatzia (1974) sarrerakotik ikus daitekenez.

Kaminazpiren euskaltzaletasuna eta langiletasuna inork uka ezinezkoak dira, eta liburu honetan ere nabarmen erakusten dizkigu grina horiek.

Txomin Agirrek 1913an idatzi zuen «Ondarribi» poema erromantikoz ematen du hasiera. Eta Hondarribia geografikoki non kokatzen den adierazi ondotik mila zertzelada eta ohar bertako historiari loturik. Lehendik ezaguna zenetik haruntzago ez da joango historiaz, baina euskaraz jartzea bera ez da guti.

Hondarribiaren etimologiaz bere zalantzak ditu Jose Mari adiskideak. Gu ordea, Serapio Mujikak aspaldi esan zuenarekin gaude, geroago Florentino Portuk bere monografian zuritutzat eman zuen eritzi harekin. Hala agertu genuen *Egan*-en, 1985. urteko 5-6 zenbakiaren 152. orrialdean. Ez bai du beste munduko konplikaziorik. Behar bada, egilearen usteak ulerta-

razteko aski erakusten digu mundu guzian onartua den *metro* «neurkin» erabiltzeak. Baina, bakoitza, garan mondukoa gara.

«Juan Lazcano beltzarana...» delako bertsoa, 39. orrialdean datorrena, ez diogu zor Iztuetari. Hiru mende lehenago Bachiller Zaldibiak jasoa zuen eta haren eskuizkribuetarik beste anitzek erabili ere bai. Ikus *Egan*, 1975. urtekoan, 26-27. orrialdeetan gure argibidea. Bestalde, «Auñamendi'ko pakea» ere Kontienda deritzaion inguru haietan ez zen egin; Bidasoan Auñamendirik ez denez. Auñamendi, propioki, Pirineoko gailur baten izena da, eta gailur hori Biarno partean datza, Zuberoa eta Nafarroako mugetatik hurbil, baina Euskal Herritik kanpora.

Gainerakoan, historia oso ongi jasotzen du eta ohiturak ere ederki bildu.

Hondarribiko baserrien zerrendak ongi daude estadistikaren aldetik, baina ez ordea izenen aldetik. Horren errudun, errudunik baldin bada, Franzisko Sagarzazu alkate zena izango zen baserri askori izena oker jartzean. XVIII. mendearen bukaeran Floridablanca-ren aginduz egin zen zensoan (kopia bada Udaletxean) beste era batera datoz izen horietarik asko, baina Diputazioak joan zen mendearen erdialdera argitaratu zuen *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa* ez begiratzearen kontuak dira horiek, eta lan hori aski ondo egina zenez, oraingo zerrenda zein gaizki egina denaren lekuko dugu. Egia esan, Iñaki Linazasorok ere ez zigun nahasmendua baizik ekarri baserri izenen kontuan *Caseríos de Guipúzcoa* liburuarekin. *H gabeko umorea* txantxetakoa da, baina ez den gauza leporatzeak ez dio inori alaitzen bere umorerik. Aski dugu agertzeaz 154. orrialdean datozen *Eliz-Azpi*, *Eliz-Berri* eta *Elizgaray*, Linazasoro eta Etxabururen lanetan hala azaltzen direnak, *Nomenclátor* hartan, zein Floridablanca-rentzako osatutako zerrendan, *Elias-azpi*, *Elias-berri* eta *Elias-garaikoa* direla.

Izkerari buruzkoan oso lan polita eskaintzen digu. Azken aldera, gizon ospetsuak eta abar, Hondarribiko kanta eta doinuz eraskina eta «Geigarria» azken urteotako berririk garrantzizkoenak eskainiz.

J. S. M.

BALENDIN ENBEITA. *Bizitzaren joanean.* Elkar. Donostia, 1986.

Muxikako Enbeitatarrak emankorrak izan dira euskal kulturan. Honako liburu hau dugu horren lekukotasunetarik bat. Egilea, guziontzat oso ezaguna, lehendik ere beste liburu eder baten egilea dugu. Auspoa Liburutegiko sailean 117-118. zenbakia osatzen duena, *Nere apurrak* deritzana, duela hamabi urte argitaratua. Zoritxarrez ezbehar baten ondorioz aurtengo azaroaren 20an hila. (G. B.).

Oraingo liburu honek bere atarikoan Joseba Intxaustiren gutuna dakar hitzaurre gisa, Enbeitatarren emaitza goretsiz. Ondotik seme Keparen zenbait ohar. Aintzin solas laburron ondotik sartzen gara liburuaren mamira. Gaztaroko eta gerrako pasadisoak kontatzen ditu lehenik eta horiek historia aldetik berez duten balioa kontutan hartzekoa baldin bada ere, behar bada parterik aspergarrienak dira. Lekukotasunik ezin uka. Gainera, horien artean, honako hau irakur daiteke 34. orrialdean: «Ez dot ikusi oraindino Lauaxeta baino euskerazko hizlari ederragorik». Zeren, guk behin baino gehiagotan entzun genuen Lauaxeta eskas ibiltzen zela euskaraz mintzatzen. Eta horrek inoiz harritzen ninduan, zeren bere idazkerak, garai haietako garbizalekerien ondoan, hizkera jori eta naharoa nabari bai du.

Gerraondoko berrieri garrantzizkoagoak derizkiogu, «Ondo zainduak» deritzan kapituluko gertakariak bezalakoak oso normalak ziren frankotiarren partetik.

Bertsolaritzaz berri jakingarriak ematen ditu, bereziki gerraondoko berrastapenez eta «Garriko» bertso eskolaz, guk inoiz Muxikako eskolatzat erabili duguna eta bertako maisu eta eragilerik bizkorrena Balendin egile bera zena.

64. orrialdean aipatzen duen Euskaltzaleen bilera, ez zen 1955ean, baizik urte bete beranduago, 1956an irailaren 15 eta 16an Arantzazun. Han kantatu zituen bertsoak ikus *Euskera* agerkarian, 1956ko hirugarren alearen 301-304. orrialdeetan.

1958 eta 1959. urteetan Bizkaiko txapeldun atera zen Balendin. Mugazandik urte bete lehenago hasi eta Paris-ko txapelketak (1958) atera zuen hotsaren ondotik etorri zen gerraondoan bertsolari txapelketen berpizkundea (ikus *Egan*, 1985eko 5-6 zenbakiaren 21-49. orrialdeak). Noriberea emateko G. Hernandorena eta A. Irigoyeni zor zaie batitbat ekintza berriaren hastapena, eta hala geldi bedi bertsolaritzaren historian.

Harrigarria badirudi ere, Balendinek ez zuen ikasi bertsotan bere aita zen «Urretxindorra»gandik, aitita «Txotxojeuri»gandik baizik (Juan Antonio Enbeita izen-deituraz). Eta, honen gertakari politak jasotzen ditu liburuan. Baina, amuna Mari Jaurirenak ez dira gutiagorako. Parte horietatik aurreruntza koronika interesgarriagoa eta irakurgai atseginagoa egingo zaigu liburua. Interesgarriak direnez Juan Arrospide medikuari buruzkoak, gizonaren lekukotasuna borondatez eta ekintzaz agerraraziaz, zintzotasun osoa erakutsiz.

Baina ez da gutiago bere aita Kepa «Urretxindorra» zenari buruzko guzia. Hain ospetsua zen Kepa Enbeita, Enbeitatarretan ospetsuena noski, Muxikako auzoentzat Pedro Jeuri zen, bereziki Ariatzakoentzat. Kepa Enbeita «Urretxindorra»ren itzalak lau belaunaldiz familia honek eman dituen bertsolari guziak estaltzen ditu, besteok ere nortasun handikoak izanarren. Eta, hor dator gizonaren osotasuna seme batek ikusia.

Azkenaldera, bere adiskide Saturren gertakariak gatza eta piperra ematen diote liburuari, aurreko zenbait partetan eskaintzen duenaz gainera.

Bukaeran egilearen bertso hautatuak datoz.

Berak Saturri opa zion agurra eskainiko nioke gaur berari:

Nahizta lurrak iruntsi
Aldi baterako
Zure espiritua
Ez da ustelduko
Zer da gure bizitza
Hori ez balego.

J. S. M.

ANTZERKIA

ANTZERKIA

ZIRT ETA ZART

(Bi ekitaldiko irri-antzerkia)

Egilea: IMANOL ELIAS ODRIOZOLA

Banaketa

KATTALIN: Etxekoandrea, Patxi-ren emaztea.

PATXI: Etxeko nagusia, Kattalin-en senarra.

TERESA: Patxi-ren ama zaharra.

MIKEL: Patxi eta Kattalin-en semea.

ISIDRO: Etxeko morroia.

ON XATUR: Zientzigizon zaharra.

MIREN: On Xatur-en alaba.

ANA: Auzoko neska zaharra.

ZIRILO: Ana-ren anai mutil zaharra.

Gertaera, gaur.

LEHENENGO EKITALDIA

Baserri bateko sarrerako gela, bertan direla mahai eta esertokiak. Baita ere, nekazaritzarako tresna bakar batzuk. Gaua da.

Ikuslearen ezker aldera etxerako sarrera eta eskubitara konporako atea.

TERESA *(Eseria da errosarioa eskuetan duela).*—Guztiak erotuak direla gure etxean, pentsatzen hasia naiz! Baina, jarraitu dezadan otoitz egiten. Aita gurea, zeruetan zarena... *(Jarraituko du isilean).* Aita baina semea okerrago! Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Morroia berriz, zer esanik ez. Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).* Ederra duk gure etxeko burubidea! Agur Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).* Txorakeria ugaria eta ezer ez! Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).*

KATTALIN *(Agertuko da etxe barrutik).*—Zer? Oraindik ez al dira etorri?

TERESA.—Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).*

KATTALIN.—Baina ama. Ez al didazu entzun? Orandik ez al diren etorri galdetu ez dizut bada?

TERESA.—Ez, ez. Ez dira etorri. Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).*

KATTALIN.—Jarrai zaiozu bai otoitzean, zerbaiten beharra izango dugu eta. Ederki gelditu behar dugu etxeratzeko ziren goiko zelaiko belarrak erre badira.

TERESA.—Kaletar txoro horiek izan ere... Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).*

KATTALIN.—Kaletar eta kaletar ez direnak, ama. Kalera begiratu gabe, ingurun ere lagun onak ditugu bada esku zabal laguntza eskaintzeko. Ikusiezina galanta eta batak bestea nundik nora izurratuko...

TERESA.—Sua itzalia izango dute behintzat. Aspalditxoan ez da argitasunik ageri. Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jaraituko du isilean).*

KATTALIN *(Kanporako atetik begiratuaz).*—Ez dakit bada zer egiten ariko diren gure hiru gizonezko horiek! Surtan kis-

kaldu ez badira behintzat... Beldurtu naiz benetan, goiko zelaian izan den argitasun handiarekin.

TERESA.—Infernua! Egilearen zigorra etorri behar zaigu oraindik etxe honetara! Agur Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jaraituko du isilean).*

KATTALIN *(Teresa-rena inguratuaz).*—Infernua? Zigorra? Oraindik ere gehiago merezi dudala uste al duzu? Orain dakidan hainbat jakin izan banuen...

TERESA.—Nere semea bezalako gizon zintzorik aurkitu ezin! Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).*

KATTALIN.—Ziri ederra sartu zidazun bai, bera bezalakorik ez nuela aurkituko esan zidazunean. Langilea, jatorra... Bere ordez, alferra eta satorra galanta hori! Lanaren itzalak ere beldurtzen duena!

TERESA.—Eta beraren semea? Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).*

KATTALIN.—Hori da! Bere semea eta kito! Nik ez dut zer ikusirik berarekin, naiz eta beraren ama izan. *(Alde egiten du Teresaren ondotik).* Jarrai zaiozu bai otoitzean, alferrik da zurekin berriketan jardutea eta...

TERESA.—Aitaren Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Otoitz egiteko gogoak kendu dizkidatzu! Baina, zuk uste al duzu etxe hau altxatzeko zure beharrean zela nere semea? Zu hemen sartu ez geroztik...

KATTALIN *(Haserre).*—Ni hemen sartu ez geroztik, zer? Aurrenengo behintzat aitortu zazu egun ederragoak igarotzen dituzula. Ondoren, begiratu besterik ez duzu ukuilu aldera. Ni honuntza etorri aurrez, ametsetan ere ikusten ez zinduzen bezalako abereak dira. Eta soroak? Ingurun ez diren bezala landutakoak!

TERESA.—Guztiak, nere semeak eta bilobak landutakoak.

KATTALIN.—Horixe! Ni txistua jotzen egoten naiz bada sukalde bazterrean! Ni hemen naizen ez geroztik ikasi du jendeak

lanean etxe honetan. Ni hemen naizen ez geroz... Ederrak izango zinaten honez gero bestela! Zer jan ez, etxea eroria eta eskaleak bezala...

TERESA.—Baita zera ere!

KATTALIN.—Jarrai zazu otoitz egiten edo bestela haserretu behar dut txorakeriak entzuten.

Bigarren agerraldia

TERESA, KATTALIN eta PATXI

PATXI *(Agertuko da kanpoko atetik arnaska bizian, jantziak narraz eta zikin dituela).*—Jaungoiko santua! Zer ote zen hori? Zer ikusi dute nere begiak?

KATTALIN.—Inork jakitekotan zuk jakin beharko duzu zer ikusi duzun...

PATXI.—Sekulakoa! Sekulako tresna izugarria! Deabruak... Ez dut inoiz horrelako gauza harrigarririk ikusi.

TERESA *(Zutituaz).*—Baina, zer ikusi duk motel?

PATXI *(Eseriko da).*—Gure goiko zelaiaren sakon unean, geldi zegoen argiz betetako tresna izugarri bat. Benetan argi biziak zituen... Pauso bat ere eman ezin, beraren argiekin itxututa bezala. Mutilak! Esan behar munduko argi guztiak berarekin zituela! Argia eta hala ere ezer ikusi ezin! Nahi berari begiratzea eta ezin... Begiak erre behar zizkidan argitasunak! Gure morroiak ere hartu izango du muturrekoren bat ederra ezer ikusi ezin da. Orroe izugarri bat egin du bide zulo inguruan... Izan ere hurreratu nahirik gauza harrigarri horren ingurura sakabanatu gara eta ez dakit nun sartuak izango diren besteak. Ikusten nuena sinistu ezinean...

TERESA.—Baina, esan ez duk bada ezer ikusi ezinean izan haizela?

KATTALIN.—Utzi zaiozu mesedez, bukatu bitartean.

PATXI.—Bapatean, gutxitu edo ahuldu ditu argiak... Hasi da orduan, aurrean nuen tresna hori jiraka, ardatz bat izango bazuken bezala erdian... Eta altxatzen lurretik, geroago eta azkarrago... Berak zabaltzen zuen haizea berriz ez zen txantxetakoa! Ametsetan naizela pentsaturik, eman dizkiot bi zaplateko neure aurpegiari eta txatxamurka ere egin dut besoan... Egia! Egia benetan! Gero, berrogeita hamar bat metro altxatu denean lurretik, tximista bezain azkar ezkutatu da...

TERESA *(Eseriko da lehen zen tokian).*—Nik esan dudana. Zigorra bidaltzen digu Egileak. *(Errosarioa aterako du patrikatik eta otoitz egiten hasiko da isilean).*

PATXI.—Ezin dut sinistu ikusi dudana!

KATTALIN.—Hegazkin edo helikopteroa ikusi izango duzute.

PATXI.—Zaratarik gabe? Ez, ez... Beste zerbait zen gure goiko zelaian eta pentsatzen hasia naiz egiak ez ote diren izango behin eta berriz telebistan agertzen diren tresna horietakoak... Beste galaxia edo dena delako tokietan bizi diren horietakoenak.

KATTALIN.—Horrelako gauzekin pentsatzen hastea bakarrik behar dubu oraintxe, guztiok txotxoloturik bukatzea nahi badugu.

TERESA.—Zigorra! Zigorra bidaltzen digu...

KATTALIN.—Isildu zaitez mesedez!

TERESA.—Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).*

PATXI.—Ezin dut garbi azaldu ikusi dudan guztia. Baina, gauza horren argi biziak, beraren mogimendua azkarra jiraka, eta ondoren ezeren zarata gabe lurretik altxatzea... Eta geroago berriz, tximista bezala...

KATTALIN.—Amerikar edo rusoak ez ditugu urrutian izango.

PATXI.—Nik ikusi dudan hori asmatzeko kemenik ez du inork

gure artean. Ez horixe! Sinistu nahi ez badugu ere, nonbaiten gu baina azkarragoak bizi dira. Eta gainera, hurrean ditugu... Batere zaratarik gabe, isilean, berehala ditugu gure jabe egin da.

KATTALIN.—Baita zera ere! Gu lo egongo gaituk bada...

PATXI.—Horien aurka egiteko ez dugu ezer. Tresna horrek ez zuen indar txikia lurretik horrela altxatzeko. Ez horixe! Jiraka hasi denean zabaldu duen haizea berriz... Hori gainera! Haize horrek bota nau hankaz gora... Orain gogoratzen dut. Larrian baina, ordura bitartean zutik izan naiz. Haize horren indarrak ordea aideratu behar nituen une batetik bestera eta bota nau sasiartera...

KATTALIN.—Eta gure goiko zelaiko belarrak, zer?

PATXI.—Nik ez dut begiratzeko ere denborarik izan. Alde egiten ikusi dudanean tresna hori, etxera agudo!

KATTALIN.—Hau duk senar ausartia dudana!

PATXI.—Ausartia izatea gauza bat da eta inozoa izatea berriz beste bat. Zer egin behar nuen, tresna horren barruan zirenak berekin eman baninduen? Non eta nolatan aurkituko nintzen une honetan? Noizik eta behin beldurra izatea ez da txarra

TERESA.—Jakina! Beste guztieri gertatzen zaietena hiri ere. Beldurra, zigorra hurreratzean...

KATTALIN.—Tira ama, isildu zaitez mesedez!

PATXI.—Beldurra edo kezka... Nahi duzutena. Nondik etorritakoak diren jakin gabe eta zer asmo dituzten igarri gabe, nik egin dudana egin da hobe. Ihesi. Gainera, gu baina azkarragoak direla jakin da, jarrai dezaiotela beren bideari. Nik ez diet behintzat ostoporik jarriko. Ez horixe!

KATTALIN.—Zuk ateratzen dituzu ondorioak, txorakeri bat ikusita! Mikel-ek honelako gauzetan gehiago ulertzen du eta bera etxeratu bitartean nahiago dut isilik egotea.

PATXI.—Egia diozu. Gustokoak ditu honelako gauzak berak eta nik ikusi dudana ikusi badu behintzat, amerikar eta rusoak sortutako tresna zela ez dizu esango, horrela entzutea nahi baduzu ere.

TERESA.—Zigorra! Zigorra datorkigu!

KATTALIN.—Esan zaiozu zure amari isilik egoteko edo bestela sartuko dut txiza potzuan!

PATXI.—Utzi zaiozu nahi duena esaten. Aspertuko da bai.

Hirugarren agerraldia

TERESA, KATTALIN, PATXI eta MIKEL

MIKEL *(Arnaska dator kanpoko atetik, jantziak narraz eta zikin dituela).*—Egia al da ikusi dudana? Zuk ere, aita...

PATXI.—Bai, bai. Nik ere ikusi diat.

MIKEL *(Kattalin-ena inguratuaz).*—Eman zaidazu zaplateko bat, ama. Iruditzen zait oraindik ere ametsetan naizela...

KATTALIN.—Ez zaidazu aurpegia hurreratu edo bestela...

MIKEL *(Eseriko da).*—Izugarria! Izugarria benetan! Esan dezaketen guztia ahul geldituko litzake. Orain sinisten dut bai beste nonbaiten gu baina azkarragoak bizi direla. Ez garela gu bakarrik...

KATTALIN.—Zu ere, hau bezala?

MIKEL.—Nik ikusi dudana behintzat ez da mundu honetan egina. Ezin diteke! *(Zutituko da eta izugarrizko keinuak eginaz hitzegiten du).* Lurrean zela, hasi da jiraka... Geroago, behetik gora poliki poliki... Batere zaratarik gabe guztia. Eta metro batzuk altxatu denean, berehala ezkutatu da... Ezin dut sinistu gaur ikusi dudana!

PATXI.—Nik ere, hori bera ikusi diat eta berdin aurkitzen nauk.

MIKEL *(Eseriaz).*—Gauza hori egin dutenak ez ziren mundu honetakoak. Zihur asko tresna horren barnean zirenak, beste galaxi batekoak ziren...

KATTALIN.—Baita zera ere!

TERESA.—Egilearen zigorra!

MIKEL.—Gu baina jakintsuagoak bizi dire nonbaiten... Baina, zer indar ote zuen tresna horrek, batere zaratarik gabe ibiltzeko?

PATXI.—Azkar asko ibiltzen duk behintzat!

MIKEL.—Bai horixe! Berak zabaldu duen bezala haizea zabaltzeko, ez zen makala! Oraindik guk ezagutzen ez dugun zerbait behar du horretarako. Amerikar eta rusoen hegazkin eta espazialuntziak ez dute asko balio orain ikusi dugun tresna horren ondoan.

KATTALIN.—Tira, tira... Neroni ere txoratu egin behar nazute azkenean! Etxeko lanak aurreratzea hobe izango dugu berriketa hoieri utzita.

PATXI.—Baina, non gelditu duk Isidro?

MIKEL.—Ez al da bada zurekin batera etxeratu?

PATXI.—Ez.

MIKEL.—Goiko zelaira ere ez da bada nerekin iritsi. *(Erdi parrez).* Ederra izango litzateke tresna horretan sartuta bera eramatea.

KATTALIN.—Baita zera ere!

PATXI.—Gure etxean baina lan gehiago egiten ez badu, laster bidaliko didatek.

TERESA *(Zuzituko da).*—Jarrai oraindik ere txorakeriak esaten... Konturatuko zarete oraindik Egileak bidaltzen digun zigorra dugula inguruan...

KATTALIN *(Haserre).*—Tira ama, isildu zaitez mesedez!

TERESA.—Nahi duzutena, baina, beste era batera pentsatu beharko duzute oraindik... *(Alde egiten du etxe barrura).*

KATTALIN.—Atera behar nau nere onetikk!

PATXI.—Berak dituen urteekin, nolatan sinistu behar ditu bada horrelako gauzak? Neroni ere, buruan sartu ezinean naiz ikusi dudana.

MIKEL.—Baina, egia guztia ordea, aita. Garbi agertzen da ez garela bakarrik unibertsoan... Beste nonbaiten ere bizitza dela... Pozik emango nituzke ditudan txanpon guztiak, tresna horren barnean ziren horiekin hitzegitea gatik.

KATTALIN.—Baita zera ere! Zerbait egingo duk horiek nolakoak diren ikusita.

MIKEL.—Zer eratakoak diren jakin behintzat. Zer nolako hizkuntza duten... Nondik etorriak diren...

KATTALIN.—Hobe, gure etxeko lanak eginaraztea baino! Tira, ez dugu orain egunetan ametsetan jardun behar eta hasi gaitezen lanean...

PATXI.—Egon zaitez Isidro etorri bitartean, emakumea. Oheratu baina lehen guztiak egingo ditugu beste egunetan bezala.

Laugarren agerraldia

KATTALIN, PATXI, MIKEL eta ISIDRO

ISIDRO *(Agertuko da kanpoko atetik herrenka, jantziak narraz eta zikinak dituela).*—Hartu diat izugarria! Hil ez naizenean... Tresna naskagarri hori dela eta ez dela, hau duk zartatekoa hartu dudana. Azkenean, urteetan esaten jardun dudana. *(Eseriko da).* Norbait erori behar zuela karobi zulora eta lehenbailehen guztia apurtzea hobe zela... Baina alferrik! Inork kasorik ez eta han joan nauk goitik behera...

KATTALIN *(Parrez)*.—Zuk egingo dituzunak!

PATXI.—Itxura ederrekoa azaldu haiz behintzat...

ISIDRO.—Pake pakean, etxean gelditu banintzan hobe.

MIKEL.—Baina, ikusi al duzu beste tresna hori?

ISIDRO.—Bai al dakit zer ikusi dudan ere? Argitasuna... Argitasun izugarria besterik ez diat ikusi nik neure begien aurrean. Horregatik erori nauk karobi zuloan! Izan ere, nolatan jakin nun jartzen nintuen hankak?

PATXI.—Orduan, ez duk ikusi ezer?

ISIDRO.—Bai arranoa! Karobi zuloan hankaz gora naizela, zerbait azaldu duk neronen gainean. Argiak zizkian berak ere, baina aurrez ikusi dudanak baino txepelagoak... Gorago eta gorago eta halako batetan ezkutatu duk...

MIKEL.—Ez duzu ikusi orduan poliki poliki lurretik nolatan altxatu den?

ISIDRO.—Ikusi? Nahiko lan izan diat hanka hau zuzentzen! Hartu dudan belaunekoa, ez pentsa gero txantxetakoa izan denik!

MIKEL.—Bada zuk ikusi duzun hori bera zen goiko zelaiko sakon unean argi biziak botatzen zituela.

ISIDRO.—Tximistak erre bazuen...

MIKEL.—Geroago, argiak gutxitu ditu zerbait eta hasi da jiraka zibata zebala... Berehala, poliki poliki behetik gora, batere zaratarik gabe...

PATXI.—Eta ondoren hartu duen abiadura? Azkar asko ezkutatu duk mendien atzera...

MIKEL.—Bai horixe! Eta guztia isilean, batere zaratarik gabe.

ISIDRO.—Hemen pasatu ohi diren hegazkinak baino isiliago ibili duk hori.

PATXI.—Bai alajaina! Ez diat nik sekula horrelakorik ikusi!

MIKEL.—Ez nik ere!

ISIDRO.—Zer izan duk bada orduan?

MIKEL.—Egunkariak, irratiak eta telebistak egunero esaten ari direna baieztatu bakarrik egin du gaurko gertakizun horrek. Gu bizi garen tokian bakarrik ez dela bizitza, baizik eta beste nonbaiten ere bizitza dela. Norbaitzuk bizi direla.

ISIDRO.—Orduan nik aurkitu dudana...

PATXI.—Zer?

MIKEL.—Aurkitu duzuna?

ISIDRO.—Aurkitu dudana, bai. Karobi zulotik irtetzea kostatu zaidak, baina azkenean nolabait irten diat. Bertara erori aurrez nuen asmoa bete nahirik, goiko zelaria abiatu nauk. Ez argi eta ez txintirik... Beldurrez nindukan, egia esan. Hankako mina ere bai eta ez nolanahikoa... Hala eta guztiz ere, hanka erdi arrastan dudala, iritsi nauk bertara... Haizeak zerbait belarra mogitzen zuen unean, halako dardara bat sentitzen nuela gorputz osoan, begiratu diat alde guztietara. Ezer ez. Deabruak! Zelaiko sakon unean den harri pila ondoan, argitasuna... Joan nauk bertara beldurra nagusitua dudala. Arnasa ere hartzeko beldurrez... Eta, zer aurkitu dudala uste duzute? Zer?

PATXI.—Esaten ez baduk, ez diagu berehalakoan jakingo!

KATTALIN *(Benetan urduri egon da entzuten).*—Esan zazu agudo mesedez!

ISIDRO.—Harri bat... Handia ere ez, baina harria... Honelakoxe bat...

KATTALIN.—Lehen ere harria gehiago duk goiko zelaian belarra baino!

ISIDRO.—Ez ordea edozer erako harria. Ez arranoa! Argia... Argia duena linterna batek izan ohi, duen bezala. Halako karapilo bat jarri zaidak eztarrian ikusi dudanean... Ez nauk ausartu, ez da gehiegi beraren ingurura hurreratzen ere. Zerbait harrigarria duk nolanahi ere.

KATTALIN.—Horixe bakarrik behar gendun orain! Guztiok zoratu behar dugu gaurkoan!

MIKEL.—Horrelako argitasuna izanik, ezin diteke harri bat izan. Beste zerbait behar du...

ISIDRO.—Harriaren itxura du behintzat.

PATXI.—Gaur izan diren horiek utzi izango dute orduan bertan. Nondik nora iritsiko zen bada bestela gure zelaira?

MIKEL.—Zihur asko, biztanle horiek norbaitekin harremanetan jartzea nahi dute eta horregaitik utzi izango dute beren seinalea bezala.

KATTALIN.—Harriak ekartzeko asmoan badira behintzat, lehen diren tokian geldituta hobe!

MIKEL.—Gu aukeratu izango gaituzte harreman hoieri hasera emateko. Horrela bada, bete egin behar dugu beren nahia. Irakurria dut behin baino gehiagotan, biztanle hoiekin harremanetan jartzea egokia dela gure Gizateriarentzat eta horretarako asmoan etorri badira, aurrera jarraitu behar dugu. Benetan ospetsuak izateko bidea dugu, aurrenengoak izanik berekin harremanetan.

PATXI.—Horrela egingo diagu bada.

ISIDRO.—Gutxienez, zer den jakitea nik aurkitu dedan hori, ez duk behintzat gaizki etorriko.

MIKEL.—Zerbait ikusi izango digute biztanle horiek, gure gana hurreratu direnean. Gurekin hitz egitea nahi dutenean...

KATTALIN.—Zerbait ikusi zueri? Ziur asko, lanerako duzuten gogoa!

PATXI.—Tira, ez dira kontuak hauek txorakerian ibiltzeko.

MIKEL.—Ez eta goazen agudo! Ikusi egin behar dugu zer utzi diguten biztanle horiek.

ISIDRO.—Argi bat eraman zazute.

PATXI.—Hik ez al duk bada joan behar gurekin?

ISIDRO.—Ederra nauk berriro han gora joateko... Hanka hau honela dudala ezin joango nauk. Esan dudan bezala, sakon unean den harri piloaren ondoan aurkituko dezute.

KATTALIN.—Guztiok erotuak zaretela dirudi.

PATXI.—Ezin geldituko gara behintzat zer den jakin gabe.

MIKEL.—Goazen agudo, aita!

PATXI.—Goazen bai. Atarian den linterna hartuko diagu. *(Alde egiten dute Mikel eta Patxik kanpoko atetik).*

ISIDRO.—Neu ere pozik joango nintzen...

KATTALIN.—Baita zera ere! Zer eginik ez dugu eta etxean... Hau da burubidea!

Bosgarren agerraldia

KATTALIN, ISIDRO eta TERESA

TERESA *(Agertuko da etxe barrutik eta Isidro-rena joango da).* Gaur ere gehitxo edan al duk?

ISIDRO.—Karobi zuloan naizela sagardoa aurkitu banuen bai.

TERESA.—Gainera beste horiek sinistu egin izango dizkiete hire txorakeriak?

ISIDRO.—Sinistu ez badute ere, harria ikusten dutenean...

TERESA.—Ondo merezia izango diagu bai Egileak bidaltzen digun zigorra, hi bezalakoak gurekin izan da. Harria... Argia duen harria aurkitu dukela... Txorakeriak ugari!

KATTALIN.—Tira, ama. Beste ezer egin beharrik ez al duzu?

TERESA.—Ezer egin? Lehengo sasoia izango banuke, aurrena behintzat makilka ederrak zabalduko nituzke! Zuek egingo dituzutenak oraindik! Erorik handiena gainera hau, kanpokoa. Harri bat aurkitu duela eta beste bikote hori be-

rriz bera ikustera... Harri zahar bat ikustera alajaina! Bestela ere, etxe inguruan gutxi duk eta.

KATTALIN.—Eta orain joan diren horietako bat zure semea... Sekula harririk ikusi gabea balitzake bezala...

TERESA.—Izan ere honek hitz egin duen bezala, gutxienez urrea aurkitu duela zirudin.

ISIDRO.—Nork daki horrela ez dela izango? Guztiok aberastuta bapatean?

KATTALIN.—Baita zera ere!

TERESA.—Urrea bada, hiretzat guztia!

ISIDRO.—Zuk ez hartuko urre horren zati bat eta...

TERESA.—Urrearen ordez, zigor ederra etorri behar zaik orain-dik.

KATTALIN.—Tira, ama. Lagundu zaidazu etxeko lanak aurreratzen... *(Alde egiten du etxe barrura).*

ISIDRO.—Nik emango dizut harriaren zati bat.

TERESA.—Sartu zak zudur zuloan! Hik zoratu behar gaituk guztiok! *(Alde egiten du etxe barrura).*

ISIDRO *(Bakarrik geldítzean).*—Ikusiko litzake zahar hau ere... Etxe honetan gertatzen diren gauza txar guztien errudun naiz beti berarentzako. Egunen batetan horregatik, bapatean esan behar dizkiot aspalditxotik gorderik ditudan guztiak. Oraingoan ere nik errua, argitasuna duen harria edo delako hori aurkitu dudalako. Emango nioke ostikada bat ederra! Nik hartu dudan belaunekoa hartu izan bazuen ...Ingurun izan bazen, botako nuen pozik karobi zulora atso zahar hori! Isildu dadila betirako! *(Pentsatzen egon ondoren).* Eta aurkitu dudan harri hori? Zer ote da bera? Berari ikutzen ez nauk ausartu izan ere! Horia eta argia duela linterna baten antzera... Une batzutan ametsetan naizela iruditu zaidak! Hanka ondo izan banuen en nintzen hemen geldituko harri hori berriz ikusi gabe. Ez horixe!

Seigarren agerraldia

ISIDRO eta ANA

ANA *(Agertuko da kanpoko atetik).*—Baina, konturatu al zarete zuen goiko zelaian zer argitasun izan den

ISIDRO.—Bai bapo! Ibili ederra egina naun...

ANA.—Eta geroago, bertara begira nintzala, zerbait altxatu duk eta berehala aldegin dik...

ISIDRO.—Hik hala ere urrutitik ikusi izango dun. Gu, etxeko gizonezko guztiok, hor ibili gaitun gisa ederrean. Gaurko ibilaldia ez zaidan urteetan ahaztuko. Ez horixe!

ANA.—Lehenbizi iruditu zaidak sua zela zuen zelaian, baina ondoren nolatan altxatu den bertatik zerbait, helikopteroa edo hegazkina izango zela pentsatu diat.

ISIDRO.—Bai horixe! Beraren zarata entzun izango dun zihur asko?

ANA.—Egia. Orain konturatzen nauk ez duela zaratarik batere atera. Ezer ez.

ISIDRO.—Ez horixe! Beste era bateko tresna indartsu bat izan den gaurkoan gure zelaian. *(Ana, eseriko da Isidroren ondoan).* Indartsua eta harrigarria... Gaur guk ikusi duguna ez den gizonak asmatutakoa. Beste munduko zerbait... Mikel-ek esan duen bezala, beste galaxia batetik etorritakoa...

ANA.—Tira Isidro, ez diagu txoratu behar!

ISIDRO.—Hik nolatan sinistuko den bada? Berak zuen argitasuna... Ondoren berriz, batere zaratarik gabe, behetik gora... Dudarik gabe, gu baina jakintsuagoak sortutako indarra zinen tresna horrek...

ANA.—Esan zaidak. Esan zaidak zer eratako tresna zen...

ISIDRO.—Hobe izango dun nere nagusiari edo bere semeari galdera hori egitea. Berak, hobetoago erantzungo diten.

ANA.—Baina, hik ikusi al duk edo ez?

ISIDRO.—Nahi hainbat ez. Tresna horrek botatzen zuen argitasunarekin itxuturik, karobi zulora erori naun eta gehiegi ikusi ezin bertatik. Nagusia eta bere semea ordea, ni baina gehiago hurreratuak ditun tresna horren ondora...

ANA.—Nik baina askoz gehiago ez duk ikusi orduan? *(Zutituko da).* Eta esaten duk beste galaxia batetik etorria zela? Ederra haiz horrelako gauzak jakiteko!

ISIDRO.—Galdetu zaion Mikel-i edo bestela bere aitari.

ANA.—Bai, bai, horrela egingo diat. Esan behar motel, gaur ere zurrutean jardun dukela...

ISIDRO.—Zurrutean? Nere aldean lagun ederra dun etxean horretarako. Gaur ere zihur asko hutsean izango dun... Ez din berak ikusi izango gure goiko zelaian zen argitasunik...

ANA.—Isilik mesedez! Nere anaiak egingo dituenak! Denbora gutxian, etxean zen sagardo guztia edana dik. Egunero etxeratzen dudan ardoa berriz, gutxigi dik. Gaur goizean aurkitu diat ordea bere ezkutuko upategia, behi pintoaren askan. Zortzi litroko garrafoia bertan, ia erdia hutsik...

ISIDRO.—Beste nonbaiten ez badu hala ere beste zortzi litroko garrafoiren bat.

ANA.—Egunen baten, erdi mozkortuta dela edanaraziko zizkioat guztiak batean. Soro eta zelai ederrak dizkiagu bada beti horrela ibiltzeko.

ISIDRO.—Izan ere ardoa, ona...

ANA.—Ondo zekiat hiri ere bapo gustatzen zaikela eta horregatik ezin dizkiat sinistu esaten ditukenak. Hobe diat bai, hire nagusiari galdetzea gaur gertatutakoaren berri jakitea nahi badut. Etxean al da?

ISIDRO.—Ez. Sinistuko ez badidan ere, esango dinat zertara joana den bere semearekin.

ANA.—Ez sinistekoa bada, isilik gordetzea hobe izango duk.

ISIDRO.—Tximistak erre nazala gezurra bada! Entzun zaidan ondo. Tresna harrigarri hori izan den inguruan, benetan gauza izugarria aurkitu dinat.

ANA.—Baina, esan ez duk bada karobi zuloan egon haizela?

ISIDRO *(Zutituaz).*—Bai, bai, karobi zuloan egon naun denbora batetan. Baina, tresna horrek alde egin duenean, iritsi naun goiko zelaira. Bertan aurkitu dinat harri bat...

ANA.—Harria? Ondo begiratzen baduk aurkituko dituk gehiago ere goiko zelaira joan gabe!

ISIDRO.—Entzun zaidan mesedez isilik! Harria, bai. Harria... Baina linterna batek bezala argia egiten duena.

ANA.—Tira Isidro, nahikoa diagu!

ISIDRO.—Aurrez esan dudana! Hiretzat ezin sinistutakoa! Harri hori etxeratzeko asmoan joanak ditun nagusia eta bere semea. Sinistuko dun ikusten... *(Eseriko da).*

ANA *(Eseriko da Isidroren ondoan).*—Baina, benetan al diok? Ez ote duk amets bat izango?

ISIDRO.—Tximistak erre nazala, gezurra bada! Nik aurkitu dudan harria edo delako hori, zihur asko tresna argitsu horretan etorri direnak utzia den eta zer den jakitea benetan egokia den... Gurekin izango bagendu telebistan agertu ohi diren zientzigizon horietako bat...

ANA.—Jakintsu horietakoa? Ez diagu urrutian. Egun batzuk gure herrian igarotzera etorria duk On Xatur Galeperra bere alabarekin. Entzuna izango duk. Aita bezain azkarra alaba ere zientzia lanetan.

ISIDRO.—Nik aurkitu dudan harri hori orduan, beraren etxera eramatea onena.

ANA.—Zertarako? Bera etorriko duk pozik albistea ematen badiogu.

ISIDRO.—Ez pentsa gero, maila horretako gizonak...

ANA.—Makalak izaten dituk bada beren izena altxatzeko era aurkitzen dutenean! Horientzat, horrelako gauza berri bat analizatzea, benetan aberatsa izan ohi duk. Egia bada esaten dukena behintzat...

ISIDRO.—Beste ezer sinistu behar ez badidan ere, sinistu zaidan esandakoa. Egia dun guztia.

ANA *(Zutituaz).*—Berehala joango nauk orduan On Xatur-en bila.

ISIDRO *(Zutituaz pozik).*—Hortara, nagusiak delako harri hori etxeratzen duen ordurako, On Xatur-ek bere lana hasi ezinik ez din izango.

ANA.—Baina, gezurra esan baduk, sinistu zaidak hiru eguneko bizia dukela gehienez.

ISIDRO.—Tximistak erre nazala, horrela bada!

ANA.—Berehala jakingo diagu zer aurkitu duken. *(Alde egiten du kanpoko atetik).*

ISIDRO *(Bakarrik gelditzean).*—Zerbait sinistu izango dik azkenean! *(Eseriko da).* Baina, hau duk belauna dudana! Ez duk horregatik egun askotan zutirik izango karobi zahar hori. Ez horixe! Zerbait sendatzen zaidanean belauna, lehenik egingo dudan lana, hori betetzea izango duk. Baita nagusiak nahi ez badu ere! Lepoa hautsi ez dudanean, hala ere...

Zazpigarren agerraldia

ISIDRO eta KATTALIN

KATTALIN *(Agertuko da etxe barrutik).*—Baina, ez al duzu lanean hasteko asmorik?

ISIDRO.—Egon zaitez behintzat beste horiek etorri bitartean. Ederra naiz bada ni, edozer gauzari heltzeko!

KATTALIN.—Ordu ederra izan behar du gaur, gu oheratzerako.

ISIDRO.—Lasaitu zaitez emakumea! Ezer egiten hasi aurrez, nik aurkitu dudan gauza hori zer den jakin behar dugu.

KATTALIN.—Harri zahar galanta, norbaitek pintura edo beste zerbait eman da. Ez zara behintzat zeharo txoratua izango, bera urrea dela pentsatzen egoteko...

ISIDRO.—Hoinbeste ere ez, baina...

KATTALIN.—Tira, tira... Utzi ametsak alde batera Isidro edo galdua zara. Hobe izango dugu etxeko lanak zerbait aurreratzea.

ISIDRO.—Zure senarrak zer albiste ekartzen duen jakin gabe ez. Nahi duzun bezala hartu nere ezetza, baina berak etorri bitartean ez dut ezer egiteko asmorik.

KATTALIN.—Nahi duzun bezala, baina ez pentsa inor oheratuko denik gaur etxeko lanak bukatu bitartean. Ez horixe! *(Alde egiten du etxe barrura).*

ISIDRO *(Bakarrik gelditzean).*—Lanak hor izango dituk geroago ere! *(Belauna igortziaz).*—Hobe lanean astoak bezala jardutea, nere belaunari kaso egitea baino! Gozoa duk bada! Hala ere, burua hautsi ez dudanean...

Zortzigarren agerraldia

ISIDRO, MIKEL, KATTALIN eta TERESA

MIKEL *(Agertu baina lehen deika, kanpoko aldetik).*—Isidro! Ama! *(Agertuko da, larrian arnaska).* Jainko santua! Ez dakit zer gertatu zaion aitari.

ISIDRO *(Zutituaz).*—Aitari? Non duk bera?

MIKEL.—Ezin dut ulertu zer gertatu zaion. Deabruak!

KATTALIN *(Agertuko da etxe barrutik, ondoren Teresa duela).*—Zer gertatzen da hemen? Non da aita?

MIKEL.—Aita? Deabruak!

KATTALIN.—Aita, bai. Aita... Non gelditu da bera?

MIKEL.—Gelditu? Gure aita gelditu? Deabruak!

ISIDRO.—Baina, beste gauza hori aurkitu al duzute?

MIKEL.—Aurkitu eta baita nere aitak berari heldu ere... Jainko santua! Bapatean hasi da dardara bizian eta brinkoka... Une batetik bestera berriz, korrika... Gelditu ezin! Deabruak! Eta, nolatan korrika egin gainera? Motor baten gainean baina azkarrago... Deabruak! Ez dut nik sekula ikusi horrelako korrikalariak! Alde batera eta bestera, tximistaren antzean, pendizak ere nolanahi pasatzen dituela... Deabruak!

KATTALIN.—Baina, non da orain?

MIKEL.—Une batetan jarraitu dut beraren ondoren korrika harrapatuko dudalako ustean... Deabru madarikatuak! Harrapatu? Ez da zaldiaren gainean izan da ere!

TERESA.—Zigorra. Benetako zigorra datorkigu azkenean. *(Eserriko da eta errosarioa ateriaz patrikatik, otoitz egiten hasiko da).*

KATTALIN.—Madarikazioren bat detorkigu etxera.

MIKEL.—Honez gero, Jaungoikoak jakingo du noraino iritsia den nere aita.

ISIDRO.—Baina, ez al diok deitu berari?

MIKEL.—Deitu? Ez alferrik! Zihur naiz ez didala entzun ere egin. Saltoka eta brinkoka, oraintxe aldapen gora... Berehala goitik behera... Deabruak! Eskerrak ez diodan ikutu neronek ere argia duen gauza horri. Bestela gelditu ezinean nintzen aita bezala.

KATTALIN.—Sorginkeri nazkarriren bat diagu inguruan! Tira, goazen agudo beraren bila. Ez ote da behintzat etxetik gehiegi urrutiratua izango...

ISIDRO.—Ez al dugu hobe izango On Xatur eta bere alaba etorri bitartean hemen egotea?

KATTALIN.—On Xatur? Noizik eta behin herrira etortzen den agure zahar hori?

MIKEL.—Ederra duk bera nere aitaren atzetik korrika ibiltzeko!

TERESA.—Egileak bidaltzen digun zigorra. Orain jakingo dugu nortzuk diren hemen errudunak...

KATTALIN.—Tira ama, isildu zaitez! Ez da unea txorakeriak esaten jarduteko!

ISIDRO.—On Xatur-ek igarri dezaioke zer den argitasuna duen harri edo delakoa... Zer indar duen berak... Zer egin dezakegun nagusia gelditzeko ito baina lehen. Horrelako lanetan ez da bada On Xatur bere bizitza osoan ?

KATTALIN.—Txorakeriak!

MIKEL.—Txorakeriak ez, ama. Arrazoi du oraingoan Isidrok. Berak jakin dezake, beste inork baino hobetoago, zer den aurkitu dugun gauza hori. On Xatur-i albistea ematea dugu egokiena.

KATTALIN.—Horrela bada... Zoaz orduan Isidro. Gu, goazen bitartean aitaren bila.

ISIDRO.—On Xatur-i albistea eman diote honez geroz. Oraindik denbora asko ez dela, hemen izan da Mandiolako Ana eta bera joan da albistea ematera.

KATTALIN.—Orain ere hemen, emakume zarpailu hori! Goazen agudo nere senar arlote hori nonbaiten aurkitu dezagun...

ISIDRO.—Honela ezin joango naiz... Ederra naiz bada, korrika egiteko!

KATTALIN.—Etxearen ingurua bada ere zaindu zazu behintzat. Tira, goazen agudo! *(Alde egiten du kanpoko atetik, ondoren Mikel duela).*

ISIDRO.—Nere ingurura hurreratzen bada, emango diot makilka ederra! Berehala gelditu dut!

TERESA.—Hori duk, nagusia jo!

ISIDRO.—Nik ezin badut korrika egin, berak makaldu beharko du... *(Alde egiten du kanpoko atetik, herrenka).*

TERESA *(Bakarrik gelditzean).*—Ikusiko litzake zer nolako morroi azkarra dugun... Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Gizonaren neurri gabeko asmaketak azkenean, Egilearen haserrea dakar... Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).* Guztiok nahastuak gara izan ere! Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Zigorra iristean berriz, guztiok beldurrean. Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).* Otoitz egin beharrean, Egilearen haserrearen ordez barkamena iristeko, guztiak biraoak ahotik zinzilika dituztela. Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Zigorra azkenean! Santa Maria. Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).* Usteko dute gainera, beste mundu batetako biztanleak ditugula inguruan... Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Ongi merezia datorkigu bai. Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).* Nere seme gizarajoak azkenean, guztien zigorra jaso behar. Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Etxeko sorgin zahar hori aukeratu bazuen hala ere... Santa Maria, Jaungoikoaren ama... *(Jarraituko du isilean).*

Bederatzigarren agerraldia

TERESA eta PATXI

PATXI *(Agertuko da zeharo nekatua kanpoko atetik. Izugarrizko dardara du, gelditu ezinean).* Jainko errukitsua! Hau da dardara dudana! Ito behar dut azkenean! Gelditu nazazue mesedez agudo edo bestela hesteak ere ahotik irten behar didate. Gelditu nazazue mesedez!

TERESA *(Patxi agertu orduko zutitua izango da).*—Baina, zer gertatu zaik motel horrela izateko

PATXI.—Deitu zaiozu agudo Mikel-i edo Isidro-ri... Gelditu nazatela agudo!

TERESA.—Tokitan izango dituk! Hire bila joanak dituk guztiak.

PATXI.—Kattalin-i orduan. Deitu zaizu berari.

TERESA.—Besteekin batera joana duk bera ere.

PATXI.—Harri nazkagarria! Ez dakit zer gertatu zaidan berari heldu diodan unean. Baina, zerbait eman zaidazu agudo gelditu nadin. Honela ezin dezaket denbora luzean jarraitu...

TERESA.—Baina, zer ematea nahi duk bada nik?

PATXI.—Zerbait egin zaidazu behintzat gelditu nadin.

TERESA *(Helduko dio Patxi-ri).*—Garai batetako indarrak izango banituzke...

PATXI.—Hezurren bat galdu behar dut azkenean. Jainko santua! Hau da dardara dudana! Eskerrak gainera korrika saioa noizbaiten bukatu dudan. Hankak hautsi ez ditudanean hala ere... Zer ote du harri horrek indar hori izateko?

TERESA *(Indarka jardun du Patxi gelditu nahirik, baina ezin du).* Beraren beharra beharrezkoa diat neronek ere hi gelditzea nahi badut. *(Utziko dio Patxi-ri).* Alferrik nauk honela. Sendagileren batek kendu beharko dik dardara hori.

PATXI.—Eta bitartean honela jarraitu? Hezur guztiak galduko ditut. Zerbait egin zaidazu agudo gelditu nadin edo bestela semea galdua duzu. Ezin dezaket honela jarraitu... Gelditu nazazu mesedez agudo! *(Alde egiten du etxe barrura).*

TERESA *(Bakarrik gelditzean).*—Baina, zer egin dezaket nere semeari dardara hori kentzeko? Bera gelditzeko? *(Gelako txoko batetan den erretza hartuko du).* Orainartean ezagutzen den erremediorik onena eta azkarrena norbait gelditzeko, egoki emandako zartatekoa da dudarik gabe. Bai horixe: Berehala geldituko dut gelditzekoa bada! *(Alde egiten du etxe barrura, eskuetan erretza duela. Zartateko bat*

eta orroe bat entzungo da barruan eta berriro agertuko da erretzaren girtena apurtua duela). Gelditu da bapo oraingoan. Beharko! Buruaren erdi erdian eman diodan zartatekoa ez da txantxetakoa izan. Mandorik handiena ere botako zuen hankaz gora!

Hamargarrena agerraldia

TERESA eta ISIDRO

ISIDRO *(Agertuko da kanpoko atetik).*—Joatea zeukatek bada nahi badute! Nik ezin dut! Nekatzen denean etxeratuko da zure semea.

TERESA.—Etxeratu? Lehen ere hor duk barruan... Geldi askorik gainera!

ISIDRO.—Etxean dela? Noiz etorri da bada?

TERESA.—Hi asko konturatu gabe iritsi duk hori. Gelditu ezinean bazen ere, bapo gelditua duk! Ez dik horrek egun batzutan korrika egiteko gogorik izango. Ez horixe!

ISIDRO *(Erdi barrez).*—Erretzarekin jo al duzu?

TERESA.—Buruaren erdi erdian. Eta plost! lurrera txintirik egin gabe. Gelditu duk bapo!

ISIDRO.—Betirako gelditu ez baduzu hala ere... *(Alde egiten du herrenka, etxe barrura).*

TERESA *(Isidro-ren ondoren joanaz etxe barrura).*—Orain, ohean sartuko diagu... *(Antzeztokia inor gabe gelditzean, itzaliko dira argiak edo ZAPIA jeitsi).*

BIGARREN EKITALDIA

Antzeztokia, lehenengo ekitaldian bezala izango da

Aurrenengo agerraldia

PATXI, TERESA eta MIREN

PATXI *(Burua bendaturik eseria da. Tarteka, izugarrizko keinuak egiten ditu. Miren, pultsoa hartzen ari zaio berari eta ordulariari begira).* Jotzen hasi eta baita jo ere! Zerbait handiagoa eta beste mundura konturatu ere egin gabe.

TERESA *(Eseria da).*—Bestela nolatan gelditu?

PATXI.—Zerbait txikiagoa ere nahikoa izango nuen. Buru ederra dut bada orain...

MIREN *(Haserre eta bata zuri bat jantzia duela).*—Egon zaitez geldi gizona! Ezin igaroko dut ordu betea zuri pultsoa hartu ezinik!

PATXI.—Nahiago nuke neronek ere geldiago izatea. Uste al duzu nahi dudalako egiten ditudala keinu hauek?

MIREN.—Ez dakit zer esan oraintxe!

TERESA *(Zutituaz).*—Beste zartateko bat berehala emango diat.

PATXI *(Zutituaz).*—Zer? Beste buruko bat emango didazula? Ez horixe! Edozeinek pentsatu dezake, ama, beste mundura bidaltzeko gogoa duzula.

MIREN.—Mesedez, zaude geldi! Alferrik naiz bestela hemen!

PATXI *(Eseriko da).*—Gehiago burukorik ez behintzat edo bestela norbait itoko dut.

TERESA.—Izan ere zuek egingo dituzutenak! Gau guztian begirik ez diat itxi zuen iskanbilak direla eta ez direla. Azkenean gainera, harri zahar edo delako hori etxeratu... Hobe, txorakeri horietan ibiltzea etxeko lanak egitea baino! Iritsiko diagu zerbait oraingo eran...

PATXI.—Harri horrek, oraindik gizonak ezagutzen ez duen indarra du.

TERESA.—Eta horrela jarraituko dik. Baina, hik uste al duk On Xatur edo delako horrek zerbait igarriko diola?

PATXI.—Tira, ama...

TERESA.—Berak zerbait igarri bitartean zain egon behar badugu...

MIREN *(Haserre).*—Baina zuek uste al duzute nere aitak ez duela jakinduririk horretarako?

TERESA.—Baita zera ere!

MIREN.—Eta baita neronek ere! Hori baina lan zailagoak izango ez bagenituzke! Baina, zuek uste al duzute gure langintza artoa jorratzen jardutea dela? Zientzia lana da gure eginkizuna. Urteak ditugu langintza horretan etengabe eta inork igarri balezaioke harri hori edo delako hori zer den eta zer indar duen, nere aita eta nik egin dezakegu. *(Teresaren ondora joanaz).* Zuk nahi baduzu, zirt eta zart zartatekoak ematen jarraitu zazu, baina zientzia lanetan utzi zaiguzu pakean.

PATXI *(Zutituaz).*—Tira ama, zoaz sukaldera. Ezer ez dakizun gauzetaz isildu zaitez...

TERESA.—Zuen jakinduria alferrikakoa izango da Egilearen zigorrari aurka egiteko. Anferrikakoa guztia! *(Alde egiten du etxe barrura).*

PATXI.—Zigorra emateko ez da nere ama ere txantxetakoa! Beraren jardunak nere onetik atera behar nau. Urteak ere bai eta barkatu zaiozu berari...

MIREN.—Ohitua naiz horrelako gauzak entzuten. Ez dio ajolik.

PATXI.—Zer? Zerbait moldatzen ari al naiz?

MIREN.—Bai, bai. Pultsua bere onera etorria duzu. Goizetik honuntza bitartean ere berriz, dardara eta keinuak asko gutxituak dituzu.

PATXI.—Ederra naiz hala ere lanean hasteko... Lehen behiak eraitsitzen naizela ikaraldi ederra hartu dut. Esnea biltzen naizela, keinu hauetako batekin, tititik gehiegi tira izango diot behiari eta bota didan ostikadak jo banituen oraindik ere aidean nintzen.

MIREN.—Gauzak patxadan eta lasai hartu behar dituzu Patxi. Zuek aurkitutako harri hori analizatzen dugun unean, izango dugu zure keinu horiek mozteko era. Bitartean, lasai hartu bada gauzak... Orain aitari lagundu beharko diot. *(Alde egiten du etxe barrura).*

PATXI.—Bai, bai, *(Eseriko da bakarrik gelditzean).* Hau duk burua dudana! Eskupeta bat eman izan banuen goiko zelaira joan nintzen unean... Tresna azkarraren barruan zenari zudur zulotik sartu izan banizkion perdigoe batzuk... Eta etxeratu dugun harri horrek? Zer indar du gero? Nik zer pentsatuko nuen bada dardara hau jarriko zitzaidala berari ikutu ondoren? Eta korrika? Azkarrak ikusi dizkiat nere bizitzan baino, ni bezalakoak ez berari ikutu ondoren. Atzo gauean alferrik ziren neretzat pendiz, langa edo paretak... Ito ez nintzenean... Harria edo delako hori ikutzea nahikoa izan nuen... Halako zaztada bat sentitu nuen gorputz guztian eta gelditu ezin... Hankak, pentsamendua ere baina azkarrago... Hezurrak osorik ditudanean ere... Sorginkeri bat zirudin. Eta ondoren, amak eman izango didan burukoa? Urte osorako buruko mina jarri izango zidak. Hau duk itxura dudana!

Bigarren agerraldia

PATXI eta ZIRILO

ZIRILO *(Gehiegi mozkortu gabe baina zerbait edana dela igartzen zaiola. Kanporako atetik agertuko da).*—Eup! Sartu al diteke?

PATXI *(Beretzat).*—Honek konponduko ditu gure etxeko gertakizunak!

ZIRILO *(Ate ondotik).*—Zer diok? Sartzeko baimena ematen al didak?

PATXI.—Aurrera, aurrera... Orain ere edozeinen aurrean azaltzeko eran izango haiz eta aurrera beldur gabe.

ZIRILO *(Erdi barrez hurreratuko da Patxi-rena).*—Norbaitek traktoreakin zapaldu al dik burua? Ez duk ederki gelditu izango bera ere. Ez horixe!

PATXI.—Tira, egonadi isilik txorakeririk esan gabe. Berriketarako batere gogorik ez diat gaurkoan.

ZIRILO *(Barrez).*—Eta keinu horiek? Norbaitek eztenkadak ematen al dizkik tarteka? Hori duk itxura dukena!

PATXI.—Egin zak barre. Errezena hori duk... Eztenak baina indar gehiago duen gauza diagu une honetan gure etxean. Hiri ere, edateko gogoa berehala kenduko dik...

ZIRILO.—Eta edan gabe egon? Ez, ez. Nahi baduzute nere arrebari eman zaiozute. Gainera bera, hemen izango duk zihur asko beste egun askotan bezala...

PATXI.—Bai. Hor duk On Xatur eta bere alabari lagundu nahirik.

ZIRILO.—Zer? On Xatur hemen dela? On Xatur Galeperra, jakintsua?

PATXI.—Bai, bai. Hemen diagu lantxo bat egitera etorria bere alabarekin. Ezagutzen al duk bada bera?

ZIRILO.—Ezagutu? On Xatur, ezagutu diok? Berarekin ikasi nian irakurtzen eta idazten. Garai batetan gure etxeko esnea izaten zidan egunero On Xatur-ek. Nere maisu jakintsua!

PATXI *(Beretzat).*—Ederrak gaituk orduan!

ZIRILO.—Zer esan duk?

PATXI.—Hire maisu horrek ez diola berehalakoan igarriko eskuartean duenari.

ZIRILO.—Baina, hik uste al duk ezer egin gabe iritsi duela ospetsua izatea? Lan handiak egin dizkik On Xatur-ek.

PATXI.—Hirekin ez ziren behintzat gehiegizkorik egin.

ZIRILO.—Gaztea ninduken eta jakina, errez utzi ikasketak egiteari... Gainera, etxean ere lan asko... Baina, jarraitu izan banuen, ez pentsa gero On Xatur-en inguruan ez nintzenik izango. Bere mailara iritsia ninduken ni ere...

PATXI.—Orain baino zerbait gutxiago edan behar horregatik?

ZIRILO.—Baina, hik zer uste duk? On Xatur-ek esnea eta ura bakarrik edaten dituela? Ardoa eta ez nolanhikoa gainera! Lehengoa bada, orain ere zurrut ederrak egingo dizkik!

PATXI.—Hik ere maisuari jarraitzen diok.

ZIRILO.—Berak edaten duen ardoa bezain ona ez badiat ere, zurrut batzuk egitea gustatzen zaidak...

PATXI.—Zurrut batzuk bakarrik?

ZIRILO.—Goizean batzuk... Eguerdian...

PATXI.—Eguerdian beste batzuk eta arratsalde eta iluntzean berriz zer esanik ez. Zeharo mozkorra pasatu baina lehen, berriro ere berdin.

ZIRILO.—Izan ere ardoa ederra duk eta!

PATXI.—Zuen soroak ez dituk behintzat oso ederrak. Berak landu behar dituk zerbait jasotzea nahi baduk.

ZIRILO.—Bi lagunentzako nahikoa jasotzen diagu...

PATXI.—Gehiego ere jaso ezinik ez, lana egin ez gero.

ZIRILO.—Lana, zenbat eta gutxiago hobe diagu hemendik aurrera.

PATXI.—Alferrik duk hirekin jardutea! Horrela jarraituko duk honez gero. Eta bitartean burua lertu berhar zaidak...

ZIRILO.—Burua lertu? Muturreko ederrak hartu behar dituk keinu horiek eginaz ibili behar baduk...

PATXI.—Hartu? Oraindik gehiago? Ematen hasi behar diat, ematen!

Hirugarren agerraldia

PATXI, ZIRILO, ISIDRO, MIKEL eta TERESA

MIKEL *(Etxe barruan deika).*—Isidro! Isidro!

ISIDRO *(Etxe barrutik agertuko da eskularruak jantziak dituela eta kanpoko atetik alde egiten du korrika).*—Zer duk hau? Zer gertatzen zait neri?

PATXI *(Zutituaz).*—Ikutu izango ziok horrek ere!

MIKEL *(Agertuko da etxe barrutik, bere ondoren Miren duela).* Aita! Aita! Zu bezala hori ere! Harriari ikutu izango dio...

PATXI.—Korrika saio ederra egin beharrean duk orduan! Goazen beraren ondoren. *(Alde egiten du kanpoko atetik, Mikel eta Miren ondoren dituela).*

ZIRILO *(Bakarrik gelditzean).*—Gehiegi edan izango diat gaurkoan. Ametsetan ez banaiz behintzat... *(Bere aurpegian zaplateko bat ematen du).*—Edo bestela, etxe honetan guztiak erotuak dituk. Harriari ikutu diola... Itxura denez, hanka gainera ez zaio behintzat harririk erori edo bestela makalago joango zen.

TERESA *(Agertuko da etxe barrutik, makila bat eskuan duela).* Nere ingurura hurreratzen bada, zart! lehengoari bezala... Gelditukо dut... Bai hala zankoa! *(Alde egiten du kanpoko atetik).*

ZIRILO *(Bakarrik gelditzean).*—Zirilo, Zirilo... Behin hemen haizen ez gero ez duk alde egin behar etxe honetan zer gertatzen den jakin gabe. Ez arranoa! Haserretu ez badek On Xatur eta guztieri eztenkadak ematen hasi... Nere arreba non den jakin behar diat lehendabizi... *(Etxe barrura dijoela, Kattalin dator bertatik eta topo egiten du).*

Laugarren agerraldia

ZIRILO eta KATTALIN

KATTALIN *(Algaraz dator).*—Ja, ja, ja! Hankako minez zela gure morroia? Makala joan duk bada! Ibili ezinean bazen ere... *(Zirilo-ri).* Oraintxe osatu gaituk guztiak! Hi bakarrik palta orainartean... Pozik jakingo nikek zer egin liteken hiri harri horrek.

ZIRILO.—Handia bada eta hanka gainera erori, behatzeko galanta!

KATTALIN.—Zurruterako gogoa kendu ere bai zihur asko.

ZIRILO.—Baina, esango al didazu zer gertatzen den gaur hemen? Oraintxe, gehiegi edan izango dudala pentsatzen hasia naiz.

KATTALIN.—Atzo iluntzea ez gero ez duk giro! Gainera guztiok korrika ibili behar ez badugu oraindik, zikinkeri hori etxean dugula... Zoratu egingo gaituk azkenean!

ZIRILO.—Nere arrebak etxeratuta hobe du orduan lehenbailehen.

KATTALIN.—Hik ere berdin egitea hobe korrikan hastea baino. Nahikoa duk hor barruan den harri edo delako horri ikutzea, Isidroren antzean izateko.

ZIRILO *(Erdi barrez).*—Ikutu dioloka korrika? Igartzen zaio bai nolako ganora duen lanerako...Ihesi alajaina lana ikusi orduko? Bakinabat bider esana dizut lehenago ere, beraren ordez hobeagoa nazutela ni etxe honetan. Orain ari zarete konturatzen, orain...

KATTALIN.—Oraingo itxuran egingo duk hik lana. Ikutu zaiok harriari eta esango didak ondorenean...

ZIRILO, KATTALIN eta ON XATUR

XATUR *(Agertuko da etxe barrutik haserre. Bata eta buruko estalki zuriak ditu, eskularruak ere bai).*—Madarikatua! Madarikatua benetan harri zahar hori! Kaka zaharra! Laguntzailerik gabe gelditu nauk! Oraintxe ia mahai gainera jasorik genduen unean, beste horrek izan ere zudurrakin ikutu dio harriari. Kontuz Isidro... Kontuz... Hainbeste bider esan diot, baina hala ere alferrik! Irristada bat eta zapla! zudurrarekin alajaina! Eskerrak berehala alde egin duen, bestela mailuarekin joko nuen buruaren erdi erdian! *(Kattalin-i).* Senarra ezezik semea ere ausartia duzu behintzat benetan. Ez diola berak harriari helduko eta azkenean morria... Hori baina laguntzaile arloteagorik! Zutik egon ezinean, belaunean min duela eta... Beste norbait aurkitu beharko duzute nere lanari jarraitzea nahi baduzute.

KATTALIN.—Honek laguntzen ez badizu... Beste guztiak Isidroren ondoren joanak dira.

XATUR.—Gutxienez mahai gainean jarri bitartean behintzat norbaiten beharra dut. Tira, etorri bada nerekin.

ZIRILO.—Zer? Nik lagundu?

XATUR.—Jakina! Ez al duk entzun beste gizonezkorik ez dela etxean? Indarra duena behar diat harri hori mahaiaren gainera altxatzeko.

ZIRILO.—Beste norbait aurkitzea hobe izango duzu orduan.

XATUR.—Baina, oraindik ere lanean ez duk ikasi? Umetan nerekin ikasketak egiten ibilitako gogo bera oraindik ere? Ez lehen eta ez orain!

ZIRILO.—Hemen ikusi dudanarekin izutua naiz zeharo.

KATTALIN.—Baita zera ere! Edaria nagusi orain ere beste egunetan bezala.

XATUR.—Begira. Zientzia lan bat egiten ari nauk une honetan. Orandik beste inork eskuartean izan ez duen zerbait diagu. Beraren berri munduari jakinarazten diogun unean gure izenak benetan ospetsuak izango dituk. Ni eta neri laguntzen direnak, munduan zehar ate guztiak zabalik beti... Eskuartean dugun indar horren berri ezagutzera ematea besterik ez diagu behar nahi duguna iristeko.

ZIRILO.—Horrela izan da, Isidrok zergatik alde egin du korrika?

XATUR.—Txotxolo zahar bat besterik ez delako! Zientzia lanetan, hori bezalako gizonak ez dutelako tokirik! Atera zak kontu, zenbat gauza jakin dezakegun harri horren bitartez. Nondik eta nolatan iritsi den gure artera. Zerekin osatua den... Zerk ematen dion indarra...

ZIRILO.—Baina, oraindik ez dut ikusi harri hori.

XATUR.—Ikusiko duk. Ikusiko duk, baldin laguntzeko gogoa baduk. Ez nauk ari ametsetan eta entzun zaidak ondo. Pentsatzen nauk urrea bera baino ere baliotsuagoa dela harri hori... Urreak baino aberastasun handiagoa eman dezakena...

KATTALIN.—Zer? Urrea?

XATUR.—Horrela pentsatzen dut, baina aurrez analizatu egin behar dut egoki.

KATTALIN *(Pozik)*.—Jainko santua! Hori, egia balitzake...

XATUR.—Berehala erabakiko ditugu gauzak, baldin inor laguntzeko prest bada behintzat.

KATTALIN.—Tira, lagundu zaiozu mesedez...

ZIRILO.—Tentazio ederra jarri didazu behintzat, On Xatur.

XATUR.—Lagundu zaidak agudo. Ezer ez zaik gertatuko, baldin ez badiok harriari ikutzen.

ZIRILO.—Baina, ez al didazu esan, harria mahai gainera jasotzeko indarra behar duzula?

XATUR.—Bai eta goazen agudo!

ZIRILO.—Harriari ikutu gabe ez da erreza izango horregatik bera lurretik altxatzea...

XATUR.—Eskuetan jazteko zerbait emango diat. Goazen agudo!

ZIRILO.—Goazen bada, baina gogoan izan, nik ere zerikusia dudala baldin aberastasunik bada etxe honetan.

KATTALIN.—Hori, geroago hitzegingo diagu. *(Alde egiten dute etxe barrura On Xatur eta Zirilok).* Gure etxean denak, on egindo dik! *(Erdi barrez).* Eta gure morroi arlote horrek zudurrarekin ikutu diola harriari? Bizia ez bada ere, azkartu da oraingoan! Atzekaldean zuziria sartuta zuela zirudin! Beste mozkor hori ere, gure morroia bezala ikusiko nuke pozik. Ez zaio gaizki etorriko horrelako korrika saio bat egitea berari. *(Pentsatzen egon ondoren).* On Xatur-ek esan duena egia izatea bakarrik behar genduke orain. Urrea bera baino hobeagoagoa izatea, behin eta berriz madarikatu dudan harri zahar hori...

Seigarren agerraldia

KATTALIN, PATXI, MIKEL, ISIDRO eta MIREN

PATXI *(Agertuko da kanpoko atetik, Mikel-ekin batera Isidro erdi arrastaka dutela. Beren ondoren Miren).* Gelditu duk horregatik! Beharko!

MIKEL.—Eskerrak zuri, aita.

PATXI.—Bai horixe! Sekula ez diat izan punteri ona, baina gaurkoan marka guztiak zapuztu dizkiat!

KATTALIN.—Baina, zer egin diozute?

PATXI.—Zer egin? Zera... Harrika ederra eman diodala.

MIKEL.—Eskerrak bide zuloan sartu den edo bestela pare bat egunean gelditu gabe ibiliko zen.

PATXI.—Bai horixe! Ikusi dudanean ordea, hartu diat lehen aurkitu dudan harria eta ditudan indar guztiekin, zapla! buruaren erdi erdian, eta plost lurrera txintirik egin gabe.

KATTALIN.—Hil ez baduzute hala ere.

PATXI.—Ez du txantxetako harrikada hartu gaurkoan! Buru gogorra da baina, gaurko zartatekoa gogoratuko zaio hemendik pare bat urtera ere.

KATTALIN.—Zuk egingo dituzunak oraindik!

MIKEL.—Neregana hurreratu bazen ere berdin egingo nion. Harri ederra nuen bada...

PATXI.—Bestela nolatan gelditu hau? Zuen abiaduran, ez dakit nolatan ez den aideratu hegazkinak bezala.

MIREN.—Gizon gizarajoa horrela eduki gabe, eman zazute barrura. Ohean etzan zazute eta bertan begiratuko diot.

PATXI.—Goazen bada... *(Alde egiten dute Patxi eta Mikel, Isidro erdi arrastaka dutela).*

MIREN.—Ez dio behintzat txantxetako burukoa eman izango.

KATTALIN.—Gure urreak on egingo digu berari ezbeharren bat gertatzen bazaio...

MIREN.—Lasaitu zaitez. *(Alde egiten du etxe barrura).*

KATTALIN *(Bakarrik gelditzean).*—Baina zer indar ote du harri horrek? Berari ikutu orduko, guztiak brinkoka eta korrika gelditu ezinean alajaina? Lehen argia eta orain buru egokiagoa izango du gure morroiak... *(Alde egiten du etxe barrura).*

Zazpigarren agerraldia

TERESA

TERESA *(Agertuko da kanpoko atetik, makila eskuan duela).*—Garai batetako sasoia izan banuen, ez zuen harria bota beharrik izango gure Patxik. Ez arranoa! Alferrik izango zen azkarra... Harrapatuko nuen eta nere makilak eraitsiko zuen... Zirt eta zart, lepoan edo buruan! *(Eseriko da).*

Pentsatzen hasia naiz, zigorraren ordez, Egileak ez ote digun bidali izango neurri gabeko opari bat. Horrelako sasoia ematen duenez harri horrek, benetan pozgarria izan diteke ni bezalako zaharrentzat. Gaztetasuna erantsitzen duela diruri berari ikutzen dioten guztiei... Gure morroiak bezala korrika egitea gatik, neronek ere ikutuko nioke. *(Zutituaz).* Hezurrak galdu gabe izango nintzakela jakingo banuke... Baina, horrela korrika ibili ez gero, zudurra ere galduko nuke bidean. Haize pixkat hartzea hobe izango dut horrelako gauzak pentsatzen egotea baino... *(Alde egiten du kanpoko atetik, makila eskuan duela).*

Zortzigarren agerraldia

PATXI eta KATTALIN

PATXI *(Agertuko da etxe barrutik, ondoren duela Kattalin).* Ederki jo dut bada! Bide zuloan gora, tximista baino azkarragoa zen... Hartu dut harria eta eman diot musu berari... Bota dut indar guztiakin eta zapla! buruaren erdi erdian.

KATTALIN *(Barrez).*—Eta bapatean, geldi.

PATXI.—Hankaz gora geldi eta txintirik egin gabe. Ez nuen sekula uste horrelako punteria nuenik. Eskerrak ordea hemen ingurun jiraka ibili den, bestela ez gendun sekula etxeratuko. Zuzenean joan izan bazen, Jaungoikoak daki une honetan non izan ziteken.

KATTALIN *(Barrez).*—Hori izango zen ederra! Herritar guztiak atzetik jarraitzen ziotela...

PATXI.—Barre egiten dugu baina, ez du une ederra igaro izango gure morroiak. Kontuan izan, nik ondo frogatua dudala. Une honetan berriz, berak buruko mina badu, neronek ere ez dut nolanahikoa.

KATTALIN.—Keinuak behintzat aldegin dizute.

PATXI.—Konturatua naiz, bai. *(Eseriko da).* Burua ordea lertu beharrean! Ez dakit hobeagoagoa ez ote duen izan morroiak nere harrikada, neri amak eman zidan errezkada baino. Baina, zerk ematen dio harri edo delako horri horrelako indarra? Ez al dizu ezer esan oraindik On Xatur-ek?

KATTALIN.—Gozoa da bada. Isidrok alde egitean, zuek ere beraren ondoren joan zeratela eta laguntzaile gabe gelditzean. Eskerrak beste erdi mozkor hori azaldu den...

PATXI.—Nor? Zirilo? On Xatur-i laguntzen?

KATTALIN.—Hor da barruan berarekin.

PATXI.—Zirilok harriari ikutzea bakarrik palta dugu. Hortzat ere ihesi egingo diote korrika hasten den unean.

KATTALIN.—Edaria uzteko bada hala ere...

PATXI.—Edariari bakarrik? Baita beste gauza guztieri ere! Uste al duzu bizirik geldituko dela korrika saioa bukatzean? Hanka bat eliza nagusiko dorrean eta bestea berriz auskalo... Ederra da bada hori, ni bezala ibiltzeko!

KATTALIN.—Eta zuk bezalako burukoa hartzeko...

PATXI.—Ez dadila horrelakorik gertatu edo bestela auzoan bat gutxiago izango dugu. On Xatur-ek bere lana bukatu dezala lehenbailehen edo bestela guztiok zoratuko gara.

KATTALIN.—Benetan itxaropen handia jarria du eta esan didanez, urrea baino baliotsuagoa izan diteke atzo aurkitutako harri hori.

PATXI.—Zer? Zer diozu emakumea?

KATTALIN.—Entzun duzuna. *(Eseriko da Patxi-ren ondoan).* Urreak berak baino ere, gehiago balio dezakela... Zerbait aparta dela.

PATXI.—Ez inori ezer esan orduan. Bestela, berehala ditugu etxean auzoko guztiak. Gainera, ez zorionak emateko asmoz etorriak, baizik eta zerbait eskuratzeko asmoz. Hobe

izango dugu gainera beste mozkor arlote hori eta bere arreba lehenbailehen hemendik bidaltzea. Bestela berak ere zerbait eskatuko digute.

KATTALIN.—Ez da ordea erreza izango horiek bidaltzea.

PATXI *(Zutituaz).*—Alde egin beharko dute! Nor dira bada horiek gure etxean agintzeko? Berehala bidaliko ditut gainera!

Bederatzigarren agerraldia

PATXI, KATTALIN, ON XATUR, MIKEL, MIREN, ANA eta ZIRILO

MIKEL *(Etxe barruan deika).*—On Xatur! On Xatur!

MIREN *(Etxe barruan).*—Aita! Aita!

XATUR *(Agertuko da etxe barrutik, ondoren Mikel eta Miren direla Korrika, kanporako atetik alde egingo du).*—Oraingoan neu! Oraingoan neu!

MIREN.—Aita! Aita! *(Korrika, kanpoko atetik alde egiten du, bere ondoren Mikel dela. Anak ere, berdin egiten du).*

PATXI.—Harrikada bat eman beharko diot berari ere... *(Alde egiten du kanpoko atetik).*

KATTALIN *(Algaraz).*—Ja, ja, ja! Hau ere ikusi egin behar! Agure zahar hori tximista baino azkarrago korrika! Hartu behar du muturrekoren bat ederra! Hori duk sasoia duena, hori!

ZIRILO *(Agertuko da etxe barrutik, lehen baina gehiago, mozkortua. Eskularruak ditu jantziak).*—Ezin dut sinistu ikusten dudana. Zer zuen horrek?

KATTALIN.—Zera... Hik botila dantzatzen duken bitartean, harriari ikutu izango diola, zihur asko.

ZIRILO *(Barrez).*—Sasoi ona du oraindik ere On Xatur-ek. Bai jauna!

KATTALIN.—Hire ordez norbaitek izan beharko! Sagardoa edo ardoa aurkitu duk oraingoan?

ZIRILO.—Ardoa, ardoa... Gustu ederrekoa benetan eta edaten erreza. Bai jauna. Gure etxean izan ohi den baina hobeagoa.

KATTALIN.—Bide egokian gaituk zuen eskuetan harri hori utzita. Berehala jakingo diagu zerbait...

ZIRILO.—Harriak benetan itxura ederra du. Urrea dirudi. Eta lanean jardun dudanez, ez dut hemendik alde egiteko asmorik beraren zati bat patrikan izan gabe. Ez jauna.

KATTALIN.—Jakina! Arreba ere hortarako asmoan etorria izango duk.

ZIRILO.—Bai jauna. Ez duzu bada pentsatuko ezer gabe aldegingo dugunik lanean jardun eta gero...

KATTALIN.—Erantzungo diat nere senarra etortzen denean.

ZIRILO.—Bai jauna. Ederki! Oso ederki! Horrela egin behar izaten dituk gauzak etxean... Senar eta emazteak, alkar harturik... Bai jauna.

Hamargarren agerraldia

KATTALIN, ZIRILO, PATXI, MIKEL, ON XATUR, MIREN, ANA eta TERESA

PATXI *(Kanpoko atetik agertuko da, Mikel-en laguntzaz On Xatur erdi arrastan duela. Beren ondoren, Miren, Ana eta Teresa, honek lehen zuen makila apurtua duela eskuan).* Bejondeizula ama! Ederra zartatekoa benetan!

MIKEL.—Bai horixe! Buruaren erdi erdian oraingoan ere!

MIREN.—Hori da! Zartatekoa eman diola nere aitari eta zorionak ematea bakarrik palta duzute!

PATXI.—Zorionak? Horixe merezi dituela! Ederra naiz bada korrika ibiltzeko! Nork harrapatu behar zuen bestela zure aita?

MIREN.—Nekatzean geldituko zen.

PATXI.—Hemendik ehun bat kilometrora zenean...

MIREN.—Tira, tira... Eraman zazute ohe gainera. *(Alde egiten dute Patxi eta Mikel-ek On Xatur erdi arrastan dutela. Miren, beren ondoren joango da).*

ANA *(Zirilo-ri).*—Hik ere alde egitea hobe izango duk hemendik. Bestela, edateko gogoak alde egingo ditek...

ZIRILO *(Mingaina ateriaz, izugarrizko keinua egiten dio Ana-ri).* Eta ezer gabe gelditu? Ez jauna! *(Ana, etxe barrura doa).*

KATTALIN *(Teresa-ren ingurura joanaz).*—Baina, zuk gelditu al duzu?

TERESA.—Gelditu? Bai bapo! Etxe barruan zarata entzun dudanean prestatu naiz eta hurreratu denean, zart! Begiratu zaiozu nere makilari. Bai gelditu ere bapatean hankaz gora, zerualdera begira... Txintirik egin gabe!

KATTALIN.—Ondo jo duzu orduan?

TERESA.—Zure senarra bezalaxe. Hura atzekaldetik bezala, hau aurrez aurre eta zetorren bezala. Norbaitek nere beharra izan balezake ere berriro, makila berri bat hartu behar dut.

ZIRILO.—Neronek ere haize pixkat hartu behar dut eta lagunduko dizut atarira.

TERESA.—Zatoz bada... *(Alde egiten du, Zirilo ondoren duela, kanpoko atetik).*

KATTALIN *(Bakarrik gelditzean).*—Ezin dezakegu denbora gehiagoan jarraitu, etxean zer dugun jakin gabe. Burua galduko dugu guztiok bestela! Gauza bat da urrea edo aberastasuna izatea eta bestea berriz guztiok erotuta bukatzea. *(Deituaz etxe barrura).* Patxi! Mikel! *(Beretzat).* Oraintxe bertan erabaki behar dugu zer egin... On Xatur edo delako horrek zerbait egingo duelako ustean bagera, urte osoa igaroko dugu ezer jakin gabe...

Hamaikagarren agerraldia

KATTALIN, PATXI, MIKEL eta ANA

MIKEL *(Agertuko du etxe barrutik, ondoren Patxi eta Ana dituela).*—Deitu egin al duzu, ama?

KATTALIN.—Deitu egin dut bai, baina zuri eta aitari bakarrik.

ANA.—Neri ez orduan?

KATTALIN.—Ez eta zerbaiten berririk jakitea nahi baduzu, galdetu zaiozu anaiari.

ANA *(Haserre).*—Oraintxen bertan alde egingo dut emakumea! Ikusiko litzake nolatan harrotzen den etxekoandrea? Edozeinek pentsatu dezake zuri entzun da, aberastasuna gainezka duzula...

KATTALIN.—Aberastasun gehiegirik ez, baina haserretzen naizenean zuk bezain aurpegi gogorra nik ere! Zoaz zeure etxea gobernatzera, anai mozkor hori hartuta...

PATXI.—Tira, Kattalin...

KATTALIN.—Zirt eta zart hasi behar dut bestela une batetik bestera!

ANA.—Banua, bai... Banua... Baina, etxean ezkutaturik duzuten gauza horren berri nik zabalduko dut herri osoan zehar. Ez zarete alferrik, guztia zuentzat izango dela pentsatzen baduzute. Laguntza emateko asmoan etorri eta honela bidali azkenean? Etsaiak izango ahal dira harri zahar horren barnean!

KATTALIN.—Etsaiak? Nahi al ditun berak ikustea? Ikutzea nahikoa den hor barruan den harriari...

ANA *(Beretzat).*—Atso zahar petrala!

KATTALIN *(Ana-ren ondora joanaz haserre).*—Zer ari haiz marmarrean? Joanadi agudo nere aurretik edo sartuko dinat harri horren zati bat ahoan.

ANA.—Heuk ere zati ederra sartzeko aho zabala dun...

KATTALIN *(Alde eginaz Ana-ren ondotik).*—Eman behar diot gainera muturrekorren bat!

ANA.—On Xatur-ek zerbait jakitean hemen nauzue berriro... *(Alde egiten du kanpoko atetik).*

KATTALIN.—Lotsagabekerian ez dio inork irabaziko behintzat! Sartuko diot sardea, hankak berriro etxe honetan jartzen dituen unean!

PATXI.—Lotsagabea dela guztiok jakinean gara, baina oraingoan zuk ere...

KATTALIN.—Zer uste du bada horrek? Zerbait somatu orduko hemen izaten da beti. Konpondu dadila beraren etxean!

MIKEL.—On Xatur-i ere behintzat, berak deitu dio...

KATTALIN.—Hori gainera! *(Eseriko da).* Gure etxean gertatzen denari buruz hitzegiteko eta erabaki bat hartzeko deitu dizuet. Oraingo eran ez dugu jarraitzerik.

PATXI.—Baina, zer esaten ari zara?

KATTALIN.—Zer esaten ariko naiz bada? Ulertzea nahi ez duenarentzat ezer ez! Baina, zuek uste al duzue zerbait igarriko diola agure zahar horrek?

MIKEL.—Bizitza guztian, langintza horretan ari da On Xatur. *(Eseriaz).* Harriari ikutu ez bazion, honez gero zerbait ja kin genduen.

KATTALIN.—Berriro ikutzen ez badio hala ere... Zientzigizona izango duk bai, baina oraingo eran ez dik harriaren berririk berehalakoan jakingo. Nere ustez, beste norbait ekartzea hobe izango diagu lan hori egiteko.

PATXI.—Baina, esan ez duzu bada urrea baino baliotsuagoa izan ditekela eskuartean dugun harri hori?

MIKEL.—Neri horrela esan dit, bai.

KATTALIN.—Baita neri ere. Baina, noiz jakingo dugu horrela den edo ez? Orain egin duen korrika saio horren ondoren, ganora ederra izango du lanean jarraitzeko. *(Patxi-ri).* Zuk izan dituzun bezalako keinuak baditu...

PATXI.—Horixe izango dituela horrek ere!

KATTALIN *(Zutituaz).*—Eta zer? Bera sendatu bitartean geldi egon behar al dugu? Ausartuko dela uste al duzue agure zahar hori berriro harriari heltzen?

MIKEL *(Zutituaz).*—Era horretako lanak egiten dituztenak ama, ohituak izaten dira. Zientzia lanetan diren guztieri gertatzen zaizkie horrelakoak. Behin zerbait gaizki irten zaietela eta gauzak alde batera utzi bazituzten gure zientzigizonak, oraindik ezer asmatu gabe izango ziren. Gaur egun noiznahi behar izaten ditugun gauzen erdiak ere ez ginuzen izango.

KATTALIN.—Hor barruan dugun gauza hori etxean dugun bitartean ez naiz bada oso lasai... Bera zer den ez dakigu. Zer indar duen ere ez. Agure zahar horrek berriz, ez dut uste sekula igarriko dionik...

PATXI.—Baina, zuk uste al duzu On Xatur-ek iritsi duen maila ezer jakin gabean iritsi ditekela? Bere jakinduriaren ondorena da. Zientzigizon apartekoa da.

MIKEL.—Bai ama. Egia dio aitak. Bera bezalakoak ez dira asko gaurko egunean.

KATTALIN.—Zenbat eta gutxiago izan da hobe.

PATXI.—Gainera zer egiten dugu beste zientzigizon bat etxera ekartzean? Berehala jakingo du herri osoak zer aberastasun dugun. Eta, ondoren zer?

MIKEL.—Zenbat eta jende gehiago inguruan, bakoitzarentzat gutxiago.

KATTALIN.—Oraingo eran ezer ez!

PATXI.—Tira, lasaitu zaitez.

KATTALIN.—Lasaitu, lasaitu... Gaur iluntzera bitartean bakarrik. Iluntzerako zerbait egiten ez badu agure zahar horrek, bihar goizean lehenengo orduan, beste norbaiten bila joango naiz. Edo bestela, eraman dezala On Xatur-ek berak harri hori... Zer dugun etxean jakin gabe, ezin egongo gara.

Hamabigarren agerraldia

KATTALIN, PATXI, MIKEL eta ZIRILO

ZIRILO *(Agertuko da kanpoko atetik, norbaitek aurpegian joa izango balitzake bezala. Haserre da).*—Jakin behar dut zer egin diozuten nere arrebari. Bai jauna.

KATTALIN.—Hauxe bakarrik palta genduen oraintxe!

ZIRILO.—Nork erantzun behar dit aurrena? Zer egin diozute nere arrebari?

PATXI.—Guk ezer ez. Zer esan dik bada berak?

ZIRILO.—Esan? Ezer ez! Zart! zaplateko ederra hurreratu zaidanean... Ezer esan gabe. Eskerrak gainera, ez diodan ezer esan, bestela bigarren zaplatekoa hartzeko arrisku ederra... Zuekin izango zuen zerbait...

PATXI.—Ez dik gurekin ezer izan eta konpondu zaitezke elkarrekin. Egun batzutan ez zaitezke etxe honetara azaldu ere egin.

ZIRILO.—Bidali egiten al nazue? Ez diat bada hori egingo! Ez arranoa, beste gauza hori hemen duzuten bitartean. Bera zer den jakin behar diat aurrez. Bai jauna.

PATXI.—Tira Zirilo, joanadi haserretu baina lehen...

ZIRILO.—Bai jauna. Oraintxe bertan, baina bihar goizean hemen izango nauk berriro.

PATXI.—Zirilo, Zirilo...

ZIRILO.—Bai jauna.

KATTALIN.—Ez al duk entzuten etxeratzeko?

ZIRILO.—Banua, banua... Beste zaplateko bat gora behera, nere arrebarena joan beharko dut. Baina bihar goizean hemen naiz berriro. *(Alde egiten du kanpoko atetik).*

KATTALIN.—Hori duk bikotea duguna auzoan, beren laguntza beharrean garenerako. Hoiek lagunduko zigutek ederki...

MIKEL.—Begizkoak dituzu behintzat, ama. *(Une honetan, etxe barruan izugarrizko zunpetekoak entzuten dira).*

PATXI.—Baina, zer gertatzen da hor barruan?

KATTALIN.—Jainko santua! Zuen harri nazkagarri hori izango da.

Hamahirugarren agerraldia

KATTALIN, PATXI, MIKEL, ISIDRO, ON XATUR eta MIREN

ISIDRO *(Agertuko da etxe barrutik eta kanpoko atetik alde egiten du korrika. Burua bendaz estalia du).* Ez nau berriro harrapatuko! Ni ez berriro!

PATXI *(Algaraz).*—Ja, ja, ja! Oraingo korrika saioan itoko duk! Morroi berria aurkitu beharko diagu.

KATTALIN.—Bai, bizirik gelditzen bagara...

MIKEL.—Zer gertatzen da hemen?

XATUR *(Keinu izugarriak egiten dituela azalduko da etxe barrutik. Miren beraren ondoren).*—Ez duk harriaren arrastorik ere gelditu! Guztia, bapatean desargertu duk! *(Haserre benetan).* Kaka zaharra! Oraintxe guztia eskuartean nuen garaian... Azkenean ezer jakin gabe gelditu nauk! Izan ere, keinu hauek ditudala nolatan egin ezer?

MIKEL.—Ezin dut sinistu! Ezin diteke desagertu berrogei kiloko harririk! *(Etxe barrura joango da).*

PATXI.—Baina, zer ote zen orduan? *(Joaten da etxe barrura).*

XATUR.—Oraindik gizonak inoiz eskuartean izan gabekoa eduki eta ezer ez diat egin! Sekula ez diat berriro horrelako aukerarik izango!

KATTALIN.—Ez gure etxean behintzat!

XATUR.—Ez hemen eta ez beste inon! Kaka zaharra!

KATTALIN *(Haserre).*—Entzun zaidazu ondo, agure zahar arlotea.

MIREN.—Zer? Nere aita gatik al diozu hori?

KATTALIN.—Aita bezalakoa alaba ere! Alde zazute agundo hemendik! Zuk On Xatur, gogoan izan lehen ere zartateko ederra hartua duzula... Nik emango dizudana ez da izango lehengoa baino txikiagoa. Ez horixe!

PATXI *(Agertuko da etxe barrutik, Mikel ondoren duela).*—Ez da ezertxo ere gelditu!

MIKEL.—Harrigarria benetan!

KATTALIN *(On Xatur-i).*—Entzun duzu... Etxe honetako lanak bukatuak dituzu eta zoaz zure zientzia lan hoiekin beste batzuk zoratzera.

XATUR.—Sinisgabeko emakumea! Negar egiteko gogoa etortzen zait, zu bezalakoentzat nere bizitza osoa eskaintzen dudalako.

MIREN.—Kultura gabekoekin jardutea, alferrikakoa duzu aita.

XATUR.—Egia diozu. Hauen artean ez da sekula sortuko ezer. Arlote jarraituko dute beti...

PATXI *(Haserre, On Xatur-i).*—Kontuz gero, On Xatur... Nere emazteari txorakeriak esateko gogoa berehala kenduko dizut txiza potzuan goitik behera sartzen bazaitut...

MIREN.—Tira aita, goazen agudo hemendik. *(Besotik heldurik On Xatur-i).*—Goazen agudo.

XATUR.—Honelakoentzat jarduten al dugu lanean? Ezer eskertzen ez dakiten hauentzat?

PATXI.—Zoaz agudo hemendik edo egin behar dut ez egitekoren bat. Alde hemendik!

MIREN *(On Xatur-i besotik tiraka kanpoko ate aldera).*—Tira aita, utzi zaiezu pakean. Goazen agudo!

XATUR.—Hauen gandik ez du behintzat munduak gauza berririk ezagutuko...

KATTALIN.—Lehen ezagutzen ditugunak zaintzen ere, nahiko lan izango dugu, zuen antzekoak tartean badira.

MIREN.—Oraindik, gutzaz gogoratu behar duzute. Bai horixe! *(Kanpoko atetik alde egitera dijoela On Xatur-ekin, Teresa eta Zirilo-rekin topo egingo dute, Isidro dakartela erdi arrastan. Hauek etxe barrura sartu ondoren, On Xatur eta Miren-alde egiten dute).*

Hamalaugarren agerraldia

Lehengoak, TERESA, ZIRILO eta ISIDRO

TERESA.—Zuretzaz ez dakit gogoratuko naizen, baina hau bai behintzat nitzaz. *(Hau da unea, On Xatur eta Miren-ek alde egiten dutena kanpoko atetik).*

PATXI.—Baina, zer egin diozute?

TERESA.—Zera... On Xatur edo delako horri lehen egin diodan berbera. Zirt eta zart makilka ederrak eta plost lurrera...

KATTALIN.—Buru ederra izango du orduan! Bizitzeko eran bada hala ere, ezer ez.

PATXI.—Nik dudala punteria ona?

MIKEL.—Bai amonak ere!

KATTALIN.—Eraman zazute agudo ohe gainera. *(Zirilo-ri).* Berriro ere, hi hemen? Ez al duk entzun etxeratzeko?

ZIRILO.—Orain ere behintzat, lanean nintzen...

KATTALIN.—Baita zera ere! Alde zak agudo!

ZIRILO.—Banua etxekoandrea, banua... Bihar goizean berriro etorriko naiz... *(Alde egiten du kanpoko atetik).*

PATXI.—Ez duk alferrik etorriko!

KATTALIN.—Eta orain, txorakeriak bukatu dira etxe honetan! Une honetatik aurrera, guztiok lanean ikusi nahi zaituztet. Ametsak alde batera utzi eta lanera agudo! Atzo gauean gure gana etorri ziren horiek ere lanik egin gabe ez dira biziko eta guk ere egin beharra dugu. Tira, hartu zazute hau eta eraman ohe gainera. Nik eztenkada bat ematen diotenean, berehala izango duzue zuekin. *(Patxi eta Mikel-ek eramango dute Isidro etxe barrura erdi arrastan. Ondoren, Kattalin joango da).*

TERESA *(Bakarrik gelditzean).*—Egileak zigorra zertarako bidaliko zigun bada? Zigor txikia dela iruditzen al zaizute, emakume horrekin bizitzea? *(Eseriko da eta errosarioa patrikatik atera ondoren, otoitz egiten hasiko da).* Aita gurea, zeruetan... *(Jarraituko du isilean).* Ederki jo dut bada morroia! Agur Maria, graziaz betea... *(Jarraituko du isilean).* Egia aitortu behar badut ordea, On Xatur-ek zartateko handiagoa izan du. Santa Maria, Jaungoikoaren... *(Jarraituko du isilean).* Zirt eta zart! *(Hitz hauek esatean, antzeztokiko argiak itzaliko dira bapatean).*

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD BASCONGADA
DE LOS AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País):

España

Suscripción anual	1.500 ptas.
Número suelto	800 »
Número atrasado	1.000 »

Extranjero

Suscripción anual	1.800 ptas.
Número suelto	1.000 »
Número atrasado	1.200 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500 ptas.
Número suelto	300 »

Extranjero

Suscripción anual	600 ptas.
Número suelto	400 »

MUNIBE (de la Sociedad de Ciencias «Aranzadi»)

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 ptas.
Años 1962 y siguientes	300 »

Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa
Redacción: Seminario de Filología Basca «Julio de Urquijo»
SAN SEBASTIAN